

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarateak argitaratu du obra hau, elkaratearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

BBV Fundazioa

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea

DELITUEZ ETA ZIGORREZ

CESARE BECCARIA

Delituez eta zigorrez



Jatorrizko izenburua:
Dei delitti e delle pene
Euskaratzailea: Juan Martin Elexpuru
Berrikuslea: Maite Aristegi
Hitzaurregilea: Ignacio Berdugo Gómez de la Torre

Lehen argitalpena: 1999ko azaroan

© Itzulpenarena: Juan Martin Elexpuru
© Klasikoak, 1999.
Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren
pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta
trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren
bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia 1999-XI-5

ISBN: 84-88303-35-1
Lege gordailua: BI.-2398-99

Fotokonposaketa: L&A Diseinua
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

HITZAURREA

Dei Delitti e delle Pene 1764an argitaratu zen Livornon, egile-izenik gabe, Marco Coltellini Abatearen moldiztegian. Liburuak arrakasta handia lortu zuen berehala Europako giro ikasietan, eta honen adierazgarririk onena, liburua agertu eta urtebetera elkarte suizar batek, Bernako Elkarte Patriotikoak, hartu zuen erabakia: «hogei dukateko domina eskaintzea delituei eta zigorrei buruz italieraz argitaratu den tratatuaren egile ezezagunari, eta bere burua ezagutarazteko eta ospetsu bihurtzeko gonbita luzatzea, gizadiaren alde eta aurreiritzi errotuenen aurka egiten ausartu den hiritar jatorrari».

Liburuak halako arrakasta izan bazuen, une historiko hura bere orrietan agertzen ziren erako gogoetak zabaltzeko egokiena zelako izan zen, neurri handi batean.

Ez da kasualitatea liburuaren argitalpen asko Robert Damiensen urkamendiaren kontaketaekin etortzea, La Greveko Plazan, oinaze arrunt eta bereziaz, Luiz XV.a aitzotz zauritzeagatik; edota edizio latinamerikarren batean Tupac Amaruren urkamendia agertzea, El Cuzcoko Arma-plazan. Kontakizun hauen bidez jabe daiteke irakurlea zer nolako zigor-izua erabiltzen zuten orduko monarkia absolutoeak.

Liburu hau azaldu baino lehen, Voltaireren prosak bere *Zapalduen alde*-rekin ederki astindu zituen orduko giro ilustratuak. Zera zioen Voltairek: «Calasen erailketa, justiziaren ezpatak Okzitaniako Tolosan 1762ko martxoaren 9an burutua, inoizko gertakizunik berezienetakoa da, gure garaikideen eta ondorengoen arreta merezi duena». Merkatarari hugonote hau gurpilean hil zuten bere semea erailtzearen akusaziopean, inolako froga sinesgarririk gabe, eta gertaera honek gogoeta indibidual eta kolektiboa eragingo du zuzenbide penalak estatu batean izan behar duen edukiaz; izan ere, orduko pentsamendu ilustratuaren arabera, estatua gizakiak sortutako tresna baitzen denok zoriontsuago izateko, eta, honengatik, itzuli kopernikar bat jarriko da abian, dotrinan lehenik eta zigor-legeetan gero.

Erregearen, estatuaren eta soberaniaren jainkozko jatorriaren arteko identifikazioak bere baitan zekarren, orokorrean, boterea monarkaren eskuetan pilatzea, eta zigor-eremuan delitu eta bekatu ideiak elkarren gainean jartzea, eta auzi penala erruztatuaren aitorpena lortzera bideratzea, inkisizio-prozedurak erabiliz. Honi gehi diezaiogun zigorren gogortasun nabarmena, egoera hau saihets zezaketen bide politiko eta juridikoen gabeziak eragindako sistemaren krisia, eta zigorren berdintasun falta, legeetan beraietan aurreikusia, batetik delituak ez zeudelako behar bezala deskribatuak, bestetik epaileen iritzira uzten zelako zigorren zehazpena, edota, azkenik, nobleziak pribilegioak zituelako lege penalaren aurrean.

Estatu honen aurka eta, beraz, zuzenbide honen eta bere erabileraren aurka jaiki ziren argien mendeko figura nagusiak. Rousseau, dibinitatearen soberaniaren jatorria gizarte-hitzarmenean kokatu zuena, eta Montesquieu, estatuko botereen banaketa ezinbestekoa azpimarratu zuena. Biak mintzatzen dira beren idatzietan zuzenbide penalaz. Hona hemen, adibide gisa, Montesquieuren testu hau bere *Legeen Espiritua* liburutik aterea: «Gizakia ez da bide arraroetatik eraman behar; aitzitik, oso kontu handiz aukeratu behar dira naturak gizakia gida-

tzeko eman dizkigun bitartekoak. Lasaikeriaren jatorria zein den aztertzen badugu, delituen zigorgabetasuna dela ikusiko dugu, eta ez zigorren biguntasuna», eta geroago: «Nahi eta nahiezkoa da zigorrek beren artean oreka gordetzea, nahi eta nahiezkoa delako delitu larria saihesten ahalegin handiagoa jartzea, delitu arina saihesten baino, gizartea asko samintzen duena, gutxi samintzen duena baino».

Kontestu honetan agertzen da liburu hau 1764an, eta bai liburuaren eta bai bere egilearen historia une historiko haren aderazgarri onak dira. Cesare Bonesana, Beccaria-ko markesa, Milanen jaio zen 1738an, familia noble baten baitan. Oso heziketa tradizionala hartu zuen Parmako Jesuiten Ikastetxean; ondoren, jurisprudenzia ikasi zuen Paviako Unibertsitate ospetsuan. Milanera itzuli zenean, gune ilustratuetan murgildu zen; hauek Pietro eta Alessandro Verri anaien etxean biltzen ziren, «Accademia dei Pugni» delakoan.

Liburu hau batzarleku honetan izandako eztabaida eta gogoeten ondorioa da. Beccariak, nolabait esteko, forma eman zien han izandago eztabaidei. Garai hartako gutuneria oparoari esker, frogatua dago Verritarren bultzada eta liburuan izan zuten eragin zuzena. Esate baterako, 1780an, zera idazten zion Pietrok bere anaiari: «... liburua Beccariak egin du, estiloaz zerbait dakien edonork igarriko du ez dela nirea, baina esan dezaket, bene-benetan, liburu hau ez zela ni gabe egingo eta argitaratuko, badakidala bertako ideien zati handi bat gu bion artean garatua dela, torturari dagokion atala nire oharretatik aterata dagoela...».

Liburua idatzi baino lehenxeago, Beccaria bere familia-tik urrundu zen, Teresa Blascorekin ezkondu zenean gurasoen borondatearen kontra. Teresa Blascorekin bi alaba izan zituen, bietako bat, Julia, Alessandro Manzoniaren ama izango da.

Liburuaren arrakastak —edizio mordoa egin zen, eta itzuli eta hedatu Europa guztian— gizon ospetsu bihurtuko du Beccaria, eta erreferentzia saihestezina izango da edozein

eztabaidatan. Liburuaren mamia sutsu goraipatzen dute batzuek eta garratz gaitzesten beste batzuek, eta bere egilea ezinbestez gonbidatzen kontinenteko elkarte ilustratu guztietara. Beccariak Parisera joatea onartzen du bakarrik, ezustean itzultzen da handik, eta ospea eman zion liburutik urruntzen hasten da. Lehen momentu batean, berarentzat apropos sortu-tako Ekonomia katedra bat hartu zuen. Geroago, alargun gera-tu eta Anna Barbórekin ezkondu zen, eta seme bat izan zuen, Julio, eta, denbora berean, Administrazioako goi-funtzionario egin zen. Bere bizitzako gainontzeko egunak Milanen eman zituen, oso bizimodu iluna eramanez. 1794an hil zen.

Liburu hau irakurtzean, berehala ikusten da egileak Frantziako filosofo ilustratuekin duen lotura sendoa, «nik dena liburu frantsesei zor diet... filosofo frantsesek bere kolonia dute Amerika honetan, eta gu beren ikasleak gara», diotsa gutun batean Morelet-i, bere frantses itzultzaileari. Horregatik, bere edukia —ezinezkoa zen beste era batera izatea—, orduan indarrean zegoen zuzenbide penalari eta prozesalari egindako kritika sistematikoa da. Tomás y Valiente-k dekalogo honetan laburbiltzen ditu Beccariak aldarrikatzen duen zuzenbide penalaren ezaugarriak: 1. Zentzuntasuna, 2. Zuzenbide penala-ren legaltasuna, 3. Justizia penalaren izaera publikoa, auzi aku-satzailea eta ez inkisitiboa, 4. Noble, burges eta herri xehearen arteko berdintasuna lege penalaren aurrean, 5. Delituen larrita-suna gizartean eragindako kaltearen arabera neurtzea, 6. Zigorrak ez dira eraginkorragoak ankerragoak direlako, 7. Zigorren helburua, gaizkilea zigortzea baino gehiago, etor-kizunean gerta daitezkeen balizko delituak eragozte da, 8. Oreka zehatza delituen eta zigorren artean, 9. Heriotza-zigorra injustua da, eta ez da ez beharrezkoa eta ez eraginkorra, 10. Azkenik, garbi izan behar da egokiagoa eta zuzenagoa dela prebenitzea zigortzea baino.

Nire ustez, laburbilduz, liburuan aldarrikatzen den Zuzenbide Penalaren edukiak oinarri bat eta bi ondorio edo

ezaugarri ditu, berak erdietsi nahi duen sistema penala gizarte-sistema pertsonalista bati dagokiona da eta. Zuzenbide Penal honen oinarria beraren beharrezkoa da, eta legaltasuna eta gizatasuna bere bi ezaugarriak.

Liburu honen proposamenetan inspiratu zen garaiko zenbait monarka ilustratu beren berrikuntzak egiteko, Rusiako Katalina II.a, Austriako Jose II.a eta Toscanako Leopoldo, adibide esanguratsuenak aipatzearren. Baina, esan beharrik ez, gizarte-ituna ez zen monarkia ilustratuen abiapuntua, eta hauek ere ez zuten botere-banaketa Beccariaren orrialdeetan aldarrikatzen den erara egituratzen, horretarako zuzenbide penalari bidea irekiko zion estatu-eredua ezarri behar baitzen.

Esan nahi dena da, zuzenbide penal horrek estatu-eredu desberdina eskatzen zuela, eta hau gauzatzen ez zen bitartean ezinezkoa zela osorik garatzea *Delituez eta Zigorrez*-en baitan dagoen legegintza proiektua.

Liburu honetan agertzen den zuzenbide penalak zein bereizgarri duen galdetzen badugu, zuzenbidezko estatu liberalaren zuzenbide penalak zein bereizgarri duen galdetzen ari gara. Normalean, bi ezaugarri nabarmen aitortzen zaizkio: legaltasun-irizpidea eta zigorren biguntasuna. Oinarri biak estatu-tresnaren sortzaile den hitzarmen ideian sustraitzen dira. «Beharrezkoa izan zen, beraz, gizona bere askatasunaren zati bat ematera bultzatu zuena», dio Beccariak, eta geroago jarraitzen du, «osasun publikoaren gordailua zaindu behar-aren muga gainditzen duten zigorrak injustuak dira berez».

Bi mende geroago, Ordezko Proiektu alemaniarraren egileek, zinez liberala zen zuzenbide penal baten azken bultzatzaileek, zuzenbide penalaren oinarriez gogoeta egiten zutenean, honakoa esaten zuten zalantzarik gabe, «zuzenbide penala behar garrantz bat baino ez zela».

Zuzenbide penalaren justifikazioa gizartean bertan bilatzea, gizartearen iraupenean, eta hau gizabanakoaren neurrira

egitea, da, zalantzarik gabe, Beccariak proposatzen duen egitasmoaren ardatza. 1789ko abuztuaren 26ko Gizakien eta Hiritarren Eskubideen Deklarazioa bera ere ideia hauen azalpena da. Baieztapen honekin hasten da honen 5. atala: «Legeak gizartearentzat kaltegarri diren ekintzak debekatzeko eskubidea du bakarrik», eta aurrerago, 8. atalean, azpimarratzen du: «Legeak zigor zehatzak eta behar-beharrezkoak bakarrik ezarri behar ditu».

Delitua zer den esateko irizpidea, beraz, eragiten duen kalte soziala da, eta ez ordena etiko jakin bati egiten omen diona, eta, beti ere, gizarte jakin bati begira, Deklarazioak oinarritzat hartzen duenari, hain zuzen. Irizpide hau dotrinatzat erabiltzen da gaur egun on juridikoan eta gizarte-eredu pertsonalistan oinarrituriko edozein dotrina lantzeko. Hauxe da gure jarrera ere, on juridikoaren teoriak legegile penalaren jarduerari, bere eduki konkretuetan, muga bat jar diezaiokeela pentsatzen dugun guztiona.

«Irizpide hauen lehen ondorioa honakoa da: legeak bakarrik ezarri ahal diola zigorra delituari, eta ahalmen hau legegilearen baitan baino ezin daitekeela egon, honek gizarte osoa ordezkatzan duelako gizarte-itun bat dela medio», esaten du Beccariak, eta honekin ez du Roussearen ikusmolde orokorrak zigor-eremura eramanez besterik egiten, honek tresna bat eskatzen baitzuen gorputz politikoaren hitzarmena eguneratzeko, eta Montesquieurenak, honek hitzarmena hiritarrak ordezkatuak egotearekin lotzen baitzuen.

1789ko Gizakien eta Hiritarren Eskubideen Deklarazioak ere jasotzen du ikuspegi hau, zera esaten baitu Legeari buruz ari delarik bere 6. artikuluan: hiritar orok du, pertsonalki edo beren ordezkarien bitartez, bere sorkuntzan parte hartzeko eskubidea», eta aurrerago, lehen aipaturiko 8. artikuluan, zera azpimarratzen du, «inor ezin da zigortu, delitua egin baino lehenago ezarri eta aldarrikatutako legearen arabera ez bada».

Aho batez onartzen da legaltasun-irizpidea, sustraiak zuzenbidezko estatu liberalaren oinarri politikoan dituenak, Sax-ek esan zuen bezala, ilustrazioaren alaba dela.

Irizpide honen historia bere oinarriaren ahazturaren historia izan da batzuetan, zeren eta bere izaera aldarrikatzeak ez baitu esan nahi irizpide orokor bat badenik halako ekintza delitua dela eta zigor jakin bat merezi duela zehazten duena; esan nahi da lege horrek eduki eta jatorri jakin bat izan behar duela.

Horregatik, zigortzeko ahalmena zilegiztatuko duen jatorri jakin bat behar du. Zuzenbide estatuaren egiturari, lege-gilea ez da legeak egiten dituenak, hitzarmena onartu zutenen ordezkaria baizik, eta, horregatik, legeak egiteko legimitatua dagoena. Demokratikoki aukeratutako legebiltzarrean adierazten den borondate orokorren mamitza izan behar du legeak. Honek bakarrik ahalbidetzen du legaltasun irizpidea, zuzenbide estatuari dagokion irizpidea ez ezik, estatu demokratikoarena ere izatea. Irizpide honekin bakarrik berma daiteke zigor araudietan komunitatearen interes guztiak ordezkatzeko dituen bidea. Honen benetako gauzatzea beste eragile extrapenal batzuek baldintzatzen dute, hauteskunde-sistemak, esate baterako. Ohar gaitezen legaltasun-irizpidearen benetako gauzatzea, azken batean, berarengandik at dauden baldintzen gorabeheran dagoela.

Baina gizarte-ordena guztia gizabanakoaren gainean sustatzea eta hau gizarte-hitzarmenean oinarritzea da Iraultzatik jaiotako zuzenbide penalariei egozten zaion beste ezaugarri baten iturria, bere edukiaren humanizazioarena, hain zuzen.

Zuzenbide Penala gauzatzean egiten ziren gehiegikeriak, lehen aipatu dugun Calas kasua, Damien-en urkamendi ezauna eta beste anitz, bateraezinak ziren beharizanaren irizpidea eskatzen zuen hitzarmen ideiarekin.

Gehiago esango dugu, Beccaria, Marat, Montesquieu edo Voltaire-ren testuen irakurketak garbi uzten du zigorraren

helburua prebentzioa dela, gaur egun prebentzio orokorra deitzen duguna, eta prebentzio hau oreka-irizpidea errespetatuz lor daitekeela bakarrik.

Montesquieuk bere *Legeen Espiritua* liburuan, lehen ikusi dugunez, zera dio: «Nahi eta nahiezkoa da zigorrek beren artean oreka gordetzea, nahi eta nahiezkoa delako delitu larria saihesten ahalegin handiagoa jartzea, delitu arina saihesten baino, gizartea asko samintzen duena, gutxi samintzen duena baino».

Zera esaten du Beccariak ildo beretik: «Zigor berdina jartzen bazaie gizartea modu ezberdinean samintzen duten bi delituri, gizakiak ez du handiena egiteko eragozpen berezirik aurkituko, harekin onura handiagoa lortzen badu».

Zigorrak, beraz, orekan egon behar du delituak eragindako kaltearekin, eta oreka hau prebentzioan oinarritzen da.

Lege batetik eratortzen den prebentzio-ahalmena ez dago bere gogortasunean, legea gauzatuko den ziurtasunean baizik. Arrazoiz gogoratzen zuen Montesquieuk: «Lasaikeriaren jatorria zein den aztertzen badugu, delituen zigorgabetasuna dela ikusiko dugu, eta ez zigorren biguntasuna».

Testu berean, Montesquieuk motibazioaren garrantzi soziala somatzen du, gaur egun Muñoz Conde bezalako autoreek garatu dutena: «Zigorren gogortasuna izuan oinarritutako gobernu despotikoei komeni zaie batik bat. Estatu moderatuetan —gehitzen du— aberriaren maitasuna, lotsa edo gaitzespenaren beldurra dira arrazoi nagusiak, delitu asko saihets dezaketenak».

Izan ere, diktaduretan Zuzenbide Penalak egiten duen gizarte kontrola beste instantzia batzuetatik egiten denaren aurka egoten da. Eta hau gauzatzeko bide bakarra gogorkeria da; erregimen demokratikoetan, zigor eskubidearen kontrol sozialak beste kontrol-instantzien norabide berean jokatu du.

Oinarri hauekin, beharrian-irizpideak zera bilatzen du orokorrean: zigorren gogortasuna leuntzea. Beccariaren libu-

ruak zigorrei ankerkeria kendu behar zaiela errepikatzen du behin eta berriro, eta hau sasoiko espirituaren harian dago; orduko monarka ilustratuen erreforma ezagunak dira honen froga garbiak.

Ideia hauek zigorren edukiak bigunduz gauzatzen dira, zuzenbide penalak ezin baitu gizakiaren duintasuna samindu. Estatu liberalaren jokalekua sortu izanak gauza hauen inguruan gogoeta egiteko eta ideia hauek garatzeko bide eman zion gizakiari. Pertsonaren duintasunak gorputz-zigorrek zokoratzea ekarri zuen lehendabizi, heriotza-zigorra gero, eta zigorzuzenbidearen edukia biguntzea edo iraupen luzeko zigorrak zalantzan jartzea beranduago.

Dei Delitti e delle Pene-ren gaztelerazko itzulpena, Juan Antonio de las Casas-ek egin, 1774an argitaratu zen, baina ez administrazio-eragozpenik gabe, nahiz eta hauek Gaztelako Kontseiluaren aurrean Campoamor fiskalak egindako dilijentziei esker gainditu ziren. Sarrera-ohar baten bidez, itzultzailea bera Inkisizioarekin izan zitzakeen arazoei zirkun egiten ahalegindu zen, Beccariak liburuan zehar isurtzen zuen ikuspegi politiko eta erlijiosotik garbi aldenduz.

Zuzenbide penalaren Espainiako egoera eta Europako beste herrialdeetako ez zen oso ezberdina zigorren gogortasunari edo legearekiko atxikimendu faltari dagokionean, nahiz eta, menturaz, hemen Elizaren eragina handiagoa izan Inkisizioaren jardueraren bitartez. Izan ere, Inkisizioak 1774ko ekainaren 20an debekatu egin zuen liburua irakurtzea, baina liburuari baimena ematen jarraitu zuen Gaztelako Kontseiluak. Honekin nabarmen geratu zen pentsamendu ilustratuak administrazio-esparruetan zuen eragina, Carlos III.aren erregetza garaian. Liburuaren zabalkundearekin areagotu egingo da eragin hau alor penalean, baita itzulpena agertu aurretik ere. Eragin honen kariaz, zigor-legeria zentzatzeko eta berritzeko ahalegina egingo da Gaztelako Kontseiluaren aurrean, pentsamendu ilustratuaren ordezkari nabarmenetari-

ko baten, De la Roda ministroaren, eskutik. Iturburu berdina du Manuel de Lardizabalen obrak, *Discurso sobre las penas contraído a las leyes criminales de España para facilitar su reforma*. Lardizabalek, jatorri euskaldunekoa eta Mexikoko Tlaxcala-n jaioa, zigorrak biguntzeko eta legeria zentzatzeko ideia bere egiten ditu liburu honetan, baina ez du onartzen Beccariaren pentsamenduaren abiapuntua, zera baitio: «gobernatzeko ahalmena eta eskubidea, eta horretarako bitarteko zehatzak aukeratzeko gaitasuna Jainkoarengandik dator».

Ez dator Lardizabalekin guztiz bat, baina bai ostera Beccariarekin, Salamankako Unibertsitateko Filosofia Ikastetxeko irakasle-taldea, Espainian pentsamendu liberala sartzeko giltza izan zena. Aipagarriak Ramon Salas, bere idatzietan beti Doctor Salamanca bezala izenpetzen zuena, Inkisizioaren erabakiz bere katedra galdu eta espetxea ezagututakoa, edo Toribio Nuñez, Unibertsitate honetako liburuzaia eta liberal sutsua. Beren eraginez itzuli zen Jeremias Benthanez pentsamendua, eta biek aitortzen dute Beccariaren liburuaren miresle direla. Salasen hitzetan: «Montesquieu Lehendakariari Beccariako Markesak jarraitu zion, zeinek delituei eta zigorrei buruzko legeriaz ezagutzen dudana liburu-rik onena eman zigun».

Beccariaren lege-proposamenek eragina izan zuten, lehen ikusi dugun bezala, Europako zenbait legeriatan, baina ez Espainian, non 1822ko Koderak arte —oso denbora gutxi iraun zuena, bestalde— ez ziren gauzatu lege-testu batean. Anton Oneca-k gogora ekartzen duen bezala, egile italiarra izan zen aipatuena, Benthanez ondoren, gure lehen Kodea egiteko izan ziren eztabaidetan. Absolutismoa itzuli zenean, Legeria zaharra ezarri zen berriro, eta honek atzeratu egingo du gure herrian Zuzenbide Penal Liberalaren irizpideak onartzea; hauek 1848an sartuko ziren, Eskola Klasikoaren dotrina-
ren eskutik.

Gaur, agertu zenetik hainbeste denbora igaro arren, sinbolo bat izaten jarraitzen du liburu honek: lehenaldia eta geroaldia markatzen du Zuzenbide Penalaren alorrean. Gaur, giza-kiarengan eta bere eskubideetan oinarritutako zigor-araudiaz dihardugunean, edo beharrianaren irizpidez zigorra emateko orduan, edo prebentzio orokorraz, edo inkisizio-auziarekin amaitu beharraz, ondorengo orrialdetan biltzen diren Verri anaiei batzarlekuko eztabaiden ondorioez dihardugu.

Salamanka, 1999ko ekaina

Ignacio Berdugo Gómez de la Torre
Zuzenbide Penaleko Katedratikoa eta
Salamankako Unibertsitateko Erretorea

Bibliografia

Jatorrizko testuaren irakurketarako gomendatzen den testua eta itzulpena egiteko ere erabili dena 1998an Jens Timmermannek *Meiner argitaletxearentzat* egin duen argitaraldi hobetua da.

Lexikoak:

SCHMID, CARL CHRISTIAN ERHARD: *Wörterbuch zum leichten Gebrauch der Kantischen Schriften*, Jena, 1798 (Darmstadt, 1980).

RATKE, HEINRICH: *Systematisches Handlexikon zu Kants «Kritik der reinen Vernunft»*, Leipzig, 1929 (Hamburg, 1972).

Iruzkinak:

VAIHINGER, HANS: *Kommentar zur «Kritik der reinen Vernunft»*, Stuttgart, 1881/1892 (Aalen, 1970).

COHEN, HERMANN: *Kommentar zu Immanuel Kants «Kritik der reinen Vernunft»*, Leipzig, 1907 (Hildesheim/New York, 1978).

ERDMANN, BENNO: *Die Idee von Kants «Kritik der reinen Vernunft»*, Berlin, 1917.

SMITH, NORMAN KEMP: *A Commentary to Kant's «Critique of Pure Reason»*, London, 1918 (1979).

Vleeschauwer, Herman Jean de: *La déduction transcendentale dans l'œuvre de Kant*, Antwerpen/Paris/Den Haag, 1934-37 (New York, 1976).

PATON, HERBERT J.: *Kant's Metaphysics of Experience. A commentary on the First Half of the «Kritik der reinen Vernunft»*, London, 1936 (1965).

HEIDEGGER, MARTIN: *Phänomenologische Interpretation von Kants «Kritik der reinen Vernunft»*, Frankfurt/M., 1977.

Ikerketa orokorrak eta ikerketarako materialak:

ALLISON, HENRY E.: *Kant's Transcendental Idealism An Interpretation and Defense*, New Haven/London, 1983.

ERDMANN, BENNO: *Kant's Kritizismus in der ersten und zweiten Auflage der «Kritik der reinen Vernunft»*, Leipzig, 1878 (Hildesheim, 1973).

COHEN, HERMANN: *Kant's Theorie der Erfahrung*, Berlin, 1871 (1918).

KOPPER, J./MALTER, R. (arg.): *Materialien zu Kant's «Kritik der reinen Vernunft»*, Frankfurt/M., 1975 (1980).

ITZULTZAILEAREN OHARRA

Cesare Beccaria milandarraren *Dei delitti e delle pene* 1764an argitaratu zen Livorno-n. Berehalako arrakasta izan zuen. Egilea zuzenketak sartuz joan zen ondorengo edizioetan. Itzulpen hau 1766an argitaratu zen 5. edizioarena da; hau izan zen, itxura guztien arabera, Beccariak orraztu zuen azkena. Orripeko oharra Franco Venturi-k aipaturiko edizioaren gainean oraintsu eginikoak dira (Arnaldo Mondadori editore. Milano, 1991). Beccariak berak ere jarri zituen ohar banaka batzuk; adierazita daude.

Bihurria da Beccariaren prosa. Bere parrafo asko oso luzeak dira, ilunak beste asko, eta gauza biak ez gutxi. Berak zioen bezala, bihotzaren filosofia espirituarena baino maiteago zuen; ur-lasterraren abiadaz eta emariz garatzen ditu bere ideiak, forma gehiegi zaindu gabe.

Berariaz izan zen iluna Beccaria. Inkisizioaren eta beste botere batzuen beldur zen. Zera idatzi zion gutun batean Morellet-i, frantsesezko bere lehen itzultzaileari: «Nire lana idazterakoan, Galileo, Machiavelo eta Giannone-ren kasuak izan ditut gogoan. Sineskeriaren kate-hotsak eta fanatismoaren garrasiak entzun ditut egiaren intziriak itotzen. Honek iluna

izatera behartu nau, eta lainopean estaltzera egiaren argia. Gizakiaren defendatzaile izan nahi dut, martiri izan gabe. Iluna izan nahiaren ohitura eta ardurak beharrezkoa ez zenean ere izatera eraman nau, agian».

Testuan arkituko dituzun iluntasunak, beraz, ez dira guztiak itzultzailearen ezinak edo ezjakinak eragindakoak.

DELITUEZ ETA ZIGORREZ

*In rebus quibuscumque difficilioribus non expectandum,
ut quis simul, et serat, et metat, sed praeparatione opus est, ut per
gradus maturescant.*

Bacon., *Serm. fidel.*, n. XLV¹

Irakurleari

Herri zahar konkistatzaile baten lege-arrasto batzuek, duela hamabi mende Konstantinoplan agintzen zuen printze batek bildu zituenak, gero longobardoen errito batzuekin nahastuak, eta interpretari pribatu eta ilunek liburukote ulertezinetan taxutuak, osatzen dute iritzien tradizioa, Europa gehienan oraindik legeak² deitzen zaiena. Eta gauza arrunta bezain negargarria da oraindik gaur egun ikustea Carpzovio-ren³ iritzi bat, Claro-k⁴ aipatzen duen antzinako ohitura bat, Farinaccio-k⁵ atsegin suminkorrez iradokitzen duen oinaze bat, direla justiziagileek gogoz obeditzen dituzten legeak, gizonen bizitzak eta ondasunak zaintzeko esku-ikaraz jokatu beharko luketenean. Lege hauek, mende barbaroenetako zaborrak, aztertuko ditugu liburu honetan, sistema kriminalari dagokionean, zorion publikoaren zuzendariei azaldu nahi diegularik hauen desegokitasuna, pazientzia gutxiko herri xehe argitu gabearengadik urrunduko den estilo batez. Egiaren bilaketa zintzo hau, liburua idazteko orduan izan dudan iritzi arruntekiko independentzia hau, egilea bizi den lekuko gobernu argitu eta gozoari esker gauzatzen da. Monarka handiek, gidari ditugun gizadiaren ongile handiek, maite dituzte filosofo apalak, kemen fanatiko-

rik gabe, azaltzen dituen egiak, indarraz edo azpikeriaz baliatzen direnen oso ezberdinak, hauek arrazoiaren kontrakoak izaten baitira. Eta gorabehera guztiak sakon aztertzen dituenak ikusiko du gaur eguneko arazoak lehendik datozela, eta iraganekeo garaiei egiten zaiela hemen satira eta errieta, eta ez mende honi eta bere legegileei.

Beraz, norbaitek bere kritikekin ohoratu nahi banindu, garbi jakin beza zein den lan honen helburua, inondik inora ez autoritate legitimoa gutxitzea, handitzea baizik, eta hau gertatuko da baldin eta gizakiongan gogoetak indarrak baino ahalmen handiagoa badu, eta samurtasuna eta gizatasuna denon begiko badira. Liburu honen kontra argitaratu diren asmo txarreko kritikak oso irizpide ilunetan daude oinarrituak, eta, une batez, irakurle argiei zuzendutako nire arrazoiketak eten beharrean naiz, behin betikoz atea itxi nahi baitiet arduragabekeriaren hutsegiteei, edo bekaizkeria gaiztoaren gezur-irainei.

Hiru dira gizona gobernatzen duten oinarri moral eta politikoen iturriak. Errebelazioa, lege naturala, eta gizarteak adostutako hitzarmenak. Ezin dira alderatu lehenengoa eta beste biak bere helburu nagusiari dagokionean; baina antza dute hirurek, denek bizitza hilkor honetako zorionera eramaten duten neurrian. Azkenengoaren harremanak kontuan hartzea ez da lehenengo bien harremanak alde batera uztea. Aitzitik, lehenengo hauek, nahiz jainkotiarrek eta aldaezinak izan, gizonen, erlijio faltsuen eta bizio eta bertuteari buruzko irizpide arbitrarioen erruz, gizonen buru ustelduetan mila modu desberdinez bihurritu direnez, beharrezkoa ikusten da hauek banan-banan aztertzea, beste gorabehera batzuekin nahastu gabe; ikusi zer den giza konbentzio soiletatik sortutakoa, eta zer behar komuntzat jotzen denetik, zeinetan oinarritua egon behar baitu dotrina oro eta sistema moral oro; eta hau lan txalogarria izango da beti, gizon temati eta sinesgogorrena ere gizartean bizitzeko oinarriak onartzera bultzatuko baitu. Beraz, hiru bertute eta bizio mota daude: erlijiosoa, morala eta

politikoa. Hiru mota hauek ez dute inoiz elkarrekin kontraesanean egon behar. Baina batetik eratortzen diren ondorio eta betebeharrak guzti-guztiak ez dira eratortzen besteetatik. Errebelazioak eskatzen duen guztia ez du eskatzen lege naturalak, eta honek eskatzen duen guztia ere ez du eskatzen gizarte-lege soilak: horregatik oso inportantea da bereiztea zer den konbentzio hauen ondorio eta zer gizonen arteko hitzarmen, gizonen arteko harremanetan lege-esparru batzuen barruan joka daitekeelako, Izaki gorenaren eskuhartze bereziaren premiarik gabe. Beraz, zalantza-izpirik gabe esan daiteke bertute politikoaren ideia aldakorra dela; bertute naturalarena beti izango litzateke gardena eta nabarmena, baldin eta gizonen inozokeria eta grinek ilunduko ez balute; bertute erlijiosoarena beti bat eta bera da, Jaungoikoak errebelatu eta berak zaintzen duelako.

Hutsegitea izango litzateke, beraz, hemen hitz egiten ari denari konbentzio sozialak eta hauen ondorioak leporatzea, eta lege naturalaren edota errebelazioaren kontrako irizpideak, ez baita hauei buruz mintzo. Hutsegitea litzateke, gerra-estatuaz gizarte-estatuaz baino lehenago hitz egiten denean, norbaitek zentzu hobbestarrian hartuko balu, aurretiko erantzukizun eta betebeharrak ez balitz bezala, konturatu gabe gerra giza natura ustelduaren eta zigorrik ezaren ondorioa dela. Hutsegitea litzateke gizarte-hitzarmenaren ondorioak aztertzen dituen idazle bati delitua egozte, ez onartzea hauek hitzarmenaren beraren aurretikoak direla.

Justizia jainkotiarra eta naturala aldaezinak eta iraunkorrak dira berez, bi objektu berberen arteko harremana beti berbera baita; baina giza justizia, politikoa alegia, ekintzen eta gizartearen egoera aldakorren harreman soila delarik, aldagarria da, ekintza hura gizarte horri beharrezkoa edo komenigarria bihur dakiokkeen heinean, eta ezingo da ondo neurtu ekintza hori giza harremanen hari nahasi eta aldakorrak ikertu gabe. Eta hain desberdinak diren irizpide hauek nahas-mahas

badaude, ezingo dugu gai publikoen gainean ondo arrazoitze-ko itxaropenik izan. Teologoen lana da zuzenaren eta ez-zuzenaren arteko mugak zehaztea, eta ekintzaren berezko ontasuna edo txartasuna erabakitzea; pentsalariari dagokio politikoki zuzena edo ez-zuzena zer den zehaztea, gizartearendako mese-dea eta kaltea neurtzea; objektu batek ezin dio besteari kalte egin, edozeinek ikusten duelako bertute politiko hutsak zenbateraino utzi behar dion leku Jainkoarengandik eratortzen den bertute aldaezinari.

Bere kritikarekin ohoratu nahi nauen inor ez dadila abiatu, beraz, niri bertutea eta erlijioa suntsitzeko asmoak suposatetik, erakutsia baitut horiek ez direla nire irizpideak, eta ni fedegabetzat edo agintarien aurkakotzat jo aurretik, ahalegin-du dadila nigan logiko txarra edo politiko kaskarina ikusten; ez dadila sutan jarri humanitatearen interesa aldarrikatzen duten nire proposamenengatik, konbentzi nazala nire irizpideak ez direla erabilgarriak, edota kalte politikoak ekar ditzaketela, ikusi eragin diezadala zein onuragarriak diren dauzkagun ohi-turak. Garbi azaldua dut jende aurrean nire erlijioaren lekukotasuna eta nire soberanoari diodan menpekotasuna, *Note ed osservazioni*⁶ izenekoari emandako erantzunean; alferriko lana litzateke idatzi horren ondorengo beste antzeko batzuei erantzutea; baina gizon jatorrei dagokien dezentziarekin idazten dutenek, oinarritzko irizpideak demostratu beharrean jartzen ez nauten gizon argiek, edozein izakera dutelarik ere, jakin beza-te niregan topatuko dutela, ez hainbeste erantzuteko zain dago-en gizona, egizale baketsua baizik.

SARRERA

Gizonek araudirik inportanteenak zenbaiten unean uneko zuhurtasunaren eta iritziaren esku uzten dituzte gehienetan, halakoen interesa onura unibertsala dakarten lege jatorren aurka jotzea izaten delarik, eta gutxi batzuei mesede egitea, eta horregatik gertatzen da boterea eta bizipoz guztia alde batean geratzen dela, eta ahultasun eta miseria guztia bestean. Horregatik, bizitzari eta askatasunari buruzko gauzarik oinarritzkoenetan mila hutsegiteren erditik igaro arte, gaitzak jasaten guztiz nekatu eta aspertu arte, gizakia ez da jarriko desegokitasun zapaltzaileak konpontzen eta egiarik nabarmenenak onartzen, hauek berehala ihes egiten baitiete adimen laburrei, ez daudelako gauzak aztertzen ohituak, aburu guztiak multzoan jasotzen baizik, eta tradizioz jokatzeko dutelako gehiago azterketaz baino.

Zabal ditzagun historiak eta ikusiko dugu legea, gizon libreen arteko hitzarmen omen dena edo izan behar lukeena, gehienetan ez dela izan banaka batzuen grinaren tresna baizik, edo patuak momentu batean sortutako beharra; ez dela giza naturaren azterketa hotzaren ondorioa, ez dela gauzatu ahaleginak puntu bakar batean bildu eta irizpide honetara heldu

delako: *Zorion handiena, kopuru handienaren artean banatua*. Zoriontsuak dira lege jatorren bidez tarteko pausoak azkartu dituzten nazio banaka horiek, gizakien gorabeheren, hautaketa mugimendu motelen eta gaitz handien zain egon gabe, bide onetik jo dutenak. Eta gizonen esker ona merezi du bere gela ilun eta mesprezatutik egia onuragarrien hazia, luzaz fruiturik gabea, erein duen filosofoak.

Ezagutzen ditugu soberanoaren eta bere menpekoen arteko benetako harremanak, eta nazioen artekoak. Merkataritza suspertu egin da inprentak zabaldu dituen egia filosofikoen argira, eta nazioen artean isileko gerra industrialak piztu da, gizon zentzudunen artean izan daitekeen gerrarik gizalegekoena eta duinena. Hauek mende honetako argiei zor zaizkien fruituak dira, baina oso gutxik aztertu eta borrokatu dute zigorren ankerkeria eta prozedura kriminalen irregulartasunaren kontra, hau legeriaren oso parte inportantea eta alde batera utzia delarik ia Europa osoan. Oso gutxik, irizpide orokorretan oinarrituta, desegin dituzte mendez mende pilatutako hutsegiteak; gutxik geldiarazi dute, egia ezagunek duten berezko indarraz baliatuz, botere gaizki bideratuaren erabilera gehiegizkoa, orain arte ankerkeria hotzaren eredu iraunkor eta baimendua izan dena. Eta ez zuen balio izan ezjakintasun krudelak eta sentiberatasun ezak sakrifikaturiko ahularen intziriak; eta ezta oinaze barbaroak, gogorkeria oparo bezain zentzugabeak, frogatu gabeko edo ustezko delituak direla bide; edota espetxeko tristura eta bidegabekeriak. Hauen guztien handitzaile da miseriaren borrarorik ankerrena: etorkizunaren zalantza. Esandako guztiak eragin beharko lieke gizonen pentsamenduak gobernatzen dituzten magistratuei.

Montesquieuuko Lehendakari hilezkorra⁷ oso modu bizkorrean igaro da gai honen gainetik. Egia zatiezinak behartu nau gizon handi honen lorratz argitsuei jarraitzera, baina nire idatzien hartzaile diren gizon gogoetazaleek jakingo dute nire urratsak eta harenak bereizten. Oso pozik sentituko nintzateke

berak bezala jasoko banitu arrazoiaren jarraitzaile ilun eta baketsuen isileko eskerrak, eta, humanitatearen interesen bultzatzaileak eskertzeko, eragingo banu anima sentiberen erantzuna izan ohi den dardara samur hori.

I

Zigorrenjatorria

Legeak gizon independente eta isolatuek gizartean elkar hartzeko erabili zituzten baldintzak dira, hauek gerra-egoera etengabea bizitzen eta ia gozaezina bihurtu zen askatasuna gordetzen nekatu zirenean. Zati bat sakrifikatu zuten, gainontzekoaz seguru eta lasai gozatzeko. Elkarren ongizatearen alde sakrifikaturiko askatasun zati hauen baturak osatzen du nazio baten burujabetza, eta soberanoa da hauen legezko gordetzaila eta administratzailea. Baina ez zen aski gordailua sortzea; defendatu beharra zegoen gizon bakoitzaren harrapaketatik, hau beti saiatzen baita gordailutik ez bakarrik berari dagokion zatia hartzen, baizik eta baita besteei dagokiena ere. Harrapaketa hauek saihesteko, gizon bakoitzaren kemen despotikoari eutsiko zioten eragile sentigarriak behar ziren, honek gizarte-legeak lehengo kaosean murgildu nahiko zituenerako. Eragile sentigarri hauek lege hausleentzat pentsatuak dauden zigorrak dira. *Eragile sentigarriak* diot, zeren esperientziak erakusten baitu jendeak ez dituela portaera-arau egonkorrak hartzen, ez dela hondamen-lege unibertsaletik aldentzen, unibertso fisiko eta moralean ikusten denez, bere zentzuak zuzenean astinduko dituzten eragileen bitartez ez baldin bada, adimena etengabe bisitatuko duten eragileak, onura unibertsalaren aurkako grina bortitzei kontrapisua jarriko diotenak; ez hitzak, ez predikuak, eta ezta egirik gorenena ere ez dira aski agerian dauden gauzek sortzen duten erakarmen grinatsuari luzaz eusteko.

II

Zigortzeko eskubidea

Behar-beharrezkoa ez den zigorra, dio Montesquieu handiak, tiranikoa⁸ da; proposizio hau honela orokorragotu daiteke: behar-beharrezkoa ez den gizonetik gizonerako aginte-ekintza oro tiranikoa da. Hona hemen zeren gainean dagoen eraikia soberanoaren delituak zigortzeko eskubidea: osasun publikoaren gordailua gizabanakoen harrapaketatik babestu beharraren gainean. Eta zenbat eta justuagoak izan legeak, zenbat sakratuagoa eta bortxaezinagoa segurtasuna, orduan eta handiagoa soberanoak bere menpekoei gordetzen dien askatasuna. Errepara diezaigun giza bihotzari eta bertan aurkituko ditugu soberanoak delituak zigortzeko duen eskubidearen benetako oinarriak; izan ere, ezin da onura iraunkorrik itxaron politika moraletik, gizonaren berezko sentimenduetan oinarrituta ez badago. Hauetatik aldentzen den edozein legek beti kontrako indar batekin egingo du topo, garaile irtengo dena azkenean, gauza jakina baita edozein indarrek, nahiz eta oso txikia izan, era jarraituan aplikatuz gero, irabazi egingo diola edozein gorpuzkiri ematen zaion indar zakarrenari ere.

Ez dago gizonik bere askatasun zatia, on publikoaren mesedetan, doan oparitu duenik: kimera hau eleberrietan bakarrik gertatzen da; ahal izango balitz, gutariko bakoitzak nahiko luke besteak lotzen dituzten hitzarmenek gu ez lotzea. Gizon bakoitzak bere burua du mundu osoko gorabeheren ardatz.

Giza generoaren ugalkortasunak —txikia berez, baina handiegia natura antzu eta jareinaren baliabideez gero eta handiagoak ziren beharrianak ase ahal izateko— batu zituen lehen basatiak. Batasun hauek beste batzuk ekarri zituzten lehenak sustengatzeko, eta horrela gerra egoera gizabanakotik nazioetara igaro zen.

Beharrianak izan zen, beraz, gizona bere askatasunaren zati bat ematera bultzatu zuena: eta gauza jakina da jende guz-

tiak ahalik eta zati txikiena jarri nahi duela gordailu publikoan, askitzat jotzen duena-edo, besteek hura defendatu nahi izan dezaten. Zati ahalik eta txikien hauen batuketak osatzen du zigortzeko eskubidea; hortik gorako guztia gehiegikeria da eta ez justizia, ekintza da, baina ez zuzenbidea. Kontu izan *zuzenbide* eta *indar* hitzak ez direla elkarren aurkakoak, baina lehena, beste ezer baino gehiago, bigarrenaren aldaera dela, aldaerarik egokiena gehiengoarentzat. Eta justiziatzat zera ulertzen dut: interes partikularrek elkartuta iraun dezaten beharrezkoa den lokarria, dakigularik hori gabe lehengo egoera antisozialera itzuliko liratekeela interesok. Lokarri hau zaindu beharra gaintitzen duten beste zigor guztiak ez dira berez zuzenak. Ez da justizia hitza benetako gauza baten ideiatzat hartu behar, indar fisiko edo existitzen den gauzatzat; gizonek elkar ulertzeko era bat besterik baita, bakoitzaren zorionean zeresan ikaragarria duen era bat. Eta hitz honekin ez naiz ari Jainkoarengandik datorren beste justizia mota hartaz, geroko bizitzako zigor eta sariekin harreman zuzena duenaz baizik.

III

Ondorioak

Irizpide hauen lehen ondorioa honakoa da: legeak baka-
rrik ezarri ahal diola zigorra delituari, eta ahalmen hau legegi-
learen baitan baino ezin daitekeela egon, honek gizarte osoa
ordezkatzan duelako gizarte-itun bat dela medio; ezein magis-
tratuk (gizartearen parte den aldetik) ezingo du, zuzen jokatzan
badu, zigorrik ezarri bere gizarteko beste kide baten kontra.
Izan ere, legearen marraren gainetik ezarritako zigorra, zigor
justua gehi beste zigor bat da; horregatik, ezingo dio magistra-
tu batek legezko zigorra handitu hiritar gaizkile bati, erantzu-
kizuna, onura publikoa, edo beste edozein aitzakia hartuta.

Bigarren ondorioa da, gizabanako bakoitza gizarteari lotuta baldin badago, giartea ere modu berean dagoela lotuta gizabanakoari, bi parteak modu naturalean behartzen dituen itun baten bidez. Tronutik txabolaraino jaisten den eta gizon handiena eta txiroena berdin lotzen dituen obligazio honek zera besterik ez digu esaten: denon mesederako dela gehien-goarentzat onak diren hitzarmenak errespetatzea. Bakar baten bortxaketa aski da anarkia zilegitzen hasteko. Soberanoak, gizartearen beraren ordezkari denak, egin dezakeen gauza bakarra, kide guztiak behartzen dituen lege orokorrak ematea da; ezin du besterik egin, ezin da epaile bihurtu norbaitek gizarte-ituna hausten duenean, orduan nazioa bi partetan banatuko litzatekeelako, bata soberanoak ordezkaturia, ituna hautsi dela baieztatzen duena, eta bestea akusatutak, ukatzen duena. Beharrezkoa da, beraz, hirugarren batek epaitzea gertatutakoren egia. Hara hor magistratu baten beharra, zeinen epaiak atzeraezinak eta gertaera partikularren baieztapen edo ezeztapen hutsak izango diren.

Hirugarren ondorioa zera da: frogatuko balitz zigorren gogortasuna, onura publikoa lortzeko eta delituak saihesteko helburuaren aurka ez joanik ere, alferrikoa dela, besterik gabe desegokia izango litzatekeela, ez bakarrik adimen argituaren ondorio diren bertute ongileek nahiago dutelako gizon zoriontsuak gobernatu, esklabo-artaldea baino, zein ankerkeria motel baina etengabe baten menpe eukitzen den, baizik eta baita justiziaren eta gizarte-itunaren beraren aurkakoa delako.

IV

Legeen interpretazioa

Laugarren ondorioa. Lege penalak interpretatzeko autoritatea ezin da egon epaile kriminalen esku, hauek legegileak ez direlako. Epaileek ez dute arbasoengandik legea jaso beren

ondorengoei obeditzea beste biderik uzten ez dien testamentu edo etxeko tradizio gisa; aitzitik, gizarte bizitik jaso dute, edota honen ordezkari den soberanoarengandik, guztien borondateen unean uneko emaitzen zaintzaile legitimoa denarengandik; jaso dute ez antzinako zin bati zor zaion obligazio gisa, baliogabea zatekeena existitzen ez diren borondateak lotzen zituelako, bidegabea zatekeena gizonak gizarte-egoeratik basatikeria-egoerara eraisten zituelako, baizik eta zinegite isileko eta zehatz baten ondorio gisa, bizirik dauden hiritarren borondate elkartuek soberanoari egin diotena, hau ezinbesteko lokarria delarik interes partikularren barne-irakinaldiak baretu eta gidatu ahal izateko. Hauxe da legeen autoritate fisikoa eta zinezkoa. Nor izango da orduan legearen interprete legitimoa? Jende guztiaren unean uneko borondateen zaintzaile den soberanoa, ala epailea, zeinen eginkizun bakarra gizon batek legez kontrako zerbait egin duen ala ez ikertzea den?

Epaileak edozein delitutan silogismo perfektu bat egin behar du: nagusia lege orokorra izango da, txikia legezkoa edo ezlegezkoa den ekintza, ondorioa libertatea edo zigorra. Epailea behartuta dagoenean, edo bi silogismo bat baino gehiago egin nahi duenean, zalantzaren atea zabaltzen da.

Legearen espiritua kontsultatu behar dela dioen axioma arrunta baino gauza arriskutsuagorik ez dago. Hau iritzien uholdeak hautsitako horma da. Egia hau demostratuta dagoela iruditzen zait, nahiz eta jakin paradoxa bat irudituko zaiela adimen laburrekoei, honelakoek gehiago erreparatzen baitiote momentuko edozein desegokitasun txikiri, nazioan erroturiko irizpide faltsu batetik sortzen diren ondorio negargarriei –baina urrunekoei– baino. Gure ezagupenak eta gure ideia guztiak elkarri lotuta daude; zenbat eta konplikatuagoak izan, orduan eta gehiago dira beraietatik eta beraietara heltzen eta irteten diren bideak. Gizon bakoitzak bere ikuspuntua du, gizon bakoitzak garai bakoitzean desberdina du. Legearen espiritua, beraz, epaile baten logika on edo txarraren ondorioa

izango litzateke, liseriketa on edo txar batena; edota eragina izango lukete honen grinen indarrak, sufritzailearen ahulda-deak, epailearen eta irainduaren arteko harremanak, edota gizonaren animo haizetsuaren eragingarri eta gauzen itxura-aldatzaile diren indartxo guztiek. Horregatik ikusten dugu hainbat aldiz aldatzen dela hiritar baten zoria auzitegi auzitegi dabilenean, eta txiroen bizitzak argudiaketa faltsuen eta epaile baten momentuko umorearen biktima direla, honek interpretazio egoki eta zuzentzat hartzen dituen buruan jira-biraka dabilzkion irizpide nahasiak. Horregatik ikusten dugu auzitegi berdinak modu ezberdinean zigortzen dituela delitu berdinak garai ezberdinean, ez zaiolako kasu egiten legearen ahots aldagaitz eta tinkoari, interpretazioen gorabehera errariei baizik.

Ezin dira alderatu zigor-legearen letra zorrotz eramate-tik sor daitekeen desegokitasuna eta interpretazioaren desegokitasunetik sortzen dena. Desegokitasuna sortzen denean, legearen hitzak zuzendu beharko dira, azkar eta erraz egin daitekeen gauza, bestalde, zehaztasun faltaren sortzaile izan diren hitzak zuzenduko dira, eta horrela moztuko da argudiaketan jarduteko baimen kaltegarria, eztabaida antzu askoren iturria. Hitzez hitz bete beharreko lege-bilduma zehatza dagoenean, epaileak duen lan bakarra hiritarren ekintzak aztertzea da, eta lege idatzien arabera epaitzea. Zein den gauza zuzena eta zein okerraren zehazten duen araudia, hiritar ezjakina zein filosofoa gidatu behar duena, kontu jakina denean eta ez eztabaidagaia, orduan hiritarra ez dago jende askoren tirania txikien menpe; hauek, zenbat eta txikiagoa izan sufritzen eta sufriarazten duenaren arteko distantzia, orduan eta ankerragoak izaten dira, eta kaltegarriagoak bakar baten tirania baino, askoren despotismoa ezin daitekeelako zuzendu bakar baten despotismoarekin baizik, eta despota baten krudelkeria ez dagoelako indarraren tamainan, oztopoenean baizik. Horrela lortzen dute hiritarrek bere buruarekiko konfiantza, justua dena gizonak

gizartean bizitzeko duen helburua delako, onuragarria dena edozein bidegabekeriaren kalteak zehatz kalkulatzeko aukera ematen diolako. Baita egia da gizonak bere independentzia-espiritua garatuko duela, baina ez legeak eta magistratu nagusiak errefusatzeko, baizik eta, bertutearen izen sakratua ahotan hartzen dutelarik, beren iritzi interesatu eta apetatsuen mende daudenei aurre egiteko. Irizpide hauek ez dituzte gogoko izango goikoengandik hartutako tirania-zartadak behekoei emateko eskubidea hartzen dutenek. Beldur handia izan beharko nuke, baldin eta tirania espiritua irakurketa espirituarekin bateragarria balitz.

V

Legeen iluntasuna

Legeen interpretazioa kaltegarria bada, iluntasuna ere bai, zalantzarik gabe, honek interpretaziora eramaten baitu nahitaez, eta are kaltegarriagoa izango da herriari arrotza zaion hizkuntza batean idatzita badaude legeak; legea gutxi batzuen esku gelditzen da, herriak ezin jakin dezakeelarik bere kabuz zein litzatekeen bere askatasun aukera, edota bere kideena, hizkuntza batek liburu solemne eta publiko bat ia pribatu eta etxeko bihurtzen duenean. Zer nolako iritzia izan behar dugu gizonen buruz, dakigunean hau dela ohitura zaharra Europa ikasi eta argitu honetako parte handi batean! Zenbat eta jende gehiagok ulertu eta eskuen artean izan legeen kode sakratua, orduan eta gutxiago gertatuko dira delituak, gauza jakina baita ezjakintasunak eta zigorren iluntasunak hauspotu egiten dituztela grinak.

Azkenengo gogoeta hauen ondorioetako bat zera da: gizarte batek ez duela inoiz gobernu-forma zehatz bat hartuko gauzak idatzita ez badira jartzen, eta horrela indarra guztiaren eta ez parteen emaitza izango da, eta legeak, —aldaeziak, denen oniritziarekin ez bada— ez dira hondatuko interes pri-

batuen eraginez. Esperientziak eta arrazoiak garbi erakutsi digute giza tradizioen itxura eta mamia alferrik galduz doazela iturritik urrundu ahala. Gizarte-itunaren irudi egonkorrik ez baldin badago, legeek nola egingo diote aurre denboraren eta grinaren indar saihestezinari?

Honetan ikusten dugu zein baliagarria den inprenta, jendea lege santuen jagole egiten duena, eta ez gutxi batzuk, eta ikusten dugu tresna honek nola uxatu duen azpijoko eta azti-keriazko espiritu iluna; hau desagertu egin da argien eta zientzia itxura batera mespretxatuen eraginez, zientziei mesprezioa baino gehiago beldurra dietelarik iluntasunaren jarraitzaileek. Hau dela eta, ikusten dugu delituen ankerkeria apaldu egin dela European, gure arbaso zaharrak dardaraz egoten hauen erruz, eta aldi berean esklabo eta tirano bihurtzen ziren. Duela bi edo hiru mendeko historia eta gaurkoa ezagutzen dituenak ikus dezake nola luxuaren eta nagitasunaren baitatik sortu ziren bertuterik gozoenak: gizatasuna, onegintza, giza akatsen tolerantzia. Ikus dezagun orain zeintzuk izan ziren antzinako xalotasun eta fede on gaizki deiturikoen emaitzak: gizadi negartsua sineskeria gupidagabearen mende, zekenkeria, gutxi batzuen handinahia erregeen urre-kutzak eta tronuak giza odolez tindatzen, isileko traizioak, ageriko txikizioak, noble oro herri xehearen tirano, egia ebangelikoaren ministroak, otzantasunaren Jainkoa egunero ikutzen zutenak, eskuak odolez zikinduta. Hauek ez dira zenbaitek usteldua dagoela dioten mende argitu honen emaitzak.

VI

Delituen eta zigorren arteko oreka

Guztien interesa ez da deliturik ez izatea bakarrik; hauek zenbat eta gizartearentzat kaltegarriagoak izan,

orduan eta gutxiago gertatzea ere bai. Horregatik, delituak zenbat eta on publikoaren aurkakoagoak izan, eta estimuluak zenbat eta delitu-eragingarriagoak izan, orduan eta handiagoak izan behar dute gizakia delituetatik aldentzen duten oztopoek. Horregatik, orekan egon behar dute delituek eta zigorrek.

Ezin dira ezbehar guztiak aurreikusi gizakiaren grinen aurkako gatazka unibertsean. Biztanleria hazi ahala eta interes partikularrak gurutzatu ahala gehitzen dira hauek, ezin baitira geometrikoki zuzendu onura publikorantz. Zehaztasun matematikoaren ordeztu probabilitate-kalkulua sartu behar da aritmetika politikoan. Historiari begiratu bat botatzen badiogu, ikusiko dugu bidegabekeriak nola ugaritzen diren inperioaren mugak hazi ahala, eta nola neurri berean gutxitzen den sentimendu nazionala, eta nola delituen erakarmena handitzen den bakoitzaren bidegabekeria-zaletasuna handitzen den neurrian: horregatik izaten da gero eta handiagoa zigorrak gogortzeko premia.

Grabitate-indarraren antzekoa da gure ongizateari tiraka ari dena, eta honi ezin zaio eutsi oztopoak jarri ezean. Indar honen ondorio da giza ekintzen multzo nahasia: ekintza hauek elkarrekin talka egiten badute, eta arazoekin, zigorrekin, alegia, aurkitzen badira (nik *oztopo politikoak* deitzen diet), ondorio txarra eragotziko da, kausa eragilea desegin gabe, hau berezkoa eta alboraezina baitu gizonak; legegileak arkitekto trebeak bezala jokatzen du, honen lanbidea grabitatearen indar hondatzaileari aurre egin eta eraikuntzaren sendotasuna bermatzea baita.

Gizakien elkartasun-beharra kontuan hartuta, interes partikularren talkatik ezinbestean sortzen diren hitzarmenak kontuan hartuta, bidegabekeria-eskala bat sortzen da, eta horren lehen mailan daude gizartea berehala desegiten dutenak, eta azkenengoan gizarte horretako kide pribatuei egin-

dako injustizia txiki-txikiak. Bi muga hauen artean daude onura publikoaren kontrako ekintza guztiak, delitu esaten zaienak, eta denak mailaka joaten dira, handienetik txikienera apalduz. Geometria egokitu ahal izango balitz giza ekin-tzen aukera kontaezin eta ilunetara, gogorrenetik ahulenera jaisten den zigor-eskailera bat egongo litzateke; baina aski izango zaio legegile jakintsuari punturik garrantzitsuenak seinalatzea, ordena aldatu gabe, eta lehen mailako delituei azkenengoaren zigorrak ezarri gabe. Delituen eta zigorren eskala unibertsal bat balego, tirania-eta askatasun-mailak neurtzeko modu frogagarri eta komun bat izango genuke, nazio desberdinen gizatasun eta gaiztotasun-ondarea nolakoa den neurtuko lukeena.

Aipaturiko bi mugen artean ez dagoen edozein ekin-tzari ezin zaio *delitu* izena eman edo delitutzat zigortu, izen hori emateko interesa dutenen aldetik ez bada. Muga horiek zehaztu gabe egoteak legeriarekin kontraesanean dagoen moralak sortu du nazioetan; gaur eguneko legeriak elkarren guztiz ezberdinak dira; gizonik jatorrena zigorrik ankerre-naren arriskupean jartzen duen lege mordoa dago, eta, oste-ra, *bizio* eta *bertute* izenak ilun eta aldakor bihurtu dira; norberaren existentziari buruzko zalantza sortu da, gorputz politikoetan lozorro kaltegarria eragin duena. Nazioetako kodeak eta historia-liburuak begi filosofikoz irakurtzen dituen edonork ikusiko du *bizio* eta *bertute*, *hiritar jator* edo *errudun* izenak nola aldatu diren behin eta berriro mendeetako iraultzekin; eta ez herrien gorabeheretan gertatu ohi diren aldaketen eraginez, eta, beraz, interes komunaren mesedetan, baizik eta legegile desberdinen grina eta bata bestearen ondorengo hutsegiteengatik. Sarri ikusiko du mende batean grinatzat hartzen direnak hurrengo mendeen oinarri moralak direla; grina indartsuak, fanatismoaren eta berotasunaren seme-alabak, moteldu eta ihartu egiten dira, nolabait esateko, eta, gertakari fisiko eta moralen orekatzai-

le den denboraren eraginez, poliki-poliki mendearen zuhurtzia bihurtzen dira, eta tresna erabilgarri indartsuaren eta zuhurraren eskuetan. Horrela jaioko dira bertute eta ohore nozio txit ilunak, eta ilunak dira aldatuz doazelako denboraren jirabirekin, eta gertatu ohi da izenak irauten duela izanak baino gehiago, aldatu egiten direla ibai eta mendiekin batera, zeintzuk izaten baitira sarri askotan ez bakarrik geografia fisikoaren mugak, baizik eta baita geografia moralarenak ere.

Atsegina eta mina baldin badira izaki sentikorren motorrak, sariak eta zigorrak jarri baldin bazituen legegile ikusteziak gizona jokaera bikainenetara erakartzeko, hauek oker banatzen badira, banaketa txar honetatik sortuko da kontraesan hura, zenbat eta ohikoagoa orduan eta oharkabeagoan pasatzen dena: zigorrek zigortzen dituztela zigorrok sortu dituzten delituak. Zigor berdina jartzen bazaie gizartea modu ezberdinean samintzen duten bi delituri, gizakiak ez du handiena egiteko eragozpen berezirik aurkituko, harekin onura handiagoa lortzen badu.

VII

Hutsegiteak zigorrak neurtzeko orduan

Orain arteko gogoetek zera esateko eskubidea ematen didate: delituen benetako neurria eta bakarra, nazioari egindako kaltea dela; horregatik, oker ibili dira delituen benetako neurria egilearen asmoa dela diotenak. Asmoa, gauzak momentuan egiten digun zirrarak eta gure buruak lehendik harekiko duen jarrerak erabakitzen dute: jarrerak aldatuz joaten dira gizon guztietan eta bakoitzean, ideien, grinen eta gorabeheren abiada ikaragarriaz. Honengatik, beharrezkoa izango litzateke ez bakarrik hiritar bakoitzarentzat legeria bana sortzea, baita lege berri bana ere delitu bakoitzarentzat. Batzuetan,

gizonak asmo onenarekin kalte handiena egiten dio gizarteari; eta beste batzuetan asmo txarrenarekin onik handiena.

Beste batzuek gehiago neurtzen dute delitua samindutako pertsonaren duintasunaren arabera, onura publikoarentzat duen inportantziaren arabera baino. Delituen benetako neurria hau izango balitz, izakien Izakiari egindako irreberentzia bat monarka baten erailketa baino gogorrago zigortu beharko litzateke; izan ere, izaeraren handitasunak modu infinitoan orekatuko luke irainaren desberdintasuna.

Azkenik, zenbaitek pentsatzen du bekatuaren larritasunak zerikusia duela delituak neurtzerakoan. Iritzi honen faltsutasunari berehala igarriko dio gizonen arteko harremanak eta gizonek Jainkoarekin dituztenak hotzean aztertzen ohituta dagoenak. Lehenengoak berdintasunezko harremanak dira. Beharrian hutsak eraginda, pasioei uko egitetik eta interesen arteko talkatik sortu da *onura komuna*-ren ideia, giza justiziaren oinarria. Bigarrenak, Izaki perfektu eta sortzaile batenganako menpetasun-harremanak dira, aldi berean epaile eta legegile izateko eskubidea bere buruari bakarrik eman dion Izakia, hori bera baino ezin izan daitekeelako arazorik gabe. Zigor betierekoak daude izendatuak haren ahalguztiduntasuna obeditzen ez duenarentzat. Nor izango da Jainkoaren justizia ordezkatzera ausartuko den zomorroa, nor izango da bere buruaz aski duen Izakia mendekatu nahiko duena, gauzengandik ez atsegin eta ez samin zirrarak jaso ezin duena, izaki guztien artean erreakzioz jokatzeko ez duen izaki bakarra? Bekatuaren larritasuna bihotzaren gaiztakeria igarriezinaren araberakoa da. Izaki mugatuek ezin dute hau jakin errebelaziorik gabe. Nola egingo dute, orduan, honetatik arau delituak zigortzeko. Orduan gerta liteke gizonak zigortzea Jainkoak barkatzen duenean, eta barkatzea Jainkoak zigortzen duenean. Gizonak kontraesanean egon badaitezke Jainkoarekin hura iraintzen dutenean, berdin-berdin egon daitezke zigorra ipintzerakoan.

VIII

Delituen sailkapena

Ikusi dugu zein den delituen benetako neurria, *gizartea - ri egiten zaion kaltea*, alegia. Hau hain da egia garbia, ezen ez baita ez kuadranterik eta ez teleskopiorik behar hau aurkitzeko, edozein adimen kaskarren begibistan baitago, baina, hala ere, gorabehera harrigarriak elkartu direlako, oso jende gutxik daki hau zehaztasunez, herri eta mende bakoitzeko pentsalari banaka batzuek bakarrik. Baina irizpide asiarrek eta aginpidez eta indarrez jantzitako grinek ezabatu egin dituzte (erakarpen indar sumaezinen erruz, gehienetan, oroitzapen bortitzek gizonen sineskortasun beldurtian duten eraginagatik, gutxi batzue-tan) irizpide tolesgabe hauek, ziur asko antzinako gizarte jaio-berrien lehen filosofian argi zeudenak; baina badirudi mende honetako argiek berriro bide onean jarri gaituztela, eta gainera azterketa geometrikoek, mila esperientzia txarrek eta eragoz-penek eurek eman ohi duten sendotasunarekin. Orain, lan metodoak eramango gintuzke dauden delitu mota guztiak aztertzeraz eta bereizteraz, eta zigortzeko bideak bilatzera, bal-din eta mende eta leku desberdinetako gorabeheren eraginez haiek hartu duten izaera aldakorrek ez bagintu behartuko xehe-tasun luze eta aspergarriak ematera. Bakarrik, irizpide oroko-rrenak eta hutsegite larrienak aipatuko ditut, libertate zaletasun gaizki ulertuak erakarririk anarkia ezarri nahi dutenak desen-gainatu nahi ditudalako, eta baita gizonak konbentuko egune-rokotasunera mugatu nahi dituztenak ere. Delitu batzuek bat-batean desagiten dute gizartea edota honen ordezkariak; beste batzuek hiritar baten bizitzako segurtasun pribatua iraintzen dute, bere ondasun edo ohorean; beste batzuek onura publiko-aren alde bakoitza egitera edo ez egitera behartuta dagoenaren kontrako ekintzak dira. Lehenei — deliturik handienak, kalte-garrienak direlako,— lesa maiestatekoak esaten zaie. Ezjakintasunak eta tiraniak bakarrik nahas ditzakete hitz eta

ideiarik argienak eta, beraz, izen hau eman, eta ondorioz zigorrik astunena, izaera ezberdineko delituei, eta gizonak bihurtu, beste askotan legez, hitz baten biktima. Delitu orok, baita pribatuak ere, iraindu egiten du gizartea, baina delitu guztiek ez dute helburu gizartearen bat-bateko suntsipena. Ekintza moralek, fisikoek bezala, bere jokaera-esparru mugatua dute, eta, naturako beste mugimendu guztiek bezala, modu desberdinean dute inguruan denbora eta espazioa. Eta esklabotzaren filosofiatik egin ohi den interpretazio sofistak bakarrik nahas dezake egia eternoak desberdina dela garbi utzitakoa.

Honen ondoren datoz gizabanako bakoitzaren segurtasunaren aurkako delituak. Elkarte legitimo guztien helburu nagusia hau izanik, hiritar orok duen segurtasun eskubidea bortxatzen duena ezin da utzi legeak izendatzen duen zigor handienetako bat jaso gabe.

Honako pentsamendu hau, hots, edozein hiritarrek legeen aurka ez dagoen edozer egin dezakeela, ekintzak berak ekarri ahal dizkion arazoei, beste ezeri beldurrik izan gabe, hau da herriak sinetsi beharko lukeen dogma politikoa, eta magistratu gorenak aldarrikatu beharko luketena, legeak ustelkeriatik babestuz; dogma sakratua da hau, bera gabe ezinezkoa da gizarte legitimoa eraikitzea. Gizakiak ekintza unibertsalen alorrean egindako sakrifizioen ordainez ematen den sari justua da; izaki sentikor ororentzat berdina, eta bakoitzaren indarrek soilik mugatzen dutena. Honek sortzen ditu espiritu libre adoretuak eta buru argiak, eta gizonak bertutetsu bihurtzen; eta beldurrari aurre egiten dion bertute horietakoa da, eta ez zuhurtzia maxkala, bizitza ganorabako eta zalantzakorra eramateko gauza denak bakarrik jasan dezakeena. Hiritarren segurtasunaren eta askatasunaren aurkako delituak dira, beraz, delituri handienetakoak, eta sail honetan sartzen dira ez bakarrik erailketak eta herri xeheak egindako lapurretak, baita handikienak eta magistratuenak ere, gauza jakina baita hauen delituen eragina zabalagoa eta bortitzagoa dela, justiziaren eta

eginbeharraren ideia desegiten duelako hiritarren artean, eta indartsuenaren legea ezartzen, hau neurri berean delarik arriskutsua erabiltzen duenarentzat zein jasaten duenarentzat.

IX

Ohoreaz

Kontraesan nabarmena dago lege zibilen (hauek hiritar bakoitzaren gorputzaren eta ondasunen zaindari dira, beste ezer baino gehiago) eta *ohorea* deiturikoari buruzko legeen artean, iritziaren alorrekoak hauek. *Ohore* hitz hau argudiaketa luze eta distiratsuei bide eman dien horietakoa da, nahiz eta esanahi zehatz eta iraunkorrik ez izan. Hain da kaxkarra giza adimenaren izaera, non zeruko astroen jirabuelta espazialak, hain urrunekoak eta inportantzia gutxikoak eurak, ezagunagoak baitira gure ondoko irizpide moral garrantzitsuak baino. Hauek ilunak eta aldakorak izan ohi dira, beti haize grintsuen menpe, edo ezjakintasun gidatuaren iritzira. Baina ustezko paradoxa desagertu egingo da jabetzen garenean, begietatik hurbilegi ditugun gauzak ongi ikusten ez diren bezala, ideia moralen hurbiltasun handiegiak eragiten duela bere osagarri diren ideia soil eta ugarien nahasketa, eta ez ongi ikustea beren arteko banaketa-marrak, ezinbestekoak giza zentzunaren gertakariak neurtu nahi dituen espiritu geometrikoarentzat. Eta itzali egingo da gizakiaren gauzetan ikertzaile hotza denaren harridura, honek antzematen duenean beharbada ez dagoela hainbeste tresna moral eta lokarriren beharrik, gizonak zoriontsu eta burujabe egiteko.

Ohore hau, beraz, ideia konplexu horietakoa da, ez bakarrik ideia sinpleak elkartuz osatzen dena, baizik eta baita ideia konplexuak elkartuz ere; ideioek hain modu desberdinean etortzen dira gure adimenera, non batzuetan onartu eta besteetan

errefusatu egiten baitira beren osagarri diren hainbat elementu; ideia komun banaka batzuk gordetzen dituzte, kopuru algebrako konplexu askok zatitzaile komun berdina onartzen duten bezala. Gizonek ohoreari buruz dituzten ideia ugariak zatitzaile komun hau aurkitzeko, beharrezkoa da gizartearen sorrerari begiratu bat botatzea. Lehenengo legeak eta lehenengo epaileak gizon bakoitzaren despotismo fisikoak eragindako arazoei aurre egin beharragatik sortu ziren. Hau izan zen gizartearen ideia erakundetzailea, eta lehen helburu hau beti mantendu da, zinez edo itxurakeriaz, kode guztien buruan, baita suntsitzaileetan ere; baina gizonen arteko hurbiltasunak eta beren jakinduriaren garapenak elkarrekiko jokabide eta beharrian zerrenda luzea sortu du, beti legearen aurreikuspenak baino handiagoa eta bakoitzaren momentuko boterea baino txikiagoa. Garai honetan hasi zen iritziaren despotismoa, hau baitzen besteengandik onurak lortzeko eta legeak aurreikusten ez zituzten kalteei ihes egiteko bide bakarra. Eta iritzia da jakintsua zein ezjakina jipoitzen duena, bertute-itxura jarri duena bertutearen beraren gainetik, gaiztoa ere misiolari bihurtzen duena, bakoitzaren interesari begiratzen baitio. Horregatik, besteen oniritzia izatea komenigarri ez ezik beharrezko bihurtu zen amildegian ez erortzeko. Horregatik, baldin eta pertsona goseak bereganatzen badu erabilgarri zaiolako, baldin handiputzak eskale gisa eskatzen badu bere merituen testigutzat, ohoreko gizonak ere beharrezkotzat joko du oniritzi hori, eta eskatu egingo du. *Ohorea* baldintza gisa jartzen diote gizon askok bere bizimoduari. Gizartea sortu ondoren jaio zen eta ezin izan zen guztien gordailuan ezarri; aitzitik, egoera naturalera egindako itzulera azkarra da, pertsonaren beraren bahiketara bat-batekoa, hiritarra behar bezala babesten ez duten legeak eragin dutena, kasu honetan.

Horregatik, askatasun politiko mugagabea eta menpekotasun mugagabea desagertu egiten dira ohorearen ideiak, edo guztiz nahasten dira beste batzuekin; lehenean, legeen des-

potismoak alferrikakoa egiten duelako besteen oniritziaren bila ibiltzea; bigarrenean, gizonen despotismoak, existentzia zibila ezabatzen duelarik, ahuldu egiten duelako, behin-behineko izaera emanez. Ohorea, beraz, despotismo mugatuko monarkien oinarritzko irizpideetarikoa da, eta horietan, estatu despotikoetan iraultza bezala, egoera naturalera itzultzea, eta antzinako berdintasun-ereduaren oroimena.

X

Dueloez

Besteen oniritzia behar izatetik sortu ziren duelo pribatuak, bere jatorria legeen anarkian dutenak. Uste da antzinatean ez zela duelorik, agian garai hartakoak ez zirelako era susmagarrian armaturik ibiltzen elizetan, teatroetan edo lagun artean. Dueloa gladiadore esklabo doilortuek herriari ematen zioten ikuskizun arrunta zelako, agian, eta gizon libreak gladiadoretzat hartuko zituzten beldur zirelako, borroka pribatuetan hasiz gero. Alferrikoak izan dira dueloan aritzen direnen aurkako heriotza ediktuak; ez dute ohitura hau moztea lortu. Ohitura hau honetan oinarritua dago: zenbait gizonek heriotzari baino beldur handiagoa diote besteen oniritzia galtzeari, ohoreko gizonak bere burua izaki guztiz bakartua bihurtzeko arriskuan ikusten duelako, egoera jasanezina gizon lagunartezale batentzat; edota, bestela, irainen eta ospe txarraren jomuga izango litzatekeelako, zigorra baino txarragoa dena bere izaera iraunkorragatik. Zergatik jende xeheak ez du duelorik egiten handikiak bezala? Ez arma faltagatik bakarrik; baita besteen oniritzi beharra herri xeherengan txikiagoa delako handiengan baino, hauek, gorago egonik, elkarki jelosiaz eta susmoz begiratzen baitiote.

Beste batzuek idatzi dutena errepikatzea ez da alferrikoa izango: delitu hau saihesteko modurik onena erasotzailea

zigortzea da, dueloari bide eman diona, alegia; errugabe deklaratu behar da kulparik izan gabe defendatu beharrean aurkitu dena; honi momentuko legeek ez diote hau ziurtatu, iritzizko legeek, alegia, eta legeei bakarrik diela beldur eta ez gizonei erakutsi beharrean aurkitu da bere herritarren aurrean.

XI

Lasaitasun publikoaz

Azkenik, hirugarren motako delituen artean aipatzekoak dira lasaitasun publikoa edo hiritarren patxada aztoratzen dutenak; adibidez, hiritarren salerosketa-leku edo ibiltoki diren bide publikoetan gertatzen diren istiluak eta iskanbilak, edo hitzaldi fanatikoak, jende-multzo jakingosearen grina errazak pizten dituztenak; hauek, entzule ugaritasunak eraginda, indarra hartzen dute, beren berotasun ilun eta misteriotsuagatik gehiago, argudiaketa argi eta lasaiagatik baino, azken honek ez baitu sekula eraginik izan ohi jende multzo handiengan.

Diru publikoaz argitutako gauak, hiriko auzoetan barreiatutako udaltzainak, erlijioaren sermoi tolesgabe eta moralak aginte publikoak zaindutako elizetan eginak, isiltasunaren eta lasaitasun sakratuaren eremu diren leku horietan, interes pribatu eta publikoak indartzeko egindako hitzaldiak nazio-batzarretan, legebiltzarretan, edo soberanoaren maiestatea aurkitzen den lekuetan, hauek guztiak dira bitartekorik onenak herriaren grina arriskutsuen suspertzea saihesteko. Hauek osatzen dute magistratuaren begiraltzaren adar nagusia, frantsesek *police* esaten diotena; baina magistratu honek lege zentzugabeekin jokatuko balu, eta ez hiritar guztien esku dagoen kode batean ezarritakoekin, atea zabaltzen zaio askatasun politikoaren mugak inguratu ohi dituen tiraniari. Nik ez diot salbuespen bakar bat ere aurkitzen axioma orokor honi: hiritar orok jakin behar du noiz den errudun eta noiz errugabe.

Zentsoreak eta magistratu arbitrarioak beharrezkoak badira gobernuaren batean, hori haren konstituzioaren ahultasunagatik izango da, eta ez gobernu ondo antolatu baten izaeragatik. Norberaren atarramentua ez jakiteak biktima gehiago eskaini dio tirania ezkutuari, ageriko ankerkeria solemneak baino. Zalantza horrek animoak matxinatu egiten ditu, doilortu baino gehiago. Benetako tiranoa beti jendearen iritzia menderatzen hasten da; eta iritzia adorea oztopatzen du, jakinik adorea egiaren argitan egin dezakeela bakarrik distira, edo grinaren sutan, edo arriskuaren ezjakinean.

Baina zeintzuk izango dira delitu hauei dagozkien zigorrak? Heriotza-zigorra *egokia eta beharrezkoa* al da gizartearen segurtasunerako eta ordena onerako? Tortura eta oinazeak *justuak* al dira, eta lortzen al dute legeek bilatutako helburua? Zein da delituak prebenitzeko modurik onena? Egokiak al dira zigor berberak garai guztietan? Zer eragin dute ohituretan? Merezi du arazo hauek zehaztasun geometrikoz aztertzea, sofismen lainoei, hizjario xarmatzaileei, eta zalantza lotsakorrei zirrikiturik utzi gabe. Nire meritu bakarra balitz ere Italian lehena izatea beste nazio batzuetan idaztera ausartu direna eta praktikatzen hasi direna garbi azaltzen, ni pozik sentituko nintzateke; baina, gizonen eskubideak eta egia gaindiezinak babestuz, lagunduko banio tiraniaren eta hura bezain kaltegarria den ezjakintasunaren biktima dohakaberen bati heriotzaren ikara eta larritasunetatik ihes egiten, errugabe bakar baten eskerron eta poz-malkoak nahikoa izango lirатеke ni gizonen mespreziotik kontsolatzeko.

XII

Zigorrrenhelburua

Orain arte hemen azaldutako egiak aztertzea aski da garbi ikusteko zigorrren helburua ez dela izaki sentikor bat

jipoitzea eta samintzea, eta ezta jada egindako delitu bat desegitea ere. Erabil al dezake grinak eraginda jokatu ezin duen gorputz politiko batek, bera baita bakoitzaren grin baretzaile lasaia, erabil al dezake, diot, haserrearen, fanatismoaren eta tirano makalen fruitu den alferriko ankerkeria hau? Dohakabearen garrasiek jada egindako ekintzak eskatzen al dizkiote, menturaz, itzultzen ez den denborari? Helburua, beraz, honakoa da, besterik gabe: errudunari beste gaitz berri batzuk egiten ez uztea, eta beste hiritar batzuk uxatzea gaitz berdinak egitetik. Beraz, oreka gordez, gizonen gogoan eragin handiena eta iraunkorrena duten zigorrak eta betetzeko erak aukeratu beharko dira, eta errudunaren gorputzari minik txiki-ena ematen diotenak.

XIII

Testigantzez

Legeria on batean oso puntu garrantzitsua da testigantzak sinesgarriak izatea eta delituen frogak garbi zehaztea. Edozein gizon zentzudun, hots, bere ideiak taxuz lotzen dakiena eta gainontzeko gizonen sentikera berdintsua duena, izan daiteke testigu. Haren sinesgarritasunaren benetako neurria, egia esateko edo ez esateko duen interesa da. Horregatik, arinkeria da emakumeei ahul fama egozte, umeria lehendik ere heriotza zibilaren jabe diren kondenatuei benetako heriotzaren ondorioak ezartzea, eta zentzugabeak famarik gabeei fama txarra leporatzea, gezurra esateko inolako interesik ez dutenean. Sinesgarritasuna, beraz, gutxitu egin behar da pertsona baten eta epaituaren arteko gorroto, adiskidetasun, edo harreman estuen arabera. Beharrezkoa da lekukotasun bat baino gehiago izatea; izan ere, batek baietz esaten duen bitartean besteak ukatu egiten badu, ez

dago gauza ziurrik, eta, horregatik, bermatu egin behar da bakoitzaren ustezko errugabetasuna. Zenbat eta handiagoa delituaren basatikeria⁹ eta gorabeheren sinesgaiztasuna, orduan eta txikiagoa testiguen sinesgarritasuna; horrelakoak dira, esate baterako, magia eta alferriko ankerkeria erakusten duten ekintzak. Honelakoetan, litekeenagoa da lehen akusazioan jende askok gezurra esatea, errazagoa baita ezjakintasunak eragindako lilura edo gorroto erasotzailea gizon askorengan elkartzea, norbait erabiltzen ari delako Jainkoak inori eman gabeko edo sortutako izaki orori kendutako gaitasun bat. Bigarrenean ere gauza bera, gizona ez delako berez ankerra, bere interesen neurrian ez bada, duen gorrotoaren eta beldurraren neurrian. Ez da alferriko sentimendurik gizonarengan. Hauek bere zentzumenetan zirrarek eragindako emaitzen arabera izaten dira beti. Modu berean, inoiz testigutza baten sinesgarritasuna gutxitu egingo da, agian, berau elkarte pribatu bateko kide batena denean, elkartearen ohiturak eta jokalegeak gutxi ezagunak edo ageriko besteen ezberdinak direnean. Horrelako gizaki batek ez ditu bere grinak bakarrik izaten, besteenak ere bai.

Azkenik, sinesgarritasuna hutsaren hurrengoa da hitzak direnean delitugai; izan ere, tonuak, keinuak, gizonek bere hitzei eta ideiei atzetik eta aurretik eransten dieten guztiak, aldatu eta desitxuratu egiten du gizon batek esan duena, hainbestearino non ia ezinezkoa izaten baita gauzak esan ziren bezala berresatea. Ekintza bortitz edo ezohikoek, benetako delituak direnak, beren aztarnak hainbat gorabehera eta ondoriotan uzten dituzten bezala, hitzak ez dira entzuleen oroimean baino geratzen, eta gauza jakina da gehienetan hau ez dela batere zintzoa eta fidagarria. Horregatik da askoz ere errazagoa gezurra esatea gizon baten hitzei buruz, ekintzei buruz baino; izan ere, azken hauetan, zenbat eta frogatzeko gauza gehiago ekarri, orduan eta bitarteko gehiago ematen zaio epaituari bere burua zuritzeko.

XIV

Aztarnak eta epaitzeko erak

Bada teorema orokor bat oso egokia gertaera baten benetakotasuna kalkulatzeko, delitu baten aztarnen indarra, adibidez. Gertaera baten frogak bata bestearen menpe badaude, aztarnak beren artean baino ez badira frogatzen, alegia, zenbat eta froga gehiago ekarri, orduan eta txikiagoa da gertaeraren probabilitatea, froga-aurrekariak falta diren kasuetan, ondorenkariak ere faltako direlako. Gertaera bateko froga guztiak froga bakar baten menpe badaude, froga-kopuruak ez du ez gehitzen eta ez gutxitzen gertaeraren probabilitatea, guztien balioa bakar haren balioaren araberakoa delako. Frogak euren artean independenteak direnean, aztarnak bere baitatik at frogatzen direnean, alegia, zenbat eta froga gehiago ekarri, orduan eta handiagoa da gertaeraren probabilitatea, froga bat faltsua izateak ez dakarrelako besteak ere izatea. Zigorra merezitzeko benetakoak izan behar duten delituen probabilitateaz ari naiz ni. Baina ziurtasun moralala, estu hartuta, probabilitate bat besterik ez dela pentsatzen duenari, desegin egingo zaio paradoxa; hau ziurtasuna deitzen zaion probabilitate moralala baita, zentzuneko pertsona orok onartzen duelako jardun beharretik sortutako ohitura dela, eta espekulazio guztien aurretikoa; norbait errudun jotzeko behar den ziurtasuna, edozein gizonek bizitzako jokabide inportanteenetan behar duenaren parekoa da. Delitu baten frogak akasgabeak eta akasdunak izan daitezke. Akasgabeak esaten diet epaitu bat errudun ez izateko aukerarik uzten ez dutenei, eta akasdunak aukera uzten dutenei. Lehenengoetarik, bakar bat nahikoa da zigorra emateko, bigarrenetarik, akasgabe bat osatzeko hainbat froga bildu behar dira; horietako bakoitza aintzat hartuta, esan daiteke litekeena dela aski ez izatea errudun jotzeko, baina denak pertsona berean batzen direnean, ezinezkoa dela ez izatea. Esan behar da, erruztatu batek froga akasdun baten aurkako garbita-

sun egokirik ematen ez duenean, froga hau akasgabe bihurtzen dela. Baina frogen ziurtasun moral hau errazagoa da sentitzen, zehatz definitzen baino. Horregatik, pentsatzen dut lege onena epaile nagusiari laguntzaileak izendatzen dizkiona dela, zozketaz eta ez aukeraz, honelakoetan fidagarriagoa delako sentimenduz epaitzen duenaren ezjakintasuna, irizpidez juzgatzen duenaren jakinduria baino. Legeak argiak eta zehatzak diren lekuan, epailearen lanbidea gertaerak ziurtatzea da soil-soilik. Delitu baten frogak aurkitzeko trebetasuna behar baldin bada, emaitzak aurkezteko argitasuna eta zehaztasuna behar baldin badira, epaia emateko aski da zentzun arrunt eta xaloa, askoz ere fidagarriagoa izaten dena ohiko epaile errudun-bilatzaila-
ren jakinduria baino, honek guztia beren ikasketetatik ateratako sistema artifizial batera murrizten baitu. Zoriontsua legea zientzia ez den nazioa! Bada gizona bere berdinak juzgatu behar duela esaten duen lege oso egoki bat; izan ere, hiritar baten askatasuna eta ondasunak jokoan daudenean, isildu egin behar dira desberdintasunak sortzen dituen sentimenduak. Zorionekoak zorigaitzekoari begiratzeko moduan agertzen duen gehiagotasunak, edo behekoak goikoari dion bekaitzak ezin dute eraginik izan epaiketa batean. Baina delitua hirugarren baten aurkako iraina denean, epaile erdiak erruztatuaren mailakoak izan beharko dute eta beste erdiak irainduarenak. Horrela, nahi gabe ere gauzen itxura aldatzen duten interes pribatuak orekatzen direnean, legeak eta egiak mintzatzen dira bakarrik. Ez da justiziaren aurkakoa erruztatuak susmagarri zaizkion testigu guztiak baztertu ahal izatea puntu bateraino. Eta hau aurkaririk gabe geratzen bada denbora batez, epaituak bere burua kondenatzen duela ia emango. Izan bitez agerikoak epaiketak eta agerikoak delituen frogak, modu horretara iritziak, agian gizartearen zutabe bakarra denak, indarrari eta grinnei galga jar diezaien, eta herriak esan dezan: «gu ez gara esklaboak, eta babestuta gaude»; adorea ematen duen sentimendua da hau, eta zerga-dirua bezalakoa bere interesak ulertzen dituen soberano batentzat. Ez naiz luzatuko horrelako era-

kundeei dagozkien beste xehetasun eta gorabehera batzuekin. Ezer ez nuen esango, dena esatea beharrezkoa izango balitz.

XV

Isilpeko salaketak

Nabarmenak, baina gehiegikeria konsakratuak, eta nazio askotan beren konstituzioen ahultasunagatik beharrezko bihurtuak, dira isilpeko salaketak. Horrelako ohitura batek faltsu eta fidakaitz bihurtzen du gizona. Mundu guztiak salatari-usaina hartzen dio mundu guztiari, etsaia ikusten da alde guztietan. Gizona, orduan, bere sentimenduak mozorrotzen saiatzen da, eta hauek besteei ezkutatu beharraren ezkutatu beharrez, azkenerako beren buruari ere ezkutatzten dizkio. Dohakabeak gizonak puntu honetaraino heltzen direnean: gidari izango dituzten irizpide argi eta iraunkorrik gabe, noraezean dabilta iritzien itsaso zabal eta aldakorrean galduta, atzetik segika dituzten munstro zemaikorrei ihes egin nahirik beti; etorkizunaren zalantzak garrazten die oraina; ez dute ezagutzen lasaitasunak eta segurtasunak ematen duten atsegin iraunkorra; bere bizitza tristean zehar noizbehinka bizitako atsegin banaka batzuek bakarrik, presaka eta korrika irentsiak gehienak, kontsolatzen dituzte bizitza bizi izanaz. Eta guk gizon hauek egin behar al ditugu aberria eta tronua defendituko duten gudari ausartak? Eta hauen artean aurkitu behar al ditugu magistratu ustelezinak, hizjario aske eta aber-tzalearekin soberanoaren benetako interesak zaindu eta gartuko dituztenak, zergekin batera maitasuna eta gizon-mota guztien bedeinkazioa tronura ekarriko dutenak, eta hauek banatuko al dute bakea jauregi eta txaboletan, eta segurtasuna eta zoria hobetzeko itxaropena, estatuen suspergarri eta bizipoz onena, hain zuzen ere?

Nork egin diezaioke aurre kalumniari, hau *sekretuaz*, tiraniaren ezkutu gogorrenaz, armatua dagoenean? Zer nolako gobernu-mota da agintariak bere menpeko bakoitzean etsaia susmatzen duena, eta, lasaitasun publikoaren izenean, hiritarra lasaitasunik gabe utzi beharren aurkitzen dena?

Zeintzuk dira salaketa eta zigor sekretuak justifikatzeko arrazoiak? Osasun publikoa, segurtasuna eta gobernukeraren iraupena? Baina zein konstituzio bitxik, indartsua eta bere buruaz iritzi ona duena bada behintzat, dio beldur hiritar orori? Salatzaileak kalterik ez jasatea? Orduan legeek ez dute aski defendatzen. Eta soberanoa baino indartsuagoak diren menpekoak dauden seinale! Salatzailearen ospe txarra? Isilpeko salaketa onartzen da orduan, eta publikoa zigortzen! Delituaren noratasuna? Baldin eta inportantziarik gabeko ekintzei edota jendearentzat onuragarriak direnei delitu deitzen bazaie, salaketak eta epaiketak ez dira sekula aski sekretuak izango. Litekeena al da gauza bat delitu izatea, irain publikoa, alegia, eta aldi berean jendeaurreko agerpenik, epaiketarik komeni ez izatea? Nik gobernu guztiak errespetatzen ditut, eta ez naiz gobernu jakin batez ari. Batzuetan, gorabeheren izaeragatik, gauza kaltegarri bat nazio baten sistematik kentzea izugarrizko galera dela pentsa daiteke, nazio honek hau bere-berea duenean. Baina unibertsoko edozein bazter galdutan lege berriak eman beharko balira, eskuak dardara egingo lidake horrelako ohitura bat baimendu baino lehen, eta geroaldi guztia sentituko nuke begira.

Montesquieu jaunak esan zuen salaketa publikoak hobeto dagozkiola errepublikari monarkiari baino, errepublikan onura publikoak izan behar duelako hiritar ororen gogoia, eta monarkian, berriz, sentimendu hau oso ahula denez gobernuaren izaera beragatik, onena komisarioak izendatzea delako, lege-hausleak sala ditzaten herriaren izenean¹⁰. Baina gobernu orok, errepublikar zein monarkiko, kalumniatzaileari ezarri behar dio akusatuari egokituko zitzaiokeen zigorra.

XVI

Torturaz

Nazio gehienetako ohitura kontsokratua da erruztatuaren tortura epaiketa osatzen den bitartean, delitua aitortu eragiteko, edo egiten dituen kontraesanengatik, edo konplizeak aurkitze-agatik, edo gaiztakeriaren garbiketa bilatzen duen metafisika ulergaitzen batengatik; edota, azkenik, errudun izan daitekeen eta oraindik leporatu ez zaizkion beste delitu batzuentatik.

Gizon bati ezin zaio *errudun* deitu epailearen sententzia baino lehenago, eta gizarteak ere ezin dio babes publikoa kendu, gizartearekin zituen itunak hautsi egin dituela erabakitzen den arte. Zer zuzenbide da hau, indarrarena ez bada, epaile bati hiritarra zigortzeko eskubidea ematen badio, hau erruduna ala errugabea den ez dakigunean? Ez da berria dilema hau: delitua benetakoa da, edo ez da benetakoa. Benetakoa bada, ez dagokio beste zigorrik legeek ezarritakoa baino, eta alferrikoak dira oinazeak, errudunaren aitorpena alferrikoa delako; benetakoa ez bada, ez litzateke errugabea torturatu behar, errugabea baita, legeen arabera, delituak frogatu ez zaizkion gizona. Baina nik beste gauza bat gehitzen dut: harreman guztiak nahastu nahi izatea dela gizon bati aldi berean salatu eta salatzaile izatea eskatzea, oinazea egiaren arragoa bihurtzea; hau egiaren irizpidea errukarri baten giharre eta zuntzetan kokatzea da ia-ia. Hau doilor indartsuak libre uzteko eta ahul errugabeak zigortzeko bide segurua da. Hauek dira egiaren ustezko irizpide honen eragozpen izugarriak, gizajaleen neurriko irizpidea baita; erromatarrek, basatikeria titulu baten baino gehiagoren jabeak haiek ere, esklaboekin bakarrik erabiltzen zuten tortura, bertute zakar eta laudatuegiaren biktimaziren esklaboekin.

Zein da zigorren helburu politikoa? Beste gizonen izua. Baina zer iritzi izan dezakegu guk ohiko tiraniak errudun zein

errugabeen bizkar egiten dituen sarraski sekretu eta pribatuei buruz? Inportantea da delitu nabarmenak zigorrik gabe ez uztea, baina alferrikoa da ilunpean ezkutatuta geratu den delitua nork egin duen asmaketan jardutea. Egindako kalte bat, dagoeneko erremediorik ez duena, ezin du gizarte politikoak zigortu baldin eta, zigorgabetasunak hauspotuta, beste berri batzuei bidea egiten ez badie. Egia baldin bada, beldurragatik edo bertuteagatik, berdin dio, gehiago direla legea errespetatzen duten gizonak, hausten dutenak baino, ondo neurtu behar da errugabea torturatzeko arriskua, gizon horrek askoz ere aukera gehiago duelako, batenaz beste, lege errespetatzaile izateko, mesprezatzaile baino.

Gaiztakeriaren garbiketa da torturaren beste arrazoi barregarri bat. Hau da, legeak gaiztotzat jo duen gizon batek, gaiztakeria horretatik askatzeko, hezurak bere lekutik aterata frogatu behar du bere testigantza. Gehiegikeria hau ezin da onartu hamazortzigarren mendean. Uste da minak, sentimendu bat, azken batean, garbitu egiten duela doilorkeria, harreman moral zuzena dutela biek. Mina arragoa da, menturaz? Eta doilorkeria gauza garbia al da ba? Ez da zaila lege barregarri honen jatorria bilatzea; azken batean, nazio oso batek bereganatzen dituen gauzarik absurduenak ere beti dute harremanen bat nazio berak errespetatzen dituen beste ideia komun batzuekin. Badirudi ohitura hau gizonen pentsaeran, nazioetan eta mendeetan halako eragina izan duten ideia erlijoso eta espiritualetan oinarritua dagoela. Zera dio dogma hutsezin batek: gizakiaren ahultasunak bereganatu dituen orbanak eta Izaki handiaren amorrua merezi izan ez dutenak, su ulertezin batek garbitu behar dituela. Doilorkeria orban zibila denez, eta oina-zeak eta suak orban espiritual eta gorputzik gabeak kentzen dituztenez, zergatik, orduan, torturaren hotzikarek ez dute kentzen orban zibila, doilorkeria, alegia? Nik uste dut zenbait auzitegik zigortu ahal izateko ezinbestekotzat jotzen duen errudunaren aitortzak honen antzeko jatorria duela; izan ere,

penitentziaren auzitegi misteriotsuan sakramentuaren parte nagusia izaten da bekatuen aitorpena. Hona hemen gizonek nola abusatzen duten errebelazioaren argi ziurrenez. Honelakoak izaten dira ezjakintasun garaietan irauten duten gauza bakarrak, eta hauek bereganatzen ditu beti gizadi otzanak, eta modurik zelebren eta zentzugabeenetan erabiltzen. Baina doilorkeria ez da ez legee eta ez arrazoiari lotutako sentimendua, iritzi komunari baizik. Torturak berak benetako doilorkeria eragiten dio jasaten duenari. Metodo honekin, beraz, doilorkeria kendu nahi da doilorkeria emanaz.

Hirugarren arrazoa da ustezko errudunei, beren itaunketan kontraesanetan erortzen direnean, egiten zaien tortura; zigorraren beldurak, epaiketaren zalantzak, epailearen tresneria eta maiestateak, eta gaizkile zein errugabeia guztien ezjakintasunak edonor kontraesanean erortzera bultzatuko ez balute bezala, hala beldurrez dagoen errugabeia nola bere burua babestu nahi duen erruduna; gizonak lasai dagoenean egin ohi dituen kontraesan arruntak burua nahastua dagoenean biderkatuko ez balira bezala, hurbileko arrisku batetik salbatu nahirik.

Egiaren arragoa gaizto hau antzinako legeria basatiaren monumentu bizia da, suaren eta ur-irakinaren frogei eta armen zori ezustekoari *Jainkoaren epai* deitzen zitzaion garaikoa. Jatorria lehen zergatian duen kate eternoaren mailak une oroz nahastu eta bereiztu beharko balira bezala, gizonen gorabehera aldakorren erruz. Torturaren, eta suaren eta ur-irakinaren frogan artean dagoen alde bakarra zera da: badirudiela lehenengoaren arrakasta erruztatuaren borondatearen esku dagoela, eta bigarrenarena, aldiz, gertakizun guztiz fisiko eta kanpotiko baten esku; baina alde hau itxurazkoa da eta ez benetakoa. Ez da oso gauza librea oinaze eta izuikara artean egia esatea, garai batean suaren eta ur-irakinaren ondorioak amarrurik gabe ebitatzea ez zen bezala. Gure borondatearen ekintzak eragile sentikorren arabera dira, hauetan baitute jatorria; eta gizon ororen sentikortasuna mugatua da. Beraz, minaren sen-

tsazioa hainbeste handitu daiteke, non, leku guztia hartzen duelarik, ez dion momentuan torturatuari batere askatasunik lagatzen bide motzena aukeratzeko, eta zigorrari ihes egiteko. Beraz, erruztatuaren erantzuna suaren edo ur-irakinaren aztar-nak bezain beharrezkoa da. Orduan, errugabe sentibera erru-dun aitortuko da, horrela oinazea geldituko dela pentsatzen duenean. Akusatuen arteko diferentzia guztiak desagertzen dira azterketan erabili nahi den bitartekoagatik. Ez da beharrezkoa argi gehiago piztea torturaren oinazepean aitortu zuten errugabeen adibide kontaezinak ikusteko; ez da naziorik, ez da garairik bereak aipatzen ez dituenik, baina gizonak ez dira aldatzen, ez dute ondoriorik ateratzen. Bere ideiak bizitzako premiak baino haratago eraman dituen gizon orok lasterka egin du, noiz edo noiz, naturaren alderantz, honek ahots isil eta nahasgarriekin deitu dionean. Baina ohiturak, gogoaren tirano-ak, atzeratu eta izutu egiten du. Torturaren arrakasta izakera eta kalkulua kontua da; kalkulua gizon batetik bestera asko aldatzen da bakoitzaren sendotasunaren eta sentiberatasunaren arabera; hainbeste, ezen metodo honekin arazo hau hobeto konponduko bailuke matematiko batek epaile batek baino. Errugabe baten giharreen eta zuntzen indarra nolakoa den jakinda, asma daiteke hari delitu jakin baten errudun aitortu eragiteko oinaze maila.

Epaituaren azterketa egia jakiteko egiten da, baina egia hau jakiten nekeza baldin bada gizon lasai baten aidea, keinuak eta itxura ikusita, askoz ere nekezago jakingo dugu oinaze-dar-darek zeinu guztiak aldatzen dituztenean, gauza ezaguna baita batzuetan aurpegiko zeinuek, gogoz kontra bada ere, egia isla-datzen dutela. Edozein eragile bortitzek nahastu eta desagertu egiten ditu gauzen arteko diferentzia txiki horiek, inoiz egia eta gezurra bereizteko balio izaten dutenak.

Legegile erromatarrek bazekizkiten egia hauek; haiek ez zuten inolako torturarik erabiltzen, esklaboekin ez bazen, hauek nortasun guztia ezabatuta izaten baitzuten. Bazekizkien

Inglaterra¹¹; nazio honen letren handitasunak, merkataritza-
ren eta aberastasunen nagusitasunak —eta, beraz, indarrak—,
eta bertute eta kemen adibideek ez digute uzten hango legeen
egokitasuna zalantzan jartzen. Tortura deuseztatua dago
Suedian¹², Europako monarka argienetako batek¹³ deusestatu
zuen; bere menpekoen laguna den legegile honek, filosofia
tronu gainera eramanez, denak legearekiko aske eta berdin egin
ditu, hau baita, gaurko egoeran, gizon zentzudunek eskatu
dezaketen berdintasun eta askatasun bakarra. Armadetako
legeek ere ez dute tortura beharrezkoa ikusi, nahiz eta haiek
nazioetako zaborrez osatuak egon gehienbat, eta horregatik iru-
ditu beste inon baino erabilgarriago izan behar zukeela. Gauza
harrigarria, ohiko tirania zein handia den ez dakienarentzat:
lege baketsuek sarraski eta odolera ohitutako anima gogortue-
tatik ikasi behar izan dute epaitzeko modurik humanoena.

Egia hau badakite, nahiz eta nahasi samar, berarengadik
urruti dabiltzanak ere. Torturapean egindako aitorpenak ez du
balio, baldin eta hura amaituta gero erruztatuak ez badu berriz
zinpean baieztatzen; baina erruztatuak ez badu delitua onar-
tzen, berritorturatzen dute. Zenbait doktorek eta nazio
batzuek ez dute hiru aldiz baino onartzen gurgilzoro gaizto
hau; beste nazio eta doktore batzuek epailearen iritzira uzten
dute: jo dezagun bi gizon daudela, errugabe edo errudun, ber-
din dio; sendoa eta adoretua absolbitu egingo dute, ahula eta
lotsatia kondenatu, argudiaketa zehatz honen harian: *Nik, epai -
leak, delitu jakin baten errudun jo behar zintuztedan; zuk, ado -
retsua, oinazea jasaten jakin duzu, horregatik absolbitu egi -
ten zaitut; zuk, ahulak, amore eman duzu, horregatik kondena -
tu egiten zaitut. Badakit torturekin ateratako aitorpenak ez
duela inongo indarririk, baina nik berritorturatuko zaituztet
aitortu duzuea ez baduzue baieztatzen.*

Tortura erabiltzetik nahitaez datorren ondorio bitxi bat
zera da: errugabea erruduna baino egoera okerragoan jartzen
dela; izan ere, biak torturatzen badituzte, lehenak aurkako

aukera guztiak ditu, zeren eta, delitua aitortzen badu, kondenuatu egingo dute; eta errugabe jotzen badute, jaso du ez zegokion zigorra; baina errudunak badu aukera bat bere alde, tortura tinko jasaten badu, absolbitu egin beharko dute errugabe gisa: zigor txiki bat jaso du handi baten truke. Beraz, errugabeak galdu besterik ezin dezake egin, eta errudunak irabazi.

Tortura agintzen duen legeak zera dio: *Gizonak, eutsi minari, eta naturak kemen itzalezin batez hornitu bazaitu, zeure burua defendatzeko eskubide utziezin bat eman badizu, nik guztiz alderantzizko sentimen bat sortzen dut zuengan, zeuen buruarenganako gorroto heroikoa, eta zeuen buruak salatzeke agintzen dizuet, egia esanez, baita giharreak urratzen eta hezurak ateratzen dizkizueten bitartean ere*

Torturatzen da, baita, epaituak, akusatutakoez gain, beste deliturik egin duen jakiteko; honek argudiaketa hau du azpian: *Zu delitu baten erruduna zara; beraz, beste ehun deliturena ere izan zintezke; zalantza honek kezkatzen nau eta ziurtatu egin nahi dut egia lortzeko nire irizpidearekin; legeek torturatzen zaituzte, erruduna zarelako, erruduna izan zaitezkeelako, zu erruduna izatea nahi dudalako.*

Tortura erabiltzen da, azkenik, akuasatuak egindako delituaren konplizeak aurkitzeko; baina hau egia lortzeko bide egokia ez dela demostratua geratu bada, nola balioko du bide honek konplizeak bilatzeko, hau bilatu beharreko egietariko bat izanik? Bere burua salatzeke gauza den gizonak besteak aiseago salatuko ez balitu bezala. Zuzena al da gizona torturatzea besteen delituengatik? Ezin al dira konplizeak bilatu testigantzak aztertuz, erruztatua itaunduz, delituaren gorputza behatuz, akusatua delitua egin duen ala ez ziurtatzeko dauden bitartekoak erabiliz, azken batean? Konplizeek, gehienetan, ihes egiten dute laguna atxilotzen dutenean; beren egoera zalantzarriak, besterik gabe, erbestera eramaten ditu eta nazioa libre geratzen da beste gaiztakeria batzuetatik; bitartean, errudunari jarritako zigorrak lortzen du bere helburu baka-

rra, hots, izuaren bidez horrelako beste delitu bat egitetik beste gizonak atzeratzea.

XVII

Fiskoaz

Garai batean ia zigor guztiak diru-zigorrak ziren. Gizonen delituak printzearen ondare ziren. Segurtasun publikoaren aurkako atentatuak luxuzko objektu ziren. Hura zaintzeko eginkizuna zuenak interesa zuen bortxatua izan zedin. Zigorren arazoa, beraz, zigor hauen biltzaile zen fiskoaren eta epaituaren arteko auzia zen. Auzi bidez eramaten zen arazo zibila zen, pribatua publikoa baino gehiago, fiskoari, defentsa publikoari zegozkionez gain, beste eskubide batzuk ematen, eta epaituari, zegozkionez gain, beste kalte batzuk ekartzen zizkiona, eredu-garritasuna zela eta. Honengatik guztiarengatik, epailea fiskoaren abokatu zen gehiago egiaren bilatzaile hotz baino, ogasunkutzako agente, legeen babesle eta ministro baino lehenago. Baina sistema honetan errudun aitortzea fiskoaren zordun aitortzea zenez (orduko auzi kriminalen helburu bakarra), delituaren aitortza arrazoi fiskalei onura eta ez kalte egiteko bideratua zegoen, eta oraindik hala dago (ondorioak beti luzaroan irauten dute zergatiak igaro eta gero), honek agindu kriminal guztien ardatz izaten jarraitzen duelarik. Hori gabe, froga garbiekin errudun jo den batek egokitzen zaiona baino zigor txikiagoa jasoko du, hori gabe ez du tortura jasan beharko egin ahal izan dituen gisa bereko beste delitu batzuegatik. Horrekin, epailea errudunaren gorputzaz jabetzen da eta xehe-tu egiten du formalitate metodikoz, gordailu batetik bezala, ahal duen onura guztia ateratzeko asmoz. Delitua izan dela frogatuta dagoelarik, aitorpena froga sinesgarria da, eta froga hau hain susmagarria izan ez dadin, oinazeekin eta minaren etsipenarekin lortzen da; eta, aldi berean, tinko aldarrikatzen da epai-

leaz kanpoko aitortza lasaia eta hotza, epaiketa izugarri baten beldurrik gabe egiten dena, ez dela aski zigortzeko. Gertaera arriskuan jarriko luketen azterketak eta frogak baztertu egiten dira, hauek fiskoaren arrazoiak ahultzen badituzte; batzuetan erruztatuaren torturak ez dira honen ahultasunagatik edo errukiagatik baztertzen, erakunde ulertezin eta irudipenezko horren interesak kaltetuak gerta daitezkeelako baizik. Epaillea epaituaren etsai bihurtzen da; katez lotutako gizon bat du, miseria gorria, tortura eta etorkizunik beltzena duena aurrean; ez dabil gertaturiko egiaren bila, ez; delituaren bila dabil presoarengan, amarruak jartzen dizkio, eta galdu egin duela pentsatzen du helburua lortzen ez badu, eta kalte egiten zaiola gizonak gauza guztietan duen ustezko hutsezintasunari. Atxiloketa gertatzen denean, aztarnak epailearen esku geratzen dira; norbaitek errugabea dela frogatu ahal izateko, errudun jotzen dute lehenengo: honi *auzi er asokorra* egitea esaten zaio, eta horrelakoak dira auzi kriminalak Europa argitu gehienez, hamazortzigarren mendean. Benetako *auzi informatiboa*, gertaeraren azterketa hotza egiten duena, zentzunak agintzen duena, lege militarrek onartzen dutena, asiar despotismoak berak ere kasu lasai eta garrantzi gutxikoetan erabilirikoa, ia ez da erabiltzen Europako epaitegietan. Labirinto kiribilatu hau zentzugabekeria sinestezienez betea aurkituko du, zalantzarik gabe, etorkizunean biziko den jende zoriontsuagoak! Geroaldiko garai hartan, filosofoak bakarrik izango dira gai gizonaren izaeran irakurtzeko, era honetako sistema bat izan zela noizbait.

XVIII

Zinegiteez

Epaituari eskatzen zaizkion zinegiteetan kontraesana sortzen da legeen eta berezko sentimenduen artean, honi egizalea izatea eskatzen baitzaio gezurtia izateko interes osoa

duenean; gizonak egia dioela zin egin ahal izango balu bezala bere burua galtzeko arriskuan dagoenean, erlijioa, gehienetan, isilduko ez balitz bezala interesak hitz egiten duenean. Mende guztietako esperientziak erakusten digu gizonak beste ezertaz baino gehiago abusatu duela zeruaren dohai eder honetaz. Izan ere, zein arrazoigatik errespetatuko dute gaiztoek, gizon ustez jatorrek hain sarri bortxatu dutena? Zentzumenetatik urrunegi daudelako-edo, ahulegiak dira gehienentzat erlijioak beldurraren dardarari eta bizitzeko gogoari aurrez aurre jartzen dizkion arrazoiak. Zeruko arazoiak eta gizonenak lege guztiz desberdinekin arautzen dira. Eta zergatik nahastu batzuek besteekin? Zergatik jarri gizona kontraesan izugarri honetan: edo Jainkoari huts egin, edo norberaren hodamendia bilatu? Zinegitera behartzen duen hone-lako lege batek kristau txarra edo martiria izatera behartzen du. Zinegitea, poliki-poliki, itxurakeria huts bihurtzen da, horrela erlijio sentimenen indarra, gizon gehienek duten jatortasun-berme bakarra, desagiten delarik. Esperientziak erakutsi du zein alferrikoak diren zinegiteak, epaile bakar batek ere ezin izango dit ziurtatu zinegite batek egia esanarazi diola erruztaturen bati. Zentzunak erakusten du hau, honek garbi uzten baitu alferrikoak direla, eta ondorioz kaltegarriak, gizonaren berezko sentimenduen kontrako lege guztiak. Errekaren isuriaren kontra aurrez aurre jarritako hormei bezala gertatzen zaie: urak berehala bota eta eraman egiten ditu, edota inguruan sortzen zaien zurrumiloak azpia jaten die poliki-poliki.

XIX

Zigorrenlastertasuna

Zenbat eta zigorra azkarrago eta delitutik hurbilago ezarri, orduan eta zuzenagoa izango da eta, beraz, egokiagoa.

Zuzenagoa diot, erruztatuari zalantzaren alferriko oinaze ikaragarriak aurrezten zaizkiolako, hauek hazi egiten direlarik irudimenarekin eta norberaren ezintasun-sentimenduarekin; zuzenagoa, askatasuna kentzea berez zigorra denez, ezin delako epaia eman aurretik gauzatu, beharrak eraginda ez bada. Kartzela, beraz, hiritarra errudun jotzen den arte zaintzeko lekua da soilik, eta zainketa honek, berez mingarria delako, ahalik eta laburrena eta bigunena behar du izan. Laburtasun hori auziaren iraupenaren eta aurrena epaitua izateko antzinatasun eskubidearen arabera neurtu behar da. Kartzelako estuasuna ezin da izan ihesa saihesteko edo delituen frogak ez ezkutatzeko behar dena baino handiagoa. Auzia bera ahalik eta azkarren amaitu behar da. Ba al da kontraste ankerragorik epaituaren larritasunak eta epailearen patxadak egiten dutena baino? Magistratu sentimendu gabearen erosotasun eta plazerrak, alde batetik, eta presoaren malko eta saminak, bestetik. Orokorrean, zigorraren pisuak ahalik eta eraginkorrena izan behar du besteentzat, eta ahalik eta bigunena jasaten duenarentzat, zeren eta ezin baitzaio gizarte bati legezko gizarte deitu, baldin eta ez badu bere egiten, oinarri hutsezin gisa, honakoa: gizakiak ahalik eta gaitz txikiena opa behar diola elkarri.

Zigorra azkar ematea hobe dela esan dut, zeren eta zenbat eta denbora gutxiago igaro bidegabekeriaren eta zigorraren artean, orduan eta indartsuagoa eta iraunkorragoa izaten baita gizonaren gogoan *delitu* eta *zigor* ideien arteko lotura, oharkabean bata bestearen eragile ezinbestekotzat jotzen delako. Gauza jakina da ideien arteko lotura dela giza adimenaren lantegia bateratzen duen zementua, hura gabe atsegina eta mina sentimendu isolatuak eta inolako eraginik gabeak izango baitziren. Gizonak ideia orokorretatik eta oinarri unibertsaletatik zenbat eta gehiago urrundu, hots, gizona zenbat eta arruntago bihurtu, orduan eta gehiago jokatzen du hurbileko ideia-elkarketen arabera, urrunakogo-

ak eta nahasiagoak alde batera utziz; hau dela eta, zerbaiten atzetik oso grinatsu dabiltzan gizonei bakarrik balioko diete ideia hauek, arretaren argiak gauza bakarra argitzen baitie, besteak ilunpean utziz. Adimen jantzienentzat ere balio dute ideioek, aldi bakar batean gauza askoren gainetik igarotzeko ohitura dutelako, eta erraztasuna dutelako sentimendu zati-katu mordoa elkarrekin alderatzeko, eta honengatik kasu hauetan emaitza, ekintza, alegia, ez da hain arriskutsua eta ezustekoa izaten.

Izugarri inportantea da, beraz, delituaren eta zigorraren arteko hurbiltasuna, nahi baldin bada, adimen zakar eta arruntetan, delitu onuragarri baten irudi liluragarriari, zigorrari lotu-tako ideia berehala kontrajar dakion. Bi ideia hauek gero eta gehiago bereiztea da atzerapen luzeak dakarren ondorio baka-rra; eta nahiz eta delitu baten zigorrak beti zirrara egin, txikia-goia egiten du zigor gisa ikuskizun gisa baino, eta gertatzen da delitu jakin batek ikusleengan eragindako higuina motelduta dagoenean ematen dela zigorra, bere garaian eman izan balitz, zigor-beldurra indartzeko balio izango zuena.

Beste irizpide oso egoki bat bidegabekeriaren eta zigo-rraren arteko lotura estutzeko: zigorra izan dadila, ahal den neurrian, delituaren izaeraren araberakoa. Analogia honek izu-garri errazten du delituaren zergatiaren eta zigorraren ondorio-en artean egon behar duen kontrastea, hau da, zigorrak urrun-du dezala gogoia lege-haustearen xarmak eraman nahi duen bidetik.

XX

Indar-ekintzak

Delitu batzuk pertsonaren aurkakoak dira, beste batzuk ondasunen aurkakoak. Lehenengoak gorputz-zigorrekin zigor-tu behar dira nahitaez: handiek eta aberatsek ezin dituzte diruz

ordaindu makalaren eta behartsuaren kontrako atentatuak. Bestela, legeen babespean dauden eta lanaren sari diren aberastasunak tiraniaren janari bihurtzen dira. Ez dago askatasunik legeak baimentzen badu gizonak *pertsona* izateari uztea eta gauza *bihurtzea*, zenbaitetan gertatzen den bezala: orduan ikusiko duzue indartsua burubelarri saiatzen gorabehera zibilen matxan legeak bere alde jartzen dituen aukerak aurkitu nahian. Aurkikuntza hau da hiritarrak zerbitzu-abere bihurtzen dituen sekretu magikoa, indartsuaren eskuan jarritako katea ezjakinak eta ahulak lotzeko. Arrazoi honengatik, askatasun itxura ematen duten zenbait gobernutan, tirania ezkutuan dago, edo legegilearen edozein zirrikitutatik sartzen da ustekabeen, eta konturatu orduko indarra hartu eta hazi egiten da. Gizonek, normalean, ageriko tiraniaren aurka hormarik sendoenak jartzen dituzte, baina ez dute ikusten zomorro nimiñoa, poliki-poliki horma janez, ibai itotzaileari bide isila bezain segurua zabaltzen diona.

XXI

Nobleen zigorrak

Zeintzuk izango dira, bada, nobleen delituei dagozkien zigorrak, nazio gehienetako legeen zati handi bat hauen aldeko pribilegioek osatzen dutela jakinda? Nik ez dut orain aztertuko ea nobleen eta herri xehearen arteko herentziazko bereizketa hori egokia den ala ez gobernu batean, edo beharrezkoa den monarkian; ezta egia denentz nobleziak erdiko botere bat osatzen duela, bi muturren gehiegikeriak mugatzen dituen; edota, litekeenagoa, bere buruaren eta besteren esklabo den gizatalde bat osatzen duela, konfiantza eta itxaropen isuri guztia esparru txiki batean gordetzen duena, Arabiako basamortu hareatsu ikaragarrietan nabarmentzen diren islatxo alai eta oparo horien antzera; eta egia balitz ere

desberdintasuna ezinbestekoa eta komenigarria dela gizartean, eta baita egia honek klase mailakoa behar duela izan eta ez hainbeste gizabanakoren mailakoa, parte batean gelditu behar duela eta ez gorputz politiko guztian ibili, iraunkorra izan behar duela eta ez etengabe sortu eta desegiten dena. Gizatalde honi dagozkion zigorrez mintzatzera mugatuko naiz, eta lehenarentzat eta azkenarentzat berdinak izan behar dutela esango dut. Edozein bereizketak, dela ohoretan, dela ondasunetan, legezkoa izateko, legean oinarrituta dagoen aurretiko berdintasuna suposatzen du, legeak hiritar guztiak modu berdinean baititu bere menpeko. Pentsatzekoa da beren berezko despotismoari uko egin dioten gizonek zera esan dutela: *langileagoa denak ohore g ehiago izan dezala, bere ospeak di-z-di-ze gin dezala bere ondor engoengan; xori ontsua - go edo ohor etsuago denak itxaropen handiago izan dezala, baina ez dezala besteak bai no bel dur gutxiago izan hitzarme - nak hausteko, zeintzen bi dezi go baitzen besteak bai no g ora - ga* Egia da horrelako dekretuak ez zirela giza generoaren batzar batetik sortu, baina dekretu hauek gauzen arteko harreman bareetan existitzen dira, eta ez dituzte desegiten nobleziaren ustezko onurak, eta ez dituzte saihesten arazoak; hone-lako dekretuek bikaindu egiten dituzte legeak, eta inpunitatearen bide guztiak ixten. Norbaitek esaten badu nobleari eta herritar xeheari emandako zigor berdina ez dela berdina heziketaren desberdintasunagatik, edo familia ilustre bati itsatsitako ospe txarragatik, nik zera erantzungo nioke: zigorraren neurria ez dela erruztatuaren sentiberatasuna, kalte publikoa baizik, hau zenbat eta maila altuagokoak egin, orduan eta handiagoa izaten delarik; zigorren berdintasuna azalekoa baino ezin daitekeela izan, gizabanako bakoitzean duen eragina oso desberdina izaten delako; familia bati itsatsi zaion ospe txarra soberanoak ezaba dezakeela, errudunaren familia errugabeari bere ageriko elkartasuna agertuz. Eta nork ez daki itxuratasun sentikorrak arrazoiaren indarra duela herri sinesbera eta txundierrazean?

XXII

Lapurretak

Indarkeriarik gabe eginiko lapurretak diru-zigorrekin zigortu beharko lirateke. Inoren kontura aberastu nahi duena pobretu egin beharko litzateke, beretik kenduz. Baina hau, gehienetan, miseriaren eta etsipenaren delitua izaten da, jabetasun-eskubideak (eskubide ikaragarria, eta agian ez eskubide beharrezkoa) existentzia soila besterik utzi ez dion gizaki multzo dohakabearen delitua; baina diru-zigorrek erruztatuen kopurua handitu egiten dutenez, delituena baino handiagoa bihurtuz, eta zigor hauek errugabeei ogia kentzen dietenez gaizkileei dirua ateratzeko, zigorrik egokiena errudunak gizarteari eskaini beharko dion lana eta pertsonaren denbora baterako esklabotza izango da (justua esan dakioken esklabotza-mota bakarra); horrela, bere menpekotasun osoaz, ordaindu ahal izango du gizarte-hitzarmenari egindako bidegabekeria okerra. Baina lapurretari indarkeria nahastu zaionean, zigorrak ere zigor fisikoa eta zerbitzuzkoa nahastu behar ditu. Nire aurretiko beste idazle batzuek garbi erakutsi dute zein kaltegarria den lapurreta bortitzen zigorrak eta lapurreta engainuzkoenak ez bereiztea, diru pila handi baten eta gizon baten bizitzaren arteko berdinketa zentzugabea eginez, baina ez da alferrikoa izango ia sekula gauzatu ez den hau errepikatzea. Makina politikoek bestelako edozeinek baino hobeto mantentzen dute behin hartutako abiada, eta motelenak dira, berriz, abiada desberdin bat hartzen. Izaera desberdineko delituak dira hauek, eta politikan ere egia handia da matematikako axioma hura: distantzia infinito batek bereizten dituela kopuru heterogeneoak.

XXIII

Ospe txarra

Pertsonaren eta ohorearen aurkako irainak, hots, hiritar batek besteegandik jasotzeko duen gutxieneko oniritzi zatia-
ren aurkakoak, ospe txarrarekin zigortu behar dira. Ospe txar hau gaizki-ikuste publikoaren ezaugarria da, errudunari jende-
aren oniritzia, aberriaren konfiantza eta gizarteak hedatzen duen anaitasun antzeko hori kentzen diona. Hau ez dago lege-
aren baitan. Horregatik, beharrezkoa da legeak ematen duen ospe txarra eta gauzen harremanetatik sortzen dena berdina izatea, eta moral unibertsalak ematen duenaren berdina, edo sistema partikularretatik eratortzen den ospe partikularren berdina; kontu egin azken hauek iritzi arruntan legegile direla gisa honetako nazioetan. Bata bestearen ezberdinak badira, legeak jendearen oniritzia galtzen du, edota moralaren eta zintzotasunaren ideiak lurrundu egiten dira, errealitateari aurre egin ezin izaten dioten hitzaldi beroak gorabehera. Berez inportantziarik gabeak diren ekintzak ospe txarreko zat jotze-
ak gutxitu egiten du zinez halakoak direnen ospe txarra. Ospe txarreko zigorrak ez dira maizegi eman behar, eta ez da kome-
ni aldiko pertsona multzo handiegiaren gainera erortzea ere: lehenengoa ez da komeni, iritziko kontuen ondorioak sarriegi gertatzen badira, ahuldu egiten delako iritziaren beraren indar-
ra; bigarrena ere ez da komeni, askok ospe txarra izateak inork ez izatea dakarrelako.

Ez zaie zigor fisiko eta mingarririk ezarri behar harro-
kerian oinarritutako delituei, mina bera ohore eta janari dute-
nei; halakoei barregarrikeria eta ospe txarra komeni zaie, zigor hauek fanatikoen harrotasunari ikusleen harrotasuna kontrajar-
tzen baitiete, eta, hauen tinkotasuna lagun, poliki eta tematsu jokatu-
z, egia bera askatu egiten da. Horrela, indarrak indarrei eta iritziak iritziei kontrajarriz, legegile jakintsuak hautsi egin-
go du irizpide faltsu batek herriarengan eragindako miresmena

eta ezustea, gauza jakina baita irizpide faltsu batetik zuzen ateratako ondorioak bere jatorrizko zentzugabekeria estaltzen diola herriari.

Hona hemen gauzen arteko harremanak eta hauen berezko izaera aldaezina ez nahasteko modua; gauzen izaerak, denborak mugatzen ez duenez eta jardun etengabea dabilenez, nahastu eta barreiatu egiten ditu berarengandik aldentzen diren arau mugatu guztiak. Ez dira gustuaren eta atseginaren arteak bakarrik natura zintzo imitatzen dutenak, oinarri unibertsal gisa; politika bera ere, benetakoa eta iraunkorra behintzat, oinarri beraren gainean eraikitzen da; izan ere, zer da politika, gizonen sentimen aldaezinak hobeto gidatzeko eta sortzaile bihurtzeko artea baino.

XXIV

Nagiak

Lasaitasun publikoa hondatzen duena, legeak obeditzen ez dituen, gizonek elkar hartzeko eta babesteko dituzten baldintzak onartzen ez dituen, alegia, gizartetik alboratu egin behar da, erbesteratu, esan nahi dut. Arrazoi honengatik, gobernu zuhurrek ez dute onartzen lan eta industria alorrean nagitasun politikorik, zenbait hizlari zorrotzek lanaren bidez lortutako aberastasunak dakarren nagitasunarekin nahasten badu ere, nagitasun ona eta beharrezkoa hau, gizartea zabalduz eta administrazioa murriztuz doan heinean. Nik nagitasun politikoa esaten diot gizartearen alde ezer ez egiteari, ez lanarekin eta ez aberastasunekin; beti irabazle irteten dena, inoiz galdu gabe; herri xeheak miresmen inozoz laudatzen duena; zuhurrak babesten duena, haren biktima diren izakiei erruki burlatiz begiratuz; bizimodu ekintzailearen eragingarria falta duena, bizimoduko erosotasunak handitzea eta gordetzea, alegia; iritzi alorreko grinei —eta ez dira ahulenak— bere adore

guztia eskaintzen diena. Ez da nagi politikoa, oster, bere arbasoen bizio eta bertuteen fruituez gozatzen duena; oraingo atseginen truke, ogia eta existentzia geroko txiroaldi lantsuari saltzen diona, ugaritasunaren kontrako lan-gerra isila bakez egiten duena, indar-gerra odoltsu eta ondorio ilunekoaren orde. Honengatik, legeak, eta ez zenbait zentsoreren bertute zorrotz eta mugatuak, zehaztu behar du zein den zigortu beharreko nagitasuna.

Erbesteratze agindua honelakoetan eman behar litzatekeela esan daiteke: norbait delitu larri batez akusatua dagoenean eta probabilitate handia duenean, baina errudun jotzeko ziurtasun osorik ez dagoenean. Baina hau erabakitzeke beharrezkoa da estatutu ahalik eta zehatzena eta ustekeria gutxikoen egitea; honek erbesteratzearekin zigortuko du nazioa aukera gaitz hau egitera behartu duen pertsona: akusatua iraindu edo akusatuaren beldur izan; hori bai, beti bidea irekita utzi behar zaio errugabetasuna frogatzeko eskubide sakratuari. Larriagoak behar dute izan nazioko hiritar baten aurkako arrazoiak atzerritar baten aurkakoak baino, eta lehenengo aldiz akusaturiko baten aurkakoak, errepikatzailarenak baino.

XXV

Erbesteratze eta ondasungabetzeak

Baina bera kide zen gizartetik erbesteratua eta aldendua izan denari, kendu egin behar al zaizkio bere ondasunak? Honelako arazo batek alderdi asko ditu. Ondasunak galtzea erbesteratzea baino zigor handiagoa da; beraz, kasu batzuetan, delituaren arabera, ondasun guztiak edo parte bat galdu behar du, eta beste batzuetan ez. Dena galtzea gertatu beharko litzateke, legeak ezarritako erbesteratzeak gizartearen eta hiritar gaizkilearen arteko lokarri guztiak desegiten dituenean; orduan hiritarra hil egiten da eta gizona gelditzen; eta, gorputz

politikoari dagokionean, berezko heriotzaren ondorio berdina eragin behar du. Esan liteke, beraz, erruztatuari kendutako ondasunak bere legezko oinordekoei dagozkiela, printzeari baino lehenago, heriotza eta erbesteratzea berdinak direlako gorputz politikoaren kontuan. Baina ondasungabetzea ez onartzeraz ausartzen banaiz, ez da xehetasun honengatik. Batzuek diote ondasungabetzea horma bat dela mendekuen eta harrokeria pribatuen aurrean, baina ez dira konturatzen zigorren ondorioz ondasun batzuk etortzeak ez duela esan nahi hauek beti justuak direnik, justuak izateko nahitaezkoak behar dutelako izan; tirania eskuluzeari ate guztiak itxi nahi dizkion legegile batek ezin du injustizia emankor hau onartu, ezin da losintxatan ibili momentuko onurarekin eta pertsonaia itzaltsu batzuen zorionarekin, jende ilun askoren etorkizun beltza eta malkoak mesprezatuz. Ondasungabetzeak salneurria jartzen dio ahularen buruari, errugabeari errudunaren zigorra sufirarazten dio, eta errugabea ere delituak egiteko premia desesperatuan jartzen du. Ba al da gauza tristeagorik, familiaburu baten delituen erruz, ospe txarrera eta miseriara jaurtitako familia bat ikustea baino, jakinda, legearen arabera, familiak ezingo ziola eragotzi delitua egitea, nahiz eta horretarako bitartekoak izan!

XXVI

Familia-espirituaz

Gizon argituenek ere baimendu zituzten injustizia kaltegarri eta onartu hauek, eta errepublika libreeneek ere erabili zituzten, eta hau gizartea familien batasun gisa ikusten zutelako gehiago, gizonen batasun gisa baino. Jo dezagun ehun mila gizon daudela, hoge mila familia alegia, bakoitza bost pertsonakoa, beren ordezkari den familiaburua barne: Elkartea familiak egiten bada, hoge mila gizon egongo dira eta laurogei

mila esklabo; elkartea gizakiena bada, ehun mila hiritar egongo dira, eta esklaborik alerik ere ez. Lehenengo kasuan, errepublika bat egongo da, hogeï mila monarkia txikiz osatua; bigarrenean, espiritu errepublikarraren haizeak ez du bakarrik nazioko plazetan eta batzarretan joko, baita etxe barruetan ere, non gizonen zorion eta miserien parterik handiena dagoen. Lehenengo kasuan, legeak eta ohiturak errepublikako kideen, familiaburuaren ohiko sentimenduen emaitza direnez, espiritu monarkikoa, sartu egingo da, poliki-poliki, errepublikaren baitan. Eta honen ondorioei elkarren interes kontrajarriek eutsi ahal izango diete bakarrik, eta ez askatasun eta berdintasun-sentimendu indartsuak. Familia espiritua xehetasun espiritua da, gauza txikietara mugatua. Irizpide orokorren buruzagi den errepublikaren espiritu arautzaileak, gauzak aztertu ondoren, gehiengoaren onerako diren ekintza nagusi eta inportanteenak laburtu eta sailkatu egiten ditu. Familiaz osatutako errepubliketan, seme-alabak familiaburuaren agindupean izaten dira bizi diren artean, eta haren heriotzari itxoin behar izaten diote legeen menpe baino ez dagoen bizimodua eramanez ahal izateko. Makurtzen eta beldurpean bizitzen ohitzen badira berdeen eta adoretuen diren adinean, sentimenduak oraindik ia aldatu gabe daudenean neurrimendua deitzen zaion esperientziaren eraginez, nola aurre egingo diete haiek bizioak bertuteari beti jartzen dizkion eragozpenei, adin hits eta makalean, zeinetan fruituak ikusteko itxaropen ezak ez dien lekurik uzten aldaketa adortsuei?

Errepublika gizakiena denean, familia ez da agindupeko menpekotasuna, itunpekoa baizik; eta adin batera heldutako seme-alabak berezko dependentziatik (ahultasunak eragindako heziketa eta babes beharretik) irteten direnean, hiriko kide libre bihurtzen dira, familiaburuari atxikitzen zaizkio, gizarte handiaren onuretan parte hartzen duten gizon libre gisa. Lehenengo kasuan, nazioaren parterik handiena eta emankorrena diren seme-alabak gurasoen esanetara daude; bigarrene-

an, ez dago beste loturarik, elkarri laguntzeko agindu sakratu eta hautsiezina baizik, eta jasotako mesedeen esker ona, zeina ez baita hainbeste zapuzten giza bihotzaren gaiztakeriaren erruz, legeenganako atxikimendu gaizki ulertuen erruz baizik.

Familiaren legeen eta errepublikaren oinarrien arteko kontraesan hauek etxe barruko moralaren eta agerikoaren arteko beste kontraesan batzuen iturri oparo dira, eta egonezin etengabea sortzen dute gizon bakoitzaren baitan. Lehenengoak morrontza eta beldurra adierazten du, bigarrenak adorea eta askatasuna; hark ongizatea pertsona kopuru txiki batera mugatzen erakusten du, hautatzeko aukerarik gabe; honek gizon mota guztiengana zabaltzea eskatzen du; hark norberaren burua *familiaren mesedea* izeneko idolo harroari etengabeko sakrifizioa egitea eskatzen du, familiako inoren mesedea ez dena, sarri askotan; honek norberaren interesen alde jokatzeko erakusten du, legeak iraindu gabe; edo aberriaren alde bere burua inmolatzera bultzatzen du, ekintzaren aurreko fanatismoa delarik beren saria. Kontraste hauen ondorioa gizonak bertutea maitatzeari uko egitea da, iluna eta nahasia ikusten baitute, eta oso urrutikoa, gauza fisiko eta moralen iluntasunak eragiten duen urruntasun hartakoa. Zenbat bider gizonak, bere lehenagoko ekintzei begiratzen dienean, harrituta geratzen diren ez zutela jator jokatu ikusten dutenean! Gizartea ugaritu ahala, kide bakoitza osotasunaren parte txikiagoa bihurtzen da, eta sentimendu errepublikarra ere murriztu egiten da neurri berean, baldin eta legeek ez badute setimendu hori indartzeko ardura hartzen. Gizarteek, giza gorputzak bezala, muga jakin batzuk dituzte, eta mugetatik harantz hazten baldin badira, beren ekonomia nahastu egiten da, nahitaez. Badirudi estatu baten masak bere osatzaileen sentiberatasunaren alderantzizko proportzioan egon behar duela, zeren eta bestela, bata eta bestea handitzen badira, lege onak delituak oztopatu nahian hasten direnean, sortu duten onuran bertan aurkituko baitute eragozpena. Errepublika handiegi bat ezin da despotismotik liba-

tu, errepublika federal txikietan zatitzen eta elkartzen ez bada. Baina hau nola lortu? Sila bezalako diktadore despotiko baten bitartez, hark desegiteko izan zuen kemen berbera eraikitzeke duen baten bitartez, alegia. Era honetako gizon batek, goranahikoa bada, zain du mende guztietako loria; filosofoa bada, bere hiritarren bedeinkazioak kontsolatuko du aginpide ezetik, nahiz eta haien esker txarrak behin baino gehiagotan erasan. Zenbat eta ahulagoak nazioari lotzen gaituzten sentimenduak, orduan eta indartsuagoak dira gure inguruko gauzenganakoak; eta zenbat eta gogorragoa, orduan eta iraunkorragoak adiskidetasuk. Honelakoetan, familiako bertuteak, beti nola-halakoak, izaten dira ohikoenak, edo, hobeto esanda, bakarrak. Bakoitzak ondoriozta dezake esandakotik zein mugatuak diren legegile gehientsuenen ikuspegiak.

XXVII

Zigorrenbiguntasuna

Baina nire ideien isuriak urrundu egin naute nire gaitik, eta honi buruzko argitasunak ematen saiatu behar dut. Zigorren ankertasuna ez da delituen galgarik onena, hauen ezinbestekotasuna baizik, eta, beraz, magistratuen begiraletza, eta epaile zorrotz baten gogortasuna, zeinek, bertute onuragarria izateko, legeria bigun baten laguntza behar duen. Zigorra, nahiz eta neurrikoa, ezinbestez etorriko dela jakiteak eragin handiagoa izango du, beste izugarriago baten beldurrak baino, honi inpunitatearen itzaropena badario behintzat; izan ere, kaltea, nahiz eta txikia, ezinbestekoa denean, giza grinen uxatzaille da, eta, aldiz, itzaropena —leku guztietan aurkitzen den dohai zerutiarra— arriskuaren ideia-urruntzaile, batez ere zikoizkeriaren eta ahultasunaren fruitu den inpunitateak indarra hartzen duenean. Zigorren ankerkeriak berak bultzatzen du, hau zenbat eta handiagoa izan, orduan eta asmazio handia-

goak egitera zigorrari zirkin egiteko; delitu gehiago egitera eramaten du, bakar bati ihes egiteko. Oinaze krudelenetara lerratu diren herrialde eta garaiak izan dira beti gertaera odoltsu eta gizatxartuenak jasan dituztenak; izan ere, espiritu basati berberak gidatzen zuen legegilearen eskua, eta senide-hiltzailearena edo sikarioarena. Legegileak, tronuaren gainetik, burdinazko legeak ezartzen zituen esklabo obeditzaileen arima gogortuentzat. Bere iluntasun pribatutik, tirano batzuk desegitena ahalegintzen zen, beste berri batzuk sortzeko.

Oinaze-eragileak ankertzen doazen heinean, gizonen arimak ere gogortu egiten dira, isurkinak eta beren baitako gauzak nibel berean jartzen diren moduan, eta hau grinen indar iraunkor eta biziagatik gertatzen da, gauza jakina baita, ehundaka oinaze-urte basatiren ondoren, gurpilek lehenago espetxeak adina izutzen duela. Zigorrak bere eragina izan dezan, nahikoa da zigorrak dakarren gaitza handiagoa izatea delitutik datorren onura baino, gaitz handiagoa, alegia, zigorraren ezinbestekotasuna eta delituak ekarriko lizkiokeen balizko onuren galera kontuan hartuta. Honen gainetiko guztia alferrikoa da, eta, beraz, tiranikoa. Ezagutzen dituen gaitz errepikakorrengatik gidatzen da gizona, eta ez ezezagunak zaizkionengatik. Demagun bi nazio daudela; batean, delituen mailako zigorrak handiena betiko esklabotza da; bestean, gurpila. Nik diot lehenengoak bigarrenak adina beldur izango diola bere zigor handienari; eta arrazoiren bat balego bigarreneko zigor handiena lehenengora eramateko, arrazoi berberak egongo direla bigarrenean ere zigorrak handitzeko, izan ere, konturatu gabe pasatuko baitira gurpiletik tortura geldi eta ikasiagoetara, eta baita tiranoek ondoegi ezagutzen dituzten zientziaren azken fineziatara ere.

Zigorren ankerkeriak beste bi ondorio kaltegarri dakartzatza, zigorroak delituak prebenitzeko helburuaren aurka daude-nean. Lehenengoa da ez dela hain erraza delituaren eta zigorraren arteko oreka egokia zaintzea, zeren eta, ankertasun saia-

tu batek giza generoa asko aldatu duen arren, legeek ezin baitute gainditu giza antolaketaren sentiberatasunaren mugan dagoen azken indarra. Behin mutur honetaraino helduta, ezin-go litzateke zigor handiagorik aurkitu delitu kaltegarri eta ankerragoentzat, hauek eragozteko komeni den bezala. Beste ondorioa da inpunitatea bera oinazeen ankerkeriagatik sortzen dela. Gizonak muga batzuen barruan itxita daude, bai onerako eta bai txarrerako, eta gizadiarentzako ankerregia den ikuskizuna ezin da beroaldi pasakorra baino izan, eta sekula ere ez sistema iraunkorra, legeek izan behar dutena, hain zuzen. Izan ere, zigorrak oso basatiak badira, aldatu egin behar dira, edota bestela inpunitatea sortuko da ezinbestean legeetatik eurretatik.

Historiak irakurtzen ditugunean, nor ez da izutzen ustez gizon jakintsuek asmatu eta odol hotzez erabili dituzten tortura basa eta alferrikoekin? Nori ez zaizkio alderdirik sentikorrrenak dardaraz jartzen, ikusten dituenean milaka dohakabe miseriak eta etsipenak beren jatorrizko egoerara jaurtita, edo ezjakintasun lotsatiak asmaturiko delitu ezinezkoak leporatuta, edo beren ideiei leial izatearen, eta ez beste ezeren, errudun. Legeak, gutxi batzuei mesede eta gehienera kalte egin ohi dion legeak, beti begi onez ikusi ohi du miseria. Eta hau guztia zentzumen berberak eta, beraz, grina berberak dituzten gizonek gauzatua, itxurakeria ondo pentsatuekin eta tortura mantso eta urragarriekin; zein ikuskizun atsegina jendetza fanatikoarentzat!

XXVIII

Heriotza-zigorraz

Sekula gizona hobetu ez duen alferriko oinaze ugaritasun honek bultzatu nau, ondo antolatutako gobernu batean heriotza benetan zuzena eta beharrezkoa den ala ez aztertzeraz.

Zein eskubide mota ote da gizonari beren kidea erailtzeko baimena ematen diona? Ez behintzat burujabetasunetik eta legeetatik datorrena. Legeak ez dira bakoitzaren askatasun pribatuko zatitxoen batuketa baizik; legeek borondate orokorra adierazten dute, zein borondate pribatuen batuketa baino ez den. Nork eman dio inori beste gizon batzuk bere iritzira hiltzeko baimena? Nola pentsa dezake inork, bakoitzaren askatasuna ahalik eta gutxien hondatu behar denean, izan daitekeen on handiena sakrifika daitekeela, bizitza, alegia? Eta nola ezkontzen da irizpide hau beste harekin, hots, gizonak ez duela bere burua hiltzeko eskubiderik? Irizpide hau okerra dela pentsatu behar al dugu, hiltzeko eskubidea besteri edo gizarte osoari ematen zaionean?

Heriotza-zigorra ez da, beraz, *eskubide* bat, frogatua dut ezin dela izan, nazioak hiritarrarekin duen gerra baizik, hark beharrezkoa eta egokia ikusten duelako izaki bat suntsitzea. Baina demostratuko baldin banu heriotza ez dela ez beharrezko eta ez egoki, irabazia nuke humanitatearen kausa.

Hiritar baten heriotza ezin da beharrezkotzat jo, bi arrazoiengatik ez bada. Lehena, norbaitek, nahiz eta askatasunik gabe egon, artean dituen baliabide eta harremanengatik, nazioaren segurtasunari komeni bazaio; hark bizirik jarraitzeak iraultza arriskutsu bat ekar badezake indarrean dagoen gobernueran. Edozein hiritarren heriotza beharrezko bihurtzen da, beraz, nazioak bere askatasuna berreskuratzen edo galtzen duenean; edo anarkia garaian, legeen lekua bidegabekeriek eurek hartzen dutenean. Baina legeen erregetza lasaian, nazioaren borondateak elkartzen dituen gobernuera batean, hau barrutik eta kanpotik indarrez eta oniritziz (indarra bera baino garrantzitsuagoa), ondo hornituta dagoenean, agintea benetako soberanoaren esku bakarrik dagoenean, aberastasunek atsegin erosten dutenean eta ez agintea, nik ez dut ikusten hiritar bat suntsitzeko inolako beharrik, baldin eta haren heriotza ez bada beste gizaki batzuk delituak egitetik atzeratzeko galga bakarra:

hau da bigarren arrazoia heriotza-zigorra zuzen eta beharrezkotzat jo ahal izateko.

Hainbeste mendetako esperientziak garbi erakusten duenean azken oinazeak ez dituela gizonak atzeratzen gizartea iraintzeko orduan, Erromako hiritarren adibideak daudenean, eta Moskoviako Elisabeta¹⁴ enperatrizaren hogeitazurteak, zeinetan etsenplu ederra eman baitzuen herrien gurasoei, aberriaren semeek odolez erositako konkista askoren mailakoa; hau guztia ikusita ere, gizonari ez zaio buruan sartu, honentzat beti susmagarria baita arrazoiaren hizkuntza, eta jatorra agintearena; aski da gizonaren izaerari erreparatzea esan dudana egia dela konturatzeko.

Gizonaren animoan eragin handiena egiten duena ez da zigorraren gogortasuna, honen luzapena baizik, gure sentibekortasuna errazago eta hobeto mugitzen delako eragile txiki baina errepikakorren ondorioz, mugimendu bortitz baina pasakorren ondorioz baino. Ohituraren aginpidea unibertsala da izaki sentikor guztiengan, eta gizonak haren laguntzaz hitz egin, ibili eta bere beharrianak betetzen dituen bezala, ideia moralak ere ez dira buruan inprimatzen, ez badira gogoan behin eta berriro gogor sakatzen. Gaizkile baten heriotzaren ikuskizun lazgarri baina igarokorrak ez ditu kitatzen hark iraindu duen gizartearekiko zorrak, eta bai, oster, zerbitzuabere bihurturik, askatasunik gabe bizi behar duen gizon baten eredu luze eta neketsuak, hau delarik delituen kontrako oztoporik indartsuena. Zein eraginkorra den geure buruari behin eta berriro errepikatu beharreko esaldi hau: *Ni neu ere egoera luze eta zorigaitzekoan bizi beharrean izango naiz, baldin eta horrelako bidegabekeriak egiten baditut*, eta hau askoz indartsuagoa da gizonak urrun eta ilun ikusten duten heriotza-zigorraren ideia baino.

Heriotza-zigorrak eragiten duen zirrarak ez du bere ahalmenaz ordezkutzen gizonak ahazteko duen berezko joera; gauzarik oinarritzkoenak ere ahazten ditu, eta grinak bitarteko

direnean, areago oraindik. Arau orokorra: grina indartsuak gizonaren jabe egiten dira, baina ez luzaroan; eta egokiak dira gizon arruntek, edo pertsiarrek, edo lazedemoniarrek egin ohi dituzten iraultzak gauzatzeko, baina gobernu aske eta lasai batean hobeak dira zirrara iraunkorrak bortitzak baino.

Heriotza-zigorra ikuskizun bilakatzen da gehientzat, eta higuin-ukitua duen erruki-gai gutxi batzuentzat; bi sentimendu hauek geratzen dira, batik bat, ikuslearen gogoan, eta ez legeak itsatsi gura lukeen izu osasungarria; baina neurriko zigor jarraikorrekin nagusitzen den sentimendua azkenengoa da, bakarra delako. Badirudi legegileek zigorren gogortasunari jarri beharko lioketen muga erruki sentimendua dela, honek beste ezein sentimenduk baino leku handiagoa hartzen baitu ikusleen gogoan, eurentzat egina baitago errudunarentzat baino gehiago.

Zigor batek, zuzena izateko, gizakia delitutik atzeratzeko adinako gogortasuna izan behar du, ez gehiago; izan ere, ondo pentsatuta, ez da bere askatasuna guztiz eta betiko galtzea aukeratuko lukeenik, nahiz eta oso onuragarria izan delitu jakin bat. Beraz, heriotza-zigorraren ordezkoko esklabotza betikoa nahikoa zigor gogorra da edozeinen barrua dardaraz jartzeko; gehiago esango nuke oraindik: askok eta askok aurpegi lasai eta irmoarekin begiratzen diote heriotzari, honakoak itsukeriagatik, horraikoak harrokeriagatik, honek ia beti hilobiraino laguntzen baitio gizonari, harakoak bizimodu doilorrari ihes egiteko azken ahalegin etsi bezala; baina ez dago itsukeriarik eta harrokeriarik zepo eta kate artean, edo garrote azpian, edo uztarripean, edo burdinazko kaiola batean, eta dohakabearen zorigaitzak ez dira une hartan amaitzen, hasten baizik. Gure adoreak hobeto jasaten ditu bortizkeria eta oinaze izugarri baina pasakorrak, denbora eta asperdura mugagabeak baino. Eta hau, nolabait esateko, gizona bere baitan zeharo bil daitekeelako lehendabizikoei aurre egiteko, baina malgutasunik handiena ere ez delako aski segundoen lan etengabe eta

errepikakorra jasateko. Heriotza-zigorrarekin nazioari ematen zaion etsenplu batek delitu jakin bat du atzean; betiko esklabotza zigorrarekin, aldiz, delitu bakar batek etsenplu iraunkor ugari ematen du; eta, inportantea denez gizakiak legeen indarra sarri ikus dezala, heriotza-zigorak ez lirateke denboran elkarrengandik oso urrun eman behar: alde batetik, honek delituen maiztasuna suposatzen duelako, bestetik, eraginkorra izango bada, ez delako komeni zigor honek eragin behar lukeen zirrara guztia egitea gizonengan, egokia eta desegokia izan behar duelako aldi berean. Norbaitek betiko esklabotza heriotza baino mingarriagoa dela esaten badu, eta, beraz, hura bezain ankerra, nik erantzungo diot, esklabotzako une negargarri guztiak batuta, askoz ere mingarriagoa dela, hau bizitza osoan zehar luzatzen delako, eta hark, berriz, bere indarra une jakin batean erabiltzen duelako; eta zera da esklabotza zigorraren abantaila: ikusten duena gehiago beldurtzen duela, jasaten duena baino; lehenengoak une malerusen batuketa hartzen du kontuan; bigarrenari, berriz, momentuko zorigaitzaren itsumenak gerokoa lausotzen dio. Gaitz guztiak hazi egiten dira irudimenean; sofritzen ari denak, berriz, urrundik begiratzen duenari ezezagun eta sinesgaitz egiten zaizkion euskarriak eta kontsolamenduak aurkitzen ditu; soegilea ez da konturatzen bere sentiberatasuna eta egoerak gogorturiko dohakabearena ez direla berdinak.

Hona hemen, gutxi gorabehera, zein burubidetsu darabilen lapurrak edo hiltzaileak, honek urkabea edo gorpila, beste kontrapisurik ez duenean legeak ez bortxatzeko. Badakit norbere baitako sentimenen garapena heziketarekin ikasten den artea dela; baina lapur batek bere irizpideak egoki garatu ez izanak ez du esan nahi hark bere irizpideak gutxiago erabilliko dituenik. *Zeintzuk dira nik errespetatu beharreko lege hauek, aberatsaren eta nire artean hain tarte handia uzten dutenak? Sos bat eskatzen diot eta ez dit ematen, eta berak ezagutzen ez duen lan bat niri aginduz zuritzen du bere burua.*

*Norke giten ditu lege hauek? Sekula behartsuaren etxola bisi -
tatzera jaisten ez diren gizon aberats eta boteretsuek, haurtxo
gositien garrasi errukarren eta andre-malkoen artean lizun -
dutako ogi bat sekula banatu ez dutenak. Eten ditzagun gehie -
nontzat kaltegarriak eta tirano alfer banaka batzuentzat ego -
kiak diren lokarri hauek, eraso diezaiogun injustiziari bere itu -
rrian. Nire berezko independentzia-egoerara itzuliko naiz,
libre eta zoriontsu biziko naiz denbora batez, nire adorearen
eta ahaleginaren fruituekin; etorriko da agian oinazearen eta
damuaren eguna, baina laburra izango da denbora hau, eta
oinaze-egun bat baino ez dut izango askatasun eta atsegin-urte
askoren truke. Gutxi batzuen erree izango naiz, eta zoriaren
akatsak zuzenduko ditut, eta tirano harroputz hauek zurbiltzen
ikusiko ditut, beren zaldi eta txakurrak baino eskasagotzat har -
tzen zutenaren aurrean. Orduan erlijioa etortzen da ezer erres -
petatzen ez duen gaizkilearen burura, eta, honek damu erraza
eta betiko zorionaren ia ziurtasun osoa aurkezten diolarik, asko
samurtzen da haren azken trajediaren izugarrikeria.*

Baina urte mordoa edota bizitza osoa esklabotzan eta
oinazean igaro beharko duela ikusten duenean, bere herrikide -
en begirakunepean, hauekin libre eta anaikiro bizi ordeztu,
babesle zituen lege berberen esklabo; hau guztia konparatu
egiten du, bere artean, bere delituen ustezko arrakastarekin,
fruituak gozatu ahal izango lituzkeen denbora laburrekin.
Beren arinkeria biktima direnen eredu iraunkorra ikusteak
askoz ere zirrara handiagoa eragiten dio, zuzendu beharrean
gogortu egiten duen oinazearen ikuskizunak baino.

Heriotza-zigorra ez da eragingarria ankerkeriazko ere -
dua ematen diolako gizakiari. Grinek edo gerrako premiek
giza odola isurtzen erakutsi badute ere, giza jarreraren leunga -
rri diren legeek ez lukete eredu basatia hedatzen lagundu
behar, hau are eta kaltegarriagoa baita lege bidezko heriotza
gauzak aztertuz eta itxurak zainduz egiten denean.
Zentzugabekeria iruditzen zait borondate publikoaren adieraz -

pide diren legeak, erailketaren errefusatzaille eta zigortzaille direnak, eurak berberak izatea haren egile, eta, hiritarrak erailketatik urruntzeko, eurek ageriko hilketa agintzea. Zeintzuk dira legerik benetako eta komenigarrienak? Zeintzuk denok proposatu eta onartu nahi ditugun hitzarmen eta baldintzak, interes pribatuaren betiko ahotsa isiltzen edota interes publiko kora moldatzen den bitartean? Zeintzuk dira bakoitzaren sentimenduak heriotza-zigorraren aurrean? Ikus dezagun denok nolako amorru eta ezinikusiarekin begiratzen diogun borreroari, hau borondate publikoaren gauzatzaile errugabea besterik ez denean, onura publikoaren alde lanean ari den hiritar ona, barneko segurtasun publikoak beharrezkoa duen tresna, kanpokoak gudari ausartak behar dituen modu berean. Zein da, orduan, kontraesan honen jatorria? Zergatik da gizakiaren ezaabagaitza arrazoiaren kontrako sentimendu hau? Zergatik gizonak bere barne muinetan, oraindik bere berezko izaera beste inon baino hobeto gordetzen duen lekuan, uste du norberaren bizia ez dagoela inoren esku, halabeharrarenean ez bada, zeinek bere burdinazko aginte-makilaz gobernatzen baitu unibertsoa.

Zer pentsatu behar dute gizonak ikusten dutelarik magistratu jakintsuek eta apaiz serioek lasaitasun axolagabez eta tresneria geldoz zatikarazten dutela presoa, eta dohakabe hau azken arnasan, behin betiko golpearen zain dardaraka dagoen bitartean, epailea badoala pauso geldian, hotsasun bihozgabez eta agian bere agintearen handiustean atsegin hartuz ere bai, bizitzako erosotasun eta atseginez gozatzeraz? *A! esango dute haiek, lege hauek ez dira indarraren aitzakia eta justiziaren itxurakeria pentsatu eta basatiak baino; komenentziazko hizkuntza bat dira, gu, despotismoaren idolo asegaizari sakrifikatutako biktimak, segurtasun handiagorik sarraskitzeko.*

Erailketa, oster, bidegabekeria ikaragarria balitz beza - la erakutsi digutena, inolako nazkarik eta amorrurik gabe burutzen dela ikusten dugu. Etenpluetatik ikas dezagun.

Kontatzen zigutenaren arabera, ikuskizun lazgarria iruditzen zitzaigun hilketa bortitza, baina une bateko arazo moduan ikusten genuen. Bada, orduan, askoz ere leunagoa izango da, itxaro ez delarik, mingarritik duen gehientsua kentzen bazaio! Hauek edo antzerakoak dira deliturako prest dauden gizonen egiten dituzten alderaketa negargarriak, garbi ez bada ere nahas-mahasean, delituak egiteko orduan erlijioaren abusuak, ikusi dugunez, indar gehiago duenean erlijioak berak baino.

Ia mende eta nazio guztietako eredia aurpegiratzen badidate, zenbait delituri heriotza-zigorra ezarri izan zaiola, alegia, nik erantzungo diet hori hutsean geratzen dela ukaezina den egiaren aurrean; esango diet gizonen historia hutsegiteen itsaso amaigabea dela, zeinetan egia gutxi eta lauso batzuk bakarrik geratu diren ur gainean, han-hemenka. Giza sakrifizioak ohikoak izan dira ia nazio guztietan, eta orain nor ausartzen da haiek zuritzen? Gizarte banaka batzuk, denbora laburrez bada ere, heriotza-zigorrari uko egin izanak, nire argudioen alde gehiago esaten du aurka baino, hau baita egia handien zoria, hauek tximista baten iraupena baitute, gizakia estaltzen duen gau luze eta beltzarekin alderatuta. Oraindik ez da heldu egia gehiengoaren ondare izango den garai zorionsua, orain arte hutsegitea izan den bezala; eta lege unibertsal honetatik kanpo, Jakinduria infinitoak, errebelazioaren bitartez, besteen-gandik bereizi nahi izan dituen egiak bakarrik geratu dira.

Filosofoen ahotsa makalegia da ohituraitsuak gidatutako hainbaten zarata eta iskanbilei aurre egiteko, baina munduan zehar sakabanaturiko gizon burutsu apurrek oso kontuan izango naute beren bihotzen lekurik kuttunenean; eta egiak ahal izango balu monarkarenganako bidean —eta ez bere erruz— dagoen hamaika mila traba saihestu eta tronuraino heldu, jakin beza egia gizaki guztien boto sekretuekin datorrela, jakin beza konkistatzaileen ospe odoltsua isildu egingo dela beraren aurrean, eta etorkizun justuak lehen lekua eskainiko diola Titoen, Antoninoen eta Trajanoen trofeo baketsuen artean.

Zoriontsua litzateke gizadia, baldin eta lehenengoz legeak ezarriko balitzaizkio, orain, Europako tronuen gainean monarka onberak ikusten ditugunean, bertute baketsuen, zientzien eta arteen bultzatzaileak, bere herrien gurasoak; hiritar koroadunak, beren agintea handitzeak hiritarren zoriona ekartzen du, erdiko despotismoa desegin baitute, ankerragoa, segurtasun gutxiagokoa eta herri-gogoaren itotzailea zen despotismoa. Zein zorionekoa litzatekeen herriaren gogo egigosea, baldin eta tronuraino iristeko zoria balu! Horiek lege zaharrei irauten uzten badiete, izango da, diot nik, zailtasun ikaragarria dagokeelako hutsegiteei mendez mende itsatsitako herdoil gurtua kentzeko, eta, hau dela eta, hiritar argituok bihotz-bihotzez gura dugu haien agintea handituz joan dadila.

XXIX

Espetxeratzeaz

Hutsegite arrunta bezain gizartearentzat kaltegarria da legeen burutzaile den magistratuari arbitro gisa jokatzeko uztea hiritar bat espetxeratzeko orduan, etsai bati askatasuna kentzeko ahalmena ematea edozein aitzakia xumerekin, edota lagun bat zigorrik gabe uztekoa, honen aurkako erruduntasun froga garbiak egon arren. Espetxeratzea da zigor bat, besteak ez bezala, derrigorrez delituaren deklarazioaren aurretik gauzatu beharrekoa, baina berezitasun honek ez dio beste oinarritzko bat kentzen, hots, legeak bakarrik esan dezakeela gizonak noiz merezi duen zigorra eta noiz ez. Legeak zehaztu behar du, beraz, delituaren zein arrastok merezi duen ustezko erruduna atxilotzea, eta zigorra ekar dezakeen azterketa abian jartzea. Iritzi publikoa, ihesa, epailez landako aitorpena, delitukide baten aitorpena, mehatxuka eta liskar etengabea badabil irainduarekin, delituaren gorputza, edota antzeko beste arrasto batzuk aski dira hiritar bat atxilotzeko; baina froga hauek lege-

ek ezarri behar dituzte eta ez magistratuak; izan ere, hauen dekretuak askatasun politikoaren aurkakoak izaten dira beti, kode publikoko esaldi orokor batetik eratorritako proposamen partikularrak ez direnean. Zigorrak leundu ahala, espetxeetako zikinkeria eta gosea kendu ahala, errukiak eta gizatasunak burdinazko atearak zeharkatu eta justiziaren ministroen bihotz estu eta gogorretan gobernatu ahala, legea aztarna ahulagoz baliatu ahal izango da norbait atxilotzeko orduan. Delitu batez akusatutako pertsonak, espetxeratua eta libre utzia izan ondoren, ez luke fama txarraren orbanik eraman behar. Delitu oso larriak leporatutako hainbat eta hainbat erromatar, errugabe azaldu ondoren, oso errespetatuak eta ohoratuak izan ziren herriaren eta magistratuen aurrean! Baina gaur egun zergatik da hain desberdina errugabe baten irteera? Jendeak pentsatzen bide duelako justiziaren ideari indarraren eta jauntxokeriaren ideia nagusitu zaiola oraingo sistema kriminalean; akusatuak eta konbiktuak nahasi botatzen direlako kobazulo berera. Espetxea akusatuaren oinazeleku delako gehiago, gordeleku baino. Eta legeen barne-indar babeslea bereizita dagoelako kanpoko indarretik, tronua eta nazioa defendatzen dituenetik, biak bat eginda egon beharko luketenean. Horregatik, lehenengo gauza fama txarra kentzea izango litzateke, legeen ekimenez, epaile-en boterea lagun hartuta, baina ez haren menpekotasun zuzenean, eta erakunde militar baten neurriko loria eta arrandia erabili beharko litzateke, jakinik ospea, herriaren sentimendu guztiak bezala, lotuago dagoela itxurari mamiari baino; eta frogatua dut espetxe militarrek ez direla zibilak bezain ospe txar emale, jendearen ustez. Oraindik bizi-bizirik daude herriarengan, eta baita egungo nazioaren argiak baino gutxienez mende bat atzerago doazen ohitura eta legeetan ere, iparraldeko gure guraso ehiztarien joera anker eta ideia basatiak.

Zenbaitek dio delitua, legearen kontrako ekintza, alegia, edozein lekutan egina delarik ere, zigortu ahal izan behar dela; ezabaezina izango balitz bezala hiritar izaera, hiritar izateak

esklabo izatea edo txarragoa esan nahiko balu bezala; norbait lurralde bateko hiritar izan eta beste batean bizi ahalko balitz bezala; eta beren ekintzak, kontraesanik gabe, gehienetan desberdinak diren bi soberano eta bi legeriaren menpe egon ahalko balira bezala. Bide honetatik, batzuek pentsatzen dute Konstantinoplan egindako ekintza basati bat, adibidez, Parisen zigor daitekeela, arrazoi oso abstraktu bat erabiliz: humanitatea iraindu duenak aurka izan behar omen du humanitate osoa; gaitzespen unibertsala, alegia. Epaileak gizonen sentiberatasunaren zaindari balira bezala, eta ez beren arteko hitzarmenen babesle. Zigorraren lekua delituaren lekua da, han eta hantxe bakarrik daudelako gizonak gizabanako bat samintzera behartuta, samin publikoari aurre egiteko. Bera gizartekide ez den gizarte bateko hitzarmenak sekula hautsi ez dituen gaizkilea beldurgarria izan daiteke, gizarteko agintaritza nagusiak atzeriratu eta baztertu egin dezake, agian, baina gaizkile hori ezin daiteke zigortu hitzarmenen zaindari diren legeen formalitatea erabiliz, eta ezta ekintzen berezko gaiztakerian oinarrituz ere.

Deliturik txikien errudunak espetxe ilun batera jaurtiz zigortzen dira, edota esklabotza urrun eta alferrikora bidaltzen etsenplu ematera, kalterik egin ez duten nazioetara. Gizona, normalean, ez da ausartzen delitu ikaragarriak bat-batean egitera, eta, horregatik, txarkeria handi bati ezarritako zigor publikoa gauza arrotza eta berari gerta ezinezkoa irudituko zaio; baina delitu txikiagoen zigor publikoak, norberaren gogotik hurbilago geratzen denez, eragin egingo dio, eta delitu txikietatik uxatuko du eta, zer esanik ez, handietatik. Zigorrak delituekin orekan ez dira gogortasunean bakarrik egon behar, baita zigortzeko moduan ere. Batzuk libre geratzen dira delitu txiki baten zigorretik alderdi saminduak barkatzen dionean; gizadiaren bihotz-zabaltasunaren alde mintzatzeko da jarrera hau, baina onura publikoaren kontrakoa da, hiritar pribatu batek bere barkamenarekin ezin duelako ezabatu etsenpluaren beharra, nahiz eta barkatu ahal izan eragin dioten

samina. Zigortzeko eskubidea ez da hiritar batena, hiritar guztiena edo soberanoarena baizik. Batek uko egin diezaioke bere eskubide parteari, baina ez beste guztiena ezereztu.

XXX

Auziak eta preskripzioak

Frogak ezagutzen direnean eta delituaren ziurtasuna dagoenean, erruztatuari astia eta bitartekoak eman behar zaizkio bere burua zuritzeko; baina denbora laburra, zigorraren berehalakotasunari kalterik egingo ez diona, hau baita, ikusi dugunez, delituen kontrako euskarririk onena. Badirudi denbora-laburtasun honen kontra agertzen dela gaizki ulertutako gizadi-maitasun mota bat, baina zalantza guztiak ezabatuko dira legeriaren akatsekin errugabetasunaren arriskuak gehitu egiten direla pentsatzen badugu.

Baina legeek denbora bat zehaztu behar dute, bai erruztatuaren defentsarako eta bai frogak aurkezteko; izan ere, bestela epailea legegile bihurtuko litzateke berak erabaki beharko balu zein den delitu bat frogatzeko behar den denbora. Era berean, frogatuta dauden eta gizonen gogoan geratu diren delitu basatietan, ez da ihes egin duen errudunaren aldeko inolako preskripziorik eman behar; baina delituak txikiak eta ilunak direnean, preskripzioak balio behar du hiritar baten zoriaren zalantza ezabatzeko, delitua luzaroan estalita euki duen iluntasunak ezabatu egiten duelako inpunitatearen etsenplua, horrela akusatuari hobetzeko aukera ematen zaiolarik. Aski zait irizpide hauek aipatzea, ezin baita muga zehatzik ezarri, legeria jakin batean edo gizarte-egoera jakin batean ez bada; zera gehituko dut bakarrik: nazio batean, neurrimenduz emaniko zigorraren egokitasuna oinarri hartuta, preskripzioaren edo frogen denbora delituen arabera luzatzen edo laburtzen duten legeek, kartzela bera edo borondatezko atzerriratzea zigorraren zati bihurtzen

dutenak, bereizketa erraza egitea bideratuko dute, zigor bigun eta gutxi batzuk ezar baitaitezke delitu kopuru handi batentzat.

Baina denbora ez da delituen ankerkeriaren proportzio zehatzean luzatuko, delituen probabilitatea beren ankerkeriaren alderantzizkoa baita. Beraz, ikerketa-denbora laburtu egin beharko da eta luzatu preskripzioarena. Badirudi hau kontraesanean dagoela lehen nik esandakoarekin, hau da, zigor berdinak eman daitezkeela delitu ezberdinentzat, zigortzat hartuz kartzela denbora edo honen aurreko preskripzio-denbora. Irakurleari nire ideia azaltzeko, bi delitu mota bereizten ditut: lehena, delitu ankerrak: hilketa eta hurrengo mailako beste gaiztakeria guztiak. Bigarrena, delitu txikiak. Bereizketa honek gizonaren izaeran du oinarria. Norberaren bizitzaren segurtasuna berezko eskubidea da, eta ondasunen segurtasuna gizarte-eskubidea. Gizakia berezko erruki sentimendurantz bultzatzen duten arrazoiak askoz ere gutxiago dira, zoriontsu izateko berezko egarriak eramanik, eskubide bat haustera bultzatzen dutenak baino, eskubideak ez beren bihotzetan baizik eta gizar-tearen arauetan aurkitzen dituztelako-edo. Bi delitu hauen arteko probabilitate-ezberdintasun txit handiak eskatzen du hauen arauketa oinarri ezberdinekin egitea: delitu ankerrenetan (eta, beraz, arraroenetan) ikerketa-denbora laburtu egin behar da akusatuaren errugabetasun-probabilitatea handitzeko, eta preskripzioaren denbora luzatu, zeren eta errudun edo errugabe jotzen duen epai behin betikoak ekarriko baitu inpunitatearen lilura kentzea, lilura horrek dakarren kaltea handiagoa izaten delarik delituaren ankerkeriaren arabera. Baina delitu txikietan, akusatuaren errugabetasun-probabilitatea gutxitu egiten denez, luzatu egin behar da ikerketa-denbora, eta inpunitatearen kaltea txikiagoa denez, laburtu egin behar da preskripzioarena. Delituak bitan banatze hau ez litzateke onartu beharko, baldin eta bitartean gutxitu egingo balitz inpunitatearen kaltea, eta delituaren probabilitatea handitu. Esan behar da, ez dakigunengan akusatua errudun ala errugabe den, eta froga-faltaz askatu

denean, berriro atxilotu daitekeela delitu berberagatik, eta ikerketa berriekin hasi, baldin eta legeak seinalatutako aztarna berriak agertzen badira, eta ez bada bere delituari jarritako preskripzio-epea igaro. Hau da, behintzat, hiritarren segurtasuna eta askatasuna babesteko egokia iruditzen zaidan jarrera, ez dadila gertatu batari mesede egitearren besteari kalte egitea, bi ondasun hauek hiritar ororen ondare ezinbestekoak baitira, eta horregatik bata ondo zainduko du despotismo ageriko zein moztarrotuak, eta bestea herriaren anarkia istilutsuak.

XXXI

Frogatzen zailak diren delituak

Gauza hauek guztiak ikusita, harrigarria litzateke ez pentsatzea arrazoia ez dela inoiz nazioen legegile izan; jakina da delituri ankerrenak, edota ilun eta kimerikoenak, inprobabilitate handikoak, alegia, uste soilekin edo froga oso ahul eta ekibokoekin frogatu ohi direla; ematen du legeen eta epaileen interesa ez dela egia aurkitzea, delitua frogatzea baizik; errugabea zigortzea arrisku handia ez balitz bezala, errugabetasun-probabilitatea erruduntasunarena baino handiago denean. Gizon gehienek ez dute delitu handietarako zein bertute handietarako behar den kemenik, eta badirudi batzuk eta besteak batera doazela denboran, gobernuaren jarduerak eta onura publikoaren aurkako grinak, eta ez legeen jatorrasunak, gidatutako nazioetan. Hauetan, grina ahulduak indarrean dagoen gobernuera mantentzeko aproposagoak dirudite, hobetzeko baino. Ondorio garrantzitsu bat ateratzen da honetatik: delitu handiek ez dutela beti frogatzen nazio bat hondamendira doala.

Bada aldi berean maiztasun handikoa eta frogatzen zaila den zenbait delitu; eta honelakoetan errugabetasun-probabilitatek dator frogatzeko zailtasuna; eta inpunitateak eragindako kaltea txikiagoa denez, eta delitu hauen maiztasuna ez inpuni-

tate-arriskuagatik baizik eta beste arrazoi batzuentatik gertatzen denez, ikerketa eta preskripzio-epeak, biak laburtu egin beharko lirатеke. Ikusten dugu, osterа, adulterioa eta atsegin greziarra (sodomia), froga zaileko delituak biak, direla ohiko irizpideen arabera, aurreiritzi tiraniko gehien onartzen dutenak, *sasi-frogak*, *erdi-frogak* (gizon bat *erdi-errugabe*, edo *erdi-errudun* izan ahalgo balitz bezala, edo *erdi-zigorgai* edo *erdi-barkagai*); torturak bere aginte krudela erabili ohi du akusatua-engan, testigantzetan, eta baita dohakabearen familia osoan ere, zenbait doktorek, hostasun lotsagarritz, epaileen esku uzten dituzten arau eta legeek erakusten duten bezala.

Adulterioa, politikoki begiratuta, bere indarra eta nora-bidea bi arrazoik ematen dioten delitua da: gizonen lege alda-korrek eta sexu bat bestearengana bultzatzen duen erakarmen indar ikaragarriak; hau, askotan, unibertsoaren indar eragilearen antzekoa da, hura bezala moteldu egiten delako distantzia-rekin, eta bataк gorpuzkien mugimendu guztiak aldatzen dituen bezala, besteak gogoaren gehienak aldatzen dituelako, bere eraginak irauten duen bitartean; baina desberdina da honetan: grabitatea eragozpenen aurrean orekatu egiten da bitartean, besteak indar eta kemen handiagoa hartzen du oztopoak areagotu ahala.

Nik oraindik erlijiorik gabe bizi diren nazioei hitz egin beharko banie, esango nieke badirela kontuan hartzeko beste bi ezberdintasun delitu honen eta beste delituen artean. Hau gizadi osoaren behar betiko eta unibertsal baten abusutik sortzen da, gizartea bera sortu aurretiko beharra gainera, bestelako delitu suntsitzaileen jatorria behar naturaletan baino gehiago, momentuko grinetan dagoen bitartean. Gisa honetako behar bat badirudi, gizonaren historia ezagututa, beti berdina dela giro berdinean, eta beti kopuru berdinekoa. Hau egia balitz, alferrikoak eta kaltegarriak lirатеke batura osoa gutxitzea bilatuko luketen lege eta ohiturak, norberaren eta besteen beharren parte bat zamatzea izango lukeelako ondorio; baina

zuhurak lirateke, aldiz, nolabait esateko, lautadaren erripa leunari jarraituz, kopuru osoa apurka eta berdin banatuz eta isuriz, alde guztietan lehortea zein uholdea eragotziko luketen lege eta ohiturak. Senar-emazteen leialtasuna ezkontza kopuruaren eta askatasunaren arabera da. Herentzia aurreritziek gobernatzen duten lekuan, etxean agintzen duenak erabakitzen eta aukeratzen duenean, galantasunak isilpean eteten ditu lokarriak, moral arruntari muzin eginez, honen jokabidea ondorioen kontra oihu egitea izaten delarik, zergatiei barkamena emanetz. Baina gogoeta hauek ez dira beharrezkoak, benetako erlijioan biziz, berezko senen bideratzaile diren arrazoi gorenagoak dituztenentzat. Honelako delitu bat egitea hain bat-batekoa eta misteriotsua da, hain dago estalia legeak berak ipini dituen zapiz (beharrezko estalkia, baina urrakorra eta gauzaren salneurria gutxitu beharrean handitzen duena), aukerak hain dira errazak eta ondorioak hain nahasiak, non legegilearentzat aurreikustea erosoagoa baita zuzentzea baino. Arau orokorra: delitu bat, berez eta gehienetan zigor gabe utzi beharrekoa izaki, zigortzen bada, zigorra pizgarri bihurtzen da. Gure irudimenaren ezaugarrietariko bat honakoa da: oztopoak, gaindiezinak eta zailegiak ez badira edozein gizonen adore alferrarentzat, gehiago aztoratzen dutela irudimena eta handitzen objektua; izan ere, irudimen errari eta kaskarina, objektuaren bidean hainbeste traba eta erreparo aurkitzen duenean, aukera guztiak probatzera behartzen delarik, askoz ere estuago lotuko zaio gure berezko senaren jomuga den alde atseginenari, haren alde txar eta mingarriari baino, zeinetatik ihesi egiten duen.

Sodomia, legeek hain gogor zigortzen dutena eta errugabetasunaren garaile den toturaren eskuetan hain erraz uzten dena, gizon isolatu eta librearen beharretan baino gehiago oinarritzen da gizon gizarteratu eta morroiaren grinetan. Honen erakarmen-indarra atsegin-egarrian baino gehiago heziketan dago, gizona bere buruarentzat ezdeus eta besteen-tzat erabilgarri bihurtzen duen heziketan; gazte-adore sutsua

itxi egiten den etxeetan, beste edozein harremanetarako horma gaindiezina eraikitzen denean, naturaren kemen guztia alferrik galdu egiten da gizadiarentzat, eta zahartzaroa aurreratzen.

Modu berean, haur-hilketa ere kontraesan saihestezin baten ondorioa da, zeinetan aurkitzen baita derrigorrez edo ahuldadez amore emandako pertsona. Ospe txarraren eta kaltea sentitzeko gauza ez den izakiaren heriotzaren artean aukeratu behar duenak, nola ez du, bada, nahiago izango azken hau, berari eta bere zorigaitzeko fruituari ziur-ziur itxaroten dien miseria baino? Delitu hau aurreikusteko modurik onena, tiraniaren aurkako ezintasuna lege eraginkorrekin babestea izango litzateke, tiraniak puztu egiten baititu bertutearen kapapean estaltzen diren bizioak.

Ez da nire asmoa delitu hauek sortzen duten higuin ulergarria apaltzea; baina, iturburuak seinalatuz, ondorio orokor batzuk ateratzeko eskubidea dudala uste dut, hau da, ezin zaio la delitu baten zigorrari inondik inora zuzena deitu (honek beharrezkoa esan nahi baitu), legeak, nazio baten egoera kontutuan hartuta, hura aurreikusteko bitarteko egokirik jarri ez duenean.

XXXII

Buru-hilketa

Buru-hiketa, itxura batera, zigorrik (bere zentzu estuan) onartu ezin duen delitua da, errugabe baten edo gorpu hotz eta zentzumen gabe baten gainera eroriko litzatekeelako. Honek bizidunengan inolako eraginik izango ez duenez, makila hartu eta estatua bat jipoitzea bezalakoa denez, injustua eta tiranikoa da, gizakiaren askatasun politikoak zigorrak pertsonalak soilik izatea eskatzen duelako. Gizakiak gehiegi maite du bizitza, eta bere ingurumen guztiak sendotu egiten du maitasuna. Atseginaren eta itxaropenaren irudi liluragarriak, hilkorren engainu txit gozoak dira, eta hauengatik irensten dute zurruta-

da handiz gaitza, pozezko tantatxo banaka batzuekin nahastua; hau guztia erakargarregia da, eta buru-hilketa zigortzeak ez du gizakiarengan inolako eraginik izango, jakinda, gainera, egilearen inpunitatea ezinbestez ziurtatua dagoela. Legeak obeditu egiten ditu oinazearen beldur denak. Baina heriotzak gorputzeko iturri guztiak agortzen ditu. Orduan, zein izango da buru-hiltzailearen esku etsiari eutsiko dion arrazoia?

Bere burua hiltzen duenak mugetatik at joaten denak baino kalte txikiagoa egiten dio gizarteari; hark bere izate guztia uzten du, baina honek, oster, bere burua eta jabetasunen zati bat darama. Eta gizartearen indarra bere giza kopuruaren arabera bada, bere burua batetik kendu eta beste nazio bati ematen dionak, bere heriotzarekin gizarteari kendu besterik egin ez dionaren gaitz bikoitza egiten du. Arazoa, beraz, zera da, ea ona ala txarra den nazioarentzat kanpora joan ahal izateko askatasun osoa eta betikoa ematea bere kide bakoitzari.

Armatu gabea den edo gorabeherak funts gabe bihurtzen duten edozein lege ez da aldarrikatu behar. Eta gogoaren gainean iritziak agintzen duen bezala, eta honek legegilearen bultzadaxo motel eta zeharkakoei jarraitzen dien bezala, bultzada zuzen eta bortitzei muzin eginez, modu berean, gizonen mesprezioa bereganatzen duten alferriko legeek beren doilorkeria itsasten diote lege osasuntsuenei ere, gainditu beharreko oztopo gisa ikusten baitira, onura publikoaren ondare baino gehiago. Hau dela eta, gure sentimenduak mugatuak badirenez, lehen esan dugun bezala, gizakiak zenbat eta miresmen handiagoa legez kanpoko gauzei, orduan eta txikiagoa izango diote legeei eurei. Irizpide hauetan oinarrituta, zenbait ondorio atera dezake zorion publikoaren banatzaile zuhurrak, baina hauek azaltzen hasiko banintz, urrunegi geratuko litzaidake nire esku arteko gaia, estatua espetxe bihurtzea alferrikoa dela frogatzea, hain zuzen. Alferrikoa da era honetako legeak jartzea, zeren eta oztopo gaidiezinek edo itsaso zeharkaezinek ez badute lortu lurralde bi elkarrengandik bereiztea, nola itxiko dira zirkunferentzia

bateko puntu guztiak, eta nola zainduko zaintzaileak? Ezinezkoa da dena aldean eraman duena zigortzea, egindakoa egin eta gero. Delitu honi ezin zaio zigorrik ezarri behin eginda gero; eta aurretik zigortzea gizonaren asmoa zigortzea da, eta ez beren ekintza, asmoan agindu nahi izatea da, gizonen legeek aginpiderik ez duten pertsonaren alderdi hain libre horretan. Iheslaria honek utzi dituen ondasunetan zigortzeak (prebarikazio erraz eta ezinbestekoa, bestalde, itunak tiranizatu gabe saihestu ezin dena) nazioen arteko merkataritza guztia hondatuko luke. Erruztatua itzultzen denean zigortu nahi izateak, bestalde, gizarteari egindako kaltea konpondu ezin izatea ekarriko luke, ausentzia betiko izango bailitzateke. Herri batetik irteteko debekuak handitu egiten du nazio bateko hiritarren irteteko gogoa, eta barrura ez sartzeko abisua da kanpotarrentzat.

Zer pentsatu behar dugu, haurtzaroko lehen oroitzapenetik bere aberriari lotuta dauden gizonak barruan edukitzeko beldurraz gain beste bitartekorik ez duen gobernu batez? Hiritarrak aberrian finkatzeko modurik seguruena bakoitzaren ongizatea handitzea da. Salerosketako balantzea gure alde egon dadin edozein ahalegin bidezkoa den bezala, nazioaren eta soberanoaren interesa da bere herriko zorionen batuketa inguruko nazioetakoa baino handiagoa izatea. Luxuaren atseginak ez dira zorion honen elementu garrantzitsuenak, nahiz eta desberdintasunaren aurkako beharrezko erremedioak izan, desberdintasuna handitu egiten baita nazioa aurreratu ahala, eta banaketarik gabe aberastasunak esku bakar batean geratuko bailirateke. Nazio baten mugak bertako biztanleria baino gehiago hazten diren lekuan, luxuak despotismoari laguntzen dio, gizonak zenbat eta gutxiago izan, orduan eta txikiagoa delako produkzioa, eta handiagoa txirotasunak handikeriarekiko duen menpekotasuna, eta zailagoa eta beldurgarriagoa zapalduak zapaltzailearen kontra biltzea, zeren eta losintxak, karguak, bereizpenak, morrontzak, indartsuaren eta ahularen arteko distantzia handitzen duten gauzak, alegia, errazago lortzen baitituzte gutxi batzuek askok

baino, gizonak, zenbat eta gutxiago begiratuak izan, orduan eta independenteagoak baitira, eta zenbat eta gehiago izan, orduan eta gutxiago begiratuak. Baina biztanleria mugak baino gehiago hasten den lekuan, luxuak aurre egiten dio despotismoari, hark gizakiaren lana eta produkzioa bultzatzen dituelako, eta halabeharrak nahitaez atsegin eta erosotasun gehiegi eskaintzen dizkiolako aberatsari, herriarengan menpekotasun-sentimena handituko luketen nabarmenkeriek lekua har dezaten. Horregatik ikus daiteke estatu zabal, ahul eta biztanle gutxikoetan, beste gorabehera batzuk ez badira tarteko, nabarmenkeria-gogoia nagusitzen zaiola erosotasunari. Baina, handiak ez izan arren, biztanle askokoak diren estatuetan, luxu gogoia nagusitu egiten zaio nabarmenkeriarako joerari. Baina atseginen salerosketek eta luxuen trukaketek arazo hau dute: nahiz eta hauek askoren erditik igaro, gutxiren artean sortzen direla, eta gutxiren artean bukatzen, eta bakarrik banaka batzuek dastatzen dituztela modu oparoan, eta, hau dela eta, miseria sentimendua ez dela desagertzen, eta honen jatorria gehiago dela konparaketa errealtatea baino. Baina legeek soil-soilik mugatutako segurtasunak eta libertateak osatzen dute bakarrik zorionaren oinarri nagusia; legeak indartsu daudenean, atseginak eta luxuak biztanleriaren zerbitzura egon ohi dira, eta ez daudenean, atseginak tiraniaren tresna izaten dira. Landa oparo eta alaiak gizon maltzuraren esku utziz, basapiztia jatorrenak eta txori librearenak baso ibilietako bakardaderantz urruntzen diren bezala, berdin-berdin ihes egiten die gizonak atseguinei, tiraniak partitzen dituenen.

Baita frogatua geratu da alferrikoa eta injustua dela hiritarra bere herrian preso eukitzen duen legea. Eta gauza bera esan behar buru-hilketaren zigorrak. Izan ere, nahiz eta Jainkoak zigortzen duen hobena izan, hilda gero bakarrik zigor daitekeelako, gizonen aurrean ez da delitua, zigorra, errudunaren gainera erori beharrean, haren familiaren gainera erortzen delako. Norbaitek argudiatuko balu zigor honek norbait atzera dezakeela bere bura hiltzetik, nik zera erantzungo nioke: bizi-

tzaren opariari lasai asko uko egiten dionak, bere izatea gorrotatzen duenak eternitate dohakabea nahiago izateraino, ez duela beldur handirik izango bere seme-alaba edo senideei noizbait gerta dakiekeenarengatik.

XXXIII

Kontrabandoak

Kontrabandoa soberanoa eta nazioa iraintzen dituen benetako delitua da, baina honen zigorrak ez du ospe txar emalea izan behar; izan ere, egiten denean ez du ospe txarrik sortzen iritzi publikoan. Norbaitek zigor ospe txar-emaleak ezartzen badizkie gizakiak halakotzat jotzen ez dituen delituei, ospe txarra gutxitu egiten die benetan merezi dutenei. Norbaitek badakus heriotza-zigor berbera ezartzen zaiola faisana hiltzen duenari, gizona erailtzen duenari edo idazki inportante bat faltsutzen duenari, ez du inolako bereizketarik egingo hiru delituon artean, eta modu horretan ezereztu egingo dira sentimendu moralak, mende asko eta odol ugari kostatako ondasun horiek, gizakiaren gogoan oso poliki eta neke askorekin sortutakoak, jaiotzeko eragile gorenaren laguntza behar izan zutenak, formazko tresneria handiarekin batera.

Delitu honek legean bertan du sorlekua; izan ere, zerga handitu ahala, handitu egiten baita onura, eta kontrabandoan aritzeko tentazioa, eta aritzeko erraztasuna areagotu egiten da zaindu beharreko zirkunferentzia handitzen eta kontrabandogaia gutxitzen den neurrian. Oso zigor justua da jenero debekatua eta gainontzekoak galtzea, baina zerga txikiagoa balitz eraginkorragoa izango litzateke, gauza jakina baita gizonek ahalegina arrakastatsu suertatuz gero izango luketen onuraren arabera arriskatzen dutela.

Baina zergatik ez du delitu honek fama txarrik ematen, printzeari, eta, beraz, nazioari berari, egindako lapurreta iza-

nik? Zera esanez erantzungo dut: gizonak gaiztakeria jakin bat ez dela beraren aurkakoa pentsatzen badu, ez da saiatuko egilearen kontrako haserre publikoa pizten. Horrelakoa da kontrabandoa. Urruneko ondorioek oso eragin ahula dute gizon batzuengan, ez dute ikusten kontrabandotik etor dakiekeen gaitza, aitzitik, ahal badute, momentuko onurez gozatzen dute maiz. Honelakoek ez dute printzeari egiten zaion kaltea besterik ikusten; horregatik, ez dute inolako asmorik izaten kontrabandistari beren adiskidetasuna ukatzeko; bai, oster, lapurreta pribatu bat egiten duenari, idatzi bat faltsutzen duenari, edo gertatzen diren beste kalte batzuen egileei. Gauza jakina da, izaki sentikor oro, ezagutzen dituen gaitzez bakarrik arduratzen dela.

Baina zigorrik gabe utzi behar al da honelako delitu bat, egileak zer galdurik ez duenean? Ez. Badira zergaren izaerari dagozkion kontrabandoak, eta edozein legeria jatorretan zerga hain oinarritzkoa eta nekeza denez, mota honetako delitu batek ganorazko zigorra merezi du, espetxea ere bai, morrontza ere bai; baina delituaren izaeraren neurriko espetxea eta morrontza. Esate baterako, tabako-kontrabandistaren espetxeratzea ezin da izan sikarioarena edo lapurrarena bezalakoa; lehenak iruzurtu duen alor berean zerbitzu-lanak eginez zuritu behar du delitua, hau zigorraren izaerarekin hobeto dator eta.

XXXIV

Zordunez

Kontratuen fede onak eta merkataritzaren segurtasunak legegilea behartu egiten dute hartzekoduna zordun iruzurgilea-rengandik babestera, baina premiazkoa iruditzen zait iruzurgile maltzurra eta iruzurgile errugabea bereiztea; lehenengoari, diru faltsutzaileari ezartzen zaion zigor berbera ezarri beharko litzaioke, zeren eta hiritarren betebeharren berme den metal zati landua faltsutzea ez baita betebeharrak eurak faltsutzea

baino delitu handiagoa. Baina ikerketa zorrotz batek frogatzen badu inoren gaiztakeriak, edo inoren ezbeharrak, edo gizonaren zuhurtziak saihestu ezindako ezustekoek kendu dizkiotela bere ondasunak, zergatik jaurti behar da iruzurgile errugabea espetxe batera, zein arrazoi basati dela medio, gelditzen zaion ondasun bakar eta tristea ere kentzen zaiolarik, askatasuna, alegia? Errudunaren oinazeak dastatu beharko ditu, eta, agian, bere jatortasuna irainduta ikusteak sortzen dion etsipenak bere inozentziaz damutzeraz eramango du, jabetzen delarik lehenago lasai bizi zela legeen babesean; nahi gabe hautsi zituen legeak, boteretsuek diru-gosez ezarritako legeak, ahulek jasan behar izaten dituztenak, beti ere gizonaren gogo gainean tantaka erortzen den itxaropenaren laguntzarekin, zeinek gertakizun kaltegarriak besterentzat izango direla sinestarazten digun, eta mesedegarriak, osteraz, norberarentzat! Legerik ankerrenak maite dituzte bere sentimendu azalekoenen mende bizi diren gizonak, nahiz eta, beren menpe egonik, ahalik eta bigunenak izatea interesatuko litzaiokeen bakoitzari, handiagoa baita norbera samindua izateko beldurra, norberak norbait samintzeko gogoia baino. Errugabe iruzurgilearengana itzuliz, nik diot, saihestezina dela guztia ordaintzeko duen obligazioa; eragotzi ahal izango zaio, interesatuen baimenik gabe ere, hartutako obligazioari ihes eginez, beste lege-esparru batera alde egitea, bere lanarekin jarraitzera; lan eginez eta argi jokatzuz, bere zordunei ordaintzen saiatu beharko du; baina merkataritzaren segurtasuna eta ondasunen jabetza sakratua ez dira aitzakia izango askatasun gabetzea justifikatzeko, hau alferrikoa izaten baita ia beti, non eta, esklabotzaren nekeekin, zordun ustez errugaberen batek bere isilpeko sekretuak argitzen ez dituen, gauza oso arraroa ikerketa sakona egin bada! Nik legegintzaren oinarritzat daukat honakoa: arazo politikoen balioa arrazoi konposatuan dagoela kalte publikoaren zuzenarekin, eta arrazoi alderantzizkoan egiaztatzeko¹⁵ inprobabilitatearekin. Bereiz daitezke iruzurra eta erru larria, erru larria eta txikia, eta hau eta errugabetasun osoa, eta lehenengoari faltsutze delituen

zigorrak ezar dakizkioke, bigarrenari txikiagoak, baina askatasuna kenduz, eta azkenari bergizarteratzeko bitartekoak auke-ratzeko eskubidea utzi, hirugarrenari hori egiteko libertatea kendu, eta hartzekodunei eman. Larriaren eta txikiaren arteko bereizketak lege itsu eta inpartzialaren esku utzi behar dira, eta ez epaileen zuhurtzia arriskutsu eta arbitrarioaren iritzira. Mugak jartzea beharrezkoa da politikan zein matematikan, onura publikoa neurtzerakoan zein tamainak neurtzerakoan¹⁶.

Legegile jatorrak zein erraz eragotz lezakeen porrot erru-dun asko eta asko, eta zorigaitzak saihestu errugabe saiatuari! Kontratu guztiak publikoki erregistra daitezela, hiritar guztiek izan dezatela eskubide agiri ondo ordenatuak kontsultatzeko, banku publikoa sor dadila, salerosketa dohatsuari zuhur ezarri-tako zergez elikatuko dena, eta bere bazkide datekeen errugabe zoritxarrekoari behar den diru-kopuruarekin lagunduko diona; ez legoke honetarako inolako arazorik, eta onura ugari etor dai-teke. Baina lege errazak behar dira, sinpleak, lege handiak, nazioaren baitan oparotasuna eta sendotasuna zabal dezaten legegilearen keinua besterik behar ez dutenak, belaunaldiz belaunaldi gorazarre kantutxuz hilezkorrez laudatuko diren legeak; honelako legeak izaten dira ezezagunenak edota gutxien maita-tuenak. Espiritu urduria eta huskerietara emana, unean unekoa besterik ikusten ez duen zuhurtasun beldurtia, zurruntasun fidakaitza berrikuntzei aurre egiteko orduan, honelako senti-menduak nagusitzen dira gizaki kaxkarron jarduna eta bizimo-dua bideratzeko eta konpontzeko ahalmena dutenen bihotzetan.

XXXV

Babesak

Bi kontu geratzen zaizkit oraindik aztertzeko: lehe-nengoa, ea babesak justuak diren, eta ea nazioek erruztatuak

beren artean trukatzeko dituzten hitzarmenak egokiak diren. Herri baten mugen barruan ez litzateke legeetatik libratzen den txokorik egon behar. Legearen indarrak hiritar orori jarraitu behar lioke, zein itzalak gorputzari. Inpunitatearen eta kanpoko babesaren artean ez dago alde handirik. Eta zigorraren eragina bere indarrean baino gehiago berarekin ezinbestean topo egitean dagoenez, babesak delituen hauspotzaile bihurtzen dira, legeak oztopatzaile diren baino neurri handiagoan. Babeslekuak ugaritzea beste hainbeste burujabetza txiki sortzea da, zeren eta agintzen ez duten legeak dauden lekuan, lege komunen aurkako lege berriak sor baitaitezke, eta baita gizartearen gorputz osoaren aurkako espiritua ere. Historia guztiek erakusten dute babeslekuetatik iraultza handiak sortu direla estatuetan eta gizonen iritzietan. Baina ea egokia den erruztatuak nazioen artean trukatzea galdetzen bazait, ez naiz galdera honek aurkezten duen auzia erabakitzea ausartzen, harik eta gizadiaren beharrei hobeto egokitutako legeak jartzen ez diren arte, zigor bigunagoak, alegia, eta, iritzia eta bidegabekeriarekiko menpekotasuna etenik, errugabetasun zapaldua eta bertute gorrotatua arriskuan jartzen ez diren arte; tirania Asiako lautada zabaletara igortzen ez den bitartean, eta kentzen arrazoï unibertsaletik, honek beti batzen baititu hiritarren eta tronuaren interesak, nahiz eta oso ondo dakigun benetako delituak barkatuko dituen lur puxketa bat ere ezin aurkitu izana oso bitarteko eraginkorra izango zela delituari aurre egiteko.

XXXVI

Hilketa-sariaz

Beste kontua da ea egokia den errudun baten buruari salneurria jartzea, hiritar baten eskua armatuz eta hura borre-

ro bihurtuz. Erruztatua mugen kanpoan edo barruan egon daiteke: lehenengo kasuan, soberanoak delitua egitera bultzatzen eta oinazera arriskatzen ditu hiritarrak; horrela, iraina eta aginte lapurreta egiten du inoren esparruan eta, aldi berean, beste nazio batzuei baimena ematen zaie gauza bera egin dezaten bere lurretan; bigarrenean, bere ahultasuna erakusten du. Defendatzeko indarra duenak ez du indar hori erosten. Gainera, era honetako ediktu batek hankazgora jartzen ditu moralaren eta bertutearen ideia guztiak, hauek haize bolada txiki bat nahikoa izaten baitute gizakiaren gogotik hegan egiteko. Batean, legeak traizioa hauspotzen du, bestean, zigortu egiten du. Legegileak esku batekin familiako, senitarteko eta adiskide arteko lokarriak estutzen ditu; bestearekin saritu egiten du lokarriak eteten eta zatitzen dituen. Beti bere buruarekin kontraesanean, batean konfiantza izatera gonbidatzen ditu gizonen gogo susmariak, bestean konfiantza falta ereiten du bihotz guztietan. Delitu bat saihestu ordez beste bat eragiten du. Hauek dira nazio ahulen ezaugarriak, hauek nazio ahulen legeak, alde guztietatik jausten ari den eraikin bati eginiko konponketa azkarrrak. Nazio batean jende argia gehitu ahala, fede ona eta elkarrenganako konfiantza behar-beharrezkoak egiten dira, eta gero eta gehiago nahasten dira benetako politikarekin. Itxurakeriak, azpikeriak, bide ilun eta okerrak, saihestu egiten dira gehienetan, eta gehiengoaren sentiberatasuna norbanakoarenaren gainera jarri ohi da. Ezjakintasun aroko mendeak eurak ere, moral publikoa moral pribatuari men egitera behartutako garaiak, jakinduria eta esperientzia-iturri dira mende argituentzat. Baina traizioa saritzen eta isilpeko gerra hauspotzen duten legeak, hiritarren artean elkarrenganako susmoa ereiten dutenak, moralaren eta politikaren artean hain beharrezkoa den batasunaren aurkakoak dira, kontuan izan behar baitugu honi zor diotela gizonek beren zoriona, nazioek bakea, eta unibertsoak, ohiko zoritxarren artean, lasaitasun eta atseden une luzeagoak.

XXXVII

Atentatuak, konplizeak eta inpunitatea

Nahiz eta legeek ez duten intentzioa zigortzen, honek ez du esan nahi intentzizko delitu batek, aurrera eramateko asmoarekin abiatzen bada, zigorrik merezi ez duenik, nahiz eta txikiagoa delitua bera burutuz gero baino. Atentatua saihesteak duen inportantziak baimentzen du zigorra. Baina atentatuaren eta zigorraren artean tarte bat egon daitekeenez, burututako delituari dagokion zigorrik handiena emateak bide eman diezaioke damuari. Gauza bera gertatzen da delitu batean konplize bat baino gehiago denean, eta ez denak egile zuzenak, baina beste arrazoi batengatik. Zenbat eta gizaki gehiago elkartu ekintza arriskutsu batean, zenbat eta arriskua handiagoa eta denentzat antzerakoa izan, orduan eta zailagoa izango dute ekintza burutzeko prest dagoena aurkitzea, honek beste konplizeek baino arrisku handiagoa hartuko lukeelako. Salbuespen bakarra, burutzaileari saria izendatuko balitzaio; arrisku handiagoaren truke ordaina jasoko duenez gero, zigorrak berdina izan beharko luke. Gogoeta hauek metafisikoegiak irudituko zaizkio legeak delitukideei ahalik eta adostasun-arrazoi gutxien eskaini behar diela pentsatzen jarri ez denari.

Epaimahai batzuek inpunitatea eskaintzen diote delitu larri baten konplizeari, honek bere lagunak salatzen baditu. Honelako jokabide batek bere alde onak eta txarrak ditu. Alderdi txarra, nazioak traizioa baimentzen duela, gaizkileen artean ere begi txarrez ikusia dagoena; izan ere, nazio batentzat kaltegarriagoak dira doilorkeriazko delituak kemenezkoak baino, azken hauek ez baitira oso maiz gertatzen, eta, gainera, indar onbera batek onura publikoaren bidean jar ditzake; baina doilorkeriazkoak ohikoagoak eta itsaskorragoak dira, eta bere baitan bildu zaleagoak. Gainera, epaimahaiak legearen ahulezia agerian uzten du lege-hauslearen laguntza erregutzen duenean. Abantaila hauek ditu, bestalde: delitu garrantzitsuak aurreikus-

tea eta, ondorioak agerian jarritz eta egileak isilean edukiz, herria beldurtzea. Honek zera uzten du garbi: legeari federik ez dionak, arlo publikoari alegia, ez diola, ziur asko, pribatuari izango. Iruditzen zait lege orokor batek, kasu jakin batean, delitu baten konplize salatariari inpunitatea aginduko balio, hobe izango litzatekeela hau edozein deklarazio berezi baino; horrela, elkartasuna hautsiz, konplizeak elkarren beldur izango liratekeelako, eta bakoitzak bere buruarengan baino ez lukeelako itxaropenik izango. Epaimahaiak ez ditu ausart bihurtuko gaizkileak, hauek, kasu jakin bat argitzeko, beren laguntza eskatzen dela ikusten dutenean. Honelako lege batek, gainera, salatzailearen inpunitatearekin batera, honen erbesteratzea ekarri behar luke... Baina alferrik saiatuko naiz sentitzen dudak kontzientzia ausikiari ezikusi egiten, baldin eta traizioa eta azpikeria baimentzen baditut lege sakratuetan, jendearen arteko konfiantzaren eta giza moralaren monumentu diren legeetan. Zer nolako eredia emango litzaioke nazioari baldin eta, agindutako inpunitateari huts eginez, burubide bihurriak bitarteko direla, fede publikoaren lotsarako, oinazera eramango balitz legearen gonbitari erantzun diona! Nazioetan ez dira gutxi honelako kasuak, eta beraz, ez dira gutxi pentsatzen dutenak nazioa makina konplikatua dela, eta trebeenak eta boteretsuenak mugitzen dituztela honen mekanismoak, euren gogoak ematen dien moduan; uzkur eta bihozgogor dira anima samur eta maitagarrien gozotasuna suposatzen duen guztiarenganako, eta, jendearen animak musikoek beren tresnak bezala ukituz, azerikeria ikasiz astitzen dituzte sentimendurik kutunenak eta grinarik bortitzenak, baldin eta ondo badatorkie beren helburuak lortzeko.

XXXVIII

Itaunketa iradokitzaileak, adierazpenak

Gure legeek debekatu egiten dituzte *iradokitzaileak* deituriko itaunketak epaiketetan: hauek, doktoreen arabera,

delitu baten inguruan, generoaz beharrean espezieaz galdetzen dutenak dira; delituarekin zerikusi zuzena dutelarik, erruztatuari bat-bateko erantzuna *iradokitzen* diotenak, alegia. Itaunketek, kriminalisten arabera, espiralean garatu behar dute gertakizuna, nolabait esateko, baina sekula ez zuzen-zuzenean. Metodo hau zeragatik erabiltzen da, salaketari zirkin egingo dion erantzunen bat ez *iradokitze*ko erruztatuari, edota, agian, naturaren kontrakoa dirudielako akusatuak bere burua bat-batean salatzea. Arrazoia bietatik edozein delarik ere, begibistakoa da kontraesan handia dela, tortura baimentzen duten legeak egotea, ohitura honekin batera. Izan ere, zein galdeketa *iradokitzaile*agorik oinazea baino? Lehenengo arrazoia torturaren orduan baieztatzen da, oinazeak kementsuari isiltasun tematia *iradokiko* diolako, zigor handiaren ordeztatikia jaso nahiz, eta ahulari, oster, aitorpena, momentuko oinazea saihesteko, honentzat hau garrantzitsuagoa izango baita etorkizuneko mina baino. Bigarren arrazoia ere berdina da, zeren eta erruztatu bati zuzenbide naturalaren aurkako itaunketa *berezi* batek aitortu eragiten badio, oinazeek askoz ere errazago eragingo baitiote. Baina gizakia gehiago gidatzen du izenaren desberdintasunak, izanarenarenak baino. Gramatikaren beste hainbat gehiegikeriaren artean (hauek eragin handia izan dute gizonen arazoetan), nabarmena da dagoeneko kondenatuta dagoen erruztatu baten adierazpenak balio gabe bihurtzen dituen hura; halako *zibilki hilda* dago, esaten dute seriozki legegizon peripatetikoek, eta *hildako* bat ez da ezer egiteko gauza. Biktima asko sakrifikatu da metafora hutsal honi eusteko, eta oso sarri eztabaidatu izan da ea egiak atzera egin behar duen auzi formulen aurrean. Kondenatutako erruztatu baten adierazpenek ez badute justiziaren martxa atzeratzen, zergatik ez eman, baita zigorra emanda gero ere, kondenatuaren miseria gorriari eta egiaren interesei leku egoki bat, gertakizunaren izaera aldatzen duten gauza berriak argudiatzen badira, eta aukera bat eskaini erruztatuari epaiketa berri batean bere burua edo besteena zuritu ahal izateko? Itxurak eta zeremoniak beha-

rrezkoak dira justiziaren administrazioan, ez delako ezer utzi behar administratzailearen iritzira, epaiketa egonkor eta arautuaren irudia eman behar zaiolako herriari, eta ez zaratatsu eta interesatuarena, ohituraren jarratzaile eta morroi den gizakia-
rentzat zirrarak eragingarriagoak baitira arrazoiketak baino. Baina zirrarak ezin dira, arrisku handia hartu gabe, legeen bidez gauzatu, egiari kalte egingo liokeelako, egiak, sinpleegia edo nahasiegia izan ohi denez, kanpoko itxurakeriaren beharra baitu herri ezjakinaren begientzat. Azkenik, ikerketa orduan egiten zaizkion itaunei erantzutera ukatzen denak legeak ezartzen duen zigorra merezi du, beren arteko zigorrik handiena, gizakiak ezin diolako horrela zirkin egin gizarteari zor dion etsenplu beharrari. Zigor hau ez da beharrezkoa, argi eta garbi dagoenean akusatu batek delitu jakin bat egin duela; itaunke-
tak alferrikoak dira, delituaren aitorpena alferrikoa den bezala, beste froga batzuek baieztatzen dutenean erruduntasuna. Azkenengo kasu hau da ohikoena, esperientziak erakusten bai-
tigu erruztatuek ezetzari eusten diotela auzi gehienetan.

XXXIX

Delitu mota berezi batzuez

Idatzi hau irakurtzen duen edonor konturatuko da alde batera utzi ditudala Europa odolez estali duten delitu mota batzuk; su lazgarriak iziotu dira, bizirik zeuden giza gorputzak garren elikagai bihurtu dira; ikuskizun gozatsua eta harmonia atsegina jendetza itsuarentzat, ke beltzaren ertzetatik irteten ziren intziri sorgor eta larriak entzutea, giza atalen kea, eta erretzen dauden hezurren krakada, artean pilpiraka ari diren erraiak frijitzen ari diren bitartean. Baina zentzuneko gizonak ulertuko du lekuak, mendeak eta gaiak ez didatela uzten hone-
lako delitu baten izaera aztertzen. Luzeegia eta nire gaitik lan-
dakoa litzateke frogatzea zergatik den beharrezkoa estatu bate-

an pentsakera berdina eta bakarra izatea, nazio askotako ereduaren kontra. Zer dela eta elkarren oso desberdintasun lauso eta txikia duten iritziek (giza adimenak aldea ezin atzemateko beste) kolokan jar dezakete onura publikoa, ideia bati lehentasuna ematen ez bazaio, bederen, besteen kaltean. Izan ere, iritzien izaera honelakoa da: iritzi batzuk, elkarrekin borroka eginenez eta irakinez, argitu egiten dira, eta azaleratu egiten dira benetakoak, faltsuak ahazturan urperatzen diren bitartean; eta beste iritzi batzuek, beren buruaz konfiantza gutxi dutenak beren biluztasunagatik, indarraren agintez jantzi behar izaten dute. Luzeegia litzateke frogatzea zein gorrotagarria den giza gogoaren gaineko indarraren nagusigoa, honen lorpen bakarra azpikeria eta, beraz, doilorkeria baita; eta zein muturtua dagoen arrazoiak eta aginteak gidatzen duen, eta guk ezinbestekoa ikusten eta izugarri estimatzen dugun apaltasun eta anaitasun espirituarekin. Esandako guztia garbi frogatuta dagoela eta gizakiaren benetako interesen aldekoa dela sinetsi behar da, baldin eta norbait aginpide aitortuarekin badago hau guztia aurrera eramateko prest. Ni giza naturatik eta gizarte-hitzarmentetik sortzen diren delituez bakarrik mintzo naiz, eta ez bekatuez, zeintzuen zigorrak, baita mundu honetakoak ere, filosofia mugatu honen esparruetatik at dauden irizpideekin arautu behar diren.

XL

Komenigarritasun-idea okerrak

Hutsegite eta bidegabekeria iturri oparoa dira legegileek sortzen dituzten komenigarritasunari buruzko ideia okerrak. Komenigarritasun ideia okerrak dira arazo partikularrari arazo orokorrari baino garrantzi handiagoa ematen diotenak; sentimenduen gainean agindu egiten dutenak, eragin beharrean; logika morroitzat erabiltzen dutenak. Komenigarritasun

ideia okerra da benetako mila onura sakrifikatzea ustezko edo inportantzia gutxiko kalte bakar batengatik, gizakiari sua kentzea erre egiten duelako, edo ura busti egiten duelako, kalteak konpontzeko gauzak desegitea. Era honetakoak dira armak eramatea debekatzen duten legeak. Hauek deliturako asmorik eta joerarik gabeko jendea desarmatzen dute bakarrik; baina gizadiaren lege sakratuenak eta legeriako garrantzitsuenak hausteko ausardia duten haiek, nola errespetatuko dituzte lege apal eta zentzugabeenak, jakinda zein errazak eta zigor gabekak gertatuko zaizkien lege-hausteok, eta jakinda legeok zehatz errespetatzeak gizakiaren askatasun pertsonalaren galera dakarrela, gizakiak maite-maitea duen gauza berau, eta legegile argituak ere bai; horrela, errugabeen gainera erortzen dira errudunentzat behar luketen irain guztiak. Lege hauek txartu egiten dute erasotuen egoera eta hobetu erasotzaileena; hilketak, gutxitu beharrean, gehitu egiten dituzte, errazagoa baita desarmatuak erasotzea armatuak baino. Lege hauei buruz ezin da delituen aurreikusle direnik esan, delituei beldurra dietela baizik; gertaera jakin batzuek eragiten duten zirrara zalapartatsuetatik sortzen dira, eta ez dekretu unibertsal baten desegokitasun eta onurei buruzko gogoeta sakon eta zentzuzko batetik. Komenigarritasun ideia faltsua da izaki sentikorren multzoari materia landugabe eta bizigabearen simetria eta ordena berbera eman nahi izateaa, unean uneko zergatiak kontuan hartu gabe, hauek bakarrik direlarik zinez eta indarrez jendearen eragina dutenak; eta, honen orde, urrutiko zergatiei indarra ematea, hauen oroitzapena oso laburra eta ahula izaten dela jakinda, baldin eta gizadiarengan ezohikoa den indar irudimentsu batek ez badu bere boterearekin objekturainoko distantzia gainditzen. Azkenik, komenigarritasun-ideia faltsua da, izena izanaren aurretik jarritz, onura publikoa eta gizabanako bakoitzaren onura ezberdintzen dituen. Bada ezberdintasun bat egoera naturalaren eta gizarte-egoeraren artean: gizon basatiak ez dio inori kalterik egiten bere buruaren probetxurako ez bada, baina lege txarrek besteei gaitz egitera daramate

sarri gizon gizarteratua, bere buruari mesede egin gabe. Despotak beldurra eta unadura botatzen ditu bere esklaboen bizkarrera, baina haiek txanpon bera itzultzen diotelarik, kemen handiagoz bueltatzen da beren animoak jipoitzera. Beldurra zenbat eta bakarkakoagoa eta etxeokoagoa izan, orduan eta arrisku gutxiagokoa da bere zorionaren tresna egin duenarentzat; baina zenbat eta publikoagoa izan eta gizon multzo handiagoa astindu, orduan eta errazagoa da kaskarinak, edo desesperatuak, edo zuhur ausartak, beldurraz baliatuz, beste gizonak beren mesederako erabili nahi izatea; eginkizunaren arriskua zenbat eta jende gehiagoren bizkar joan, orduan eta sentimendu atsegin eta liluragarriagoak pizten baitira gizonengan; izan ere, dohakabeak bere izateari ematen dion balioa gutxitu egiten da sufritzen duen miseriaren neurrian. Arrazoi honengatik, irainek beste irain batzuk ekartzen dituzte; izan ere, gorrotoa maitasuna baino sentimendu iraunkorragoa da, ekintzen jarraipenak indartu egiten baitu lehena, bigarrena ahuldu egiten duen bitartean.

XLI

Nola aurreikusten diren delituak

Hobe da delituak aurreikustea zigortzea baino. Hau da legeria onaren helburu nagusia. Gizona zorion handienara edo ahalik eta zorigaitz txikienera eramateko artea da legeria onaren funtsa, bitzitzan izan daitezkeen gauza on eta txar guztiak kontutan hartuta. Baina orain arte horretarako erabili diren bitartekoak okerrak eta helburuaren aurkakoak izan dira gehienetan. Ezin da gizonen jarduera istilutsua ordena geometriko batera mugatu, arazorik eta nahasketarik gabe. Naturako lege txit iraunkor eta soilek planetak beren mugimenduetan desbi-deratzea eragotzi ezin duten bezala, gizonen legeek ezin dute eragotzi nahasmendua eta bidegabekeria atseginaren eta oina-

zearen erakarmen kontaezin eta kontrajarrietan. Eta hau izaten da gizaki buru-laburren begitazioa agintea eskuetan hartzen dutenean. Garrantzirik gabeko ekintza mordoa debekatzea ez da delituak aurreikusteko bidea, delitu berriak sortzekoa baizik; hori bertutea eta bizioa norberaren iritzira definitzea da, hauek aldaezinak eta eternoak direla esan zaigunean. Zenbateraino murriztuko ginateke deliturako bide den guztia debekatuko balitzaigu? Bere zentzuak erabiltzea eragotzi beharko litzaioke gizonari. Delitu bat egitera bultzatzen duen eragile bakoitzeko, mila dira lege txarrek delitu deiturikoak, ekintza garrantzirik gabeak eginarazten dituztenak. Eta delituen probabilitatea eragile kopuruaren araberakoa bada, delituak egiteko probabilitatea handitu egingo da haun esparrua zabaltzen bada. Lege gehienak pribilegioak besterik ez dira, hots, denek ipintzen duten ordain-saria, gutxi batzuen onerako.

Delituak aurreikusi nahi dituzuela? Saiatu lege argiak eta errazak egiten, eta nazioaren indar guztia bildu haien defentsan, eta honen parte batek ere ez dezala jardun haiek desegiten. Saiatu legeak mesedegarriagoak izan daitezen gizakiarentzat giza mailentzat baino. Saiatu gizakiak beldur izan diezaien eurei, eta eurei bakarrik. Legeei beldur izatea osasuntsua da, baina oso kaltegarria eta delitu sortzailea gizakiak gizakiari izatea. Gizon esklaboak gizon libreak baino gutiziatuagoak dira, lizunagoak, ankerragoak. Hauek zientziei buruzko gogoetak egiten dituzte, edo nazioaren interesei buruz; eredu bikainak ikusten dituzte, eta imitatzen saiatzen dira; baina haiek, momentuko pozak erakarrita, libertinajearen nahaste artean bilatu nahi izaten dute beren bizimoduaren ezezezak ukatzen dien olgeta. Edozertan arrakasta lortzeko neke handiak jasatera ohituta daudenez, bere delituen arrakasta arazotsua izan ohi eurentzat, eta, honengatik, hura lortzeko grina handitu egiten da. Legeen zehaztasun-falta eguraldiaren eraginez berez nagia den nazio baten gainera erortzen bada, zehaztasun falta honek iraunarazi eta handitu egingo ditu nagikeria

eta inozokeria. Nazio gutiziatsu baina langile baten gainera erortzen bada, legeen indarra alferrik galduko da, azpikeria eta amarru txiki mordo baten artean, eta mesfidantza zabalduko da bihotz guztietan, eta saldukeria eta disimulua zuhurtasunaren oinarri bihurtuko da. Nazio adoretzu eta indartsu baten gainera erortzen bada, zehaztasun falta gainditzea lortuko da azkenean, askatasunetik esklabotzara eta esklabotzatik askatasunera atzera-aurrera asko egin ondoren.

XLII

Zientziez

Delituak saihestu nahi dituzue? Ahalegindu argiak askatasunari lagun egin diezaion. Jakintzak zenbat eta gehiago hedatu, orduan eta txikiagoak izango dira beraiegandik sortzen diren gaitzak, eta handiagoak onurak. Iruzurgile ausart batek (beti jende berezia izaten da) herri ezjakinaren miresmena eta argituaren ikusiezina izango du. Jakintzak gauzen erkaketa errazten du, eta ikuspegi asko alderatzen direlarik, sentimendu asko konparatzen da elkarrekin; sentimenduok aldatuz joan ohi dira, besteek ere ikuspegi berberak eta zantzak berberak dituztela ikusten denean, batik bat. Nazioan eurrez zabaldua dauden argien aurrean, isildu egiten da ezjakintasun gezurtia, eta dardaraz jartzen arrazoiaren armarik ez duen aginteak, eta legearen indar kementsuak tinko jarraitzen du aurrera. Izan ere, ez dago gizon argiturik, segurtasun komunaren hitzarmen ageriko, argi eta egokiak maite ez dituenik, konparatzen duenean berak sakrifikatu duen libertatearen zati txiki eta ezdeusa beste gizon guztiek sakrifikatu duten libertate guztien baturarekin, ondo baitaki, legerik ez balitz, besteek bere kontra konspira dezaketela. Anima sentibera batek ondo egindako legeen kode bati begiratzen dionean, eta besteri gaitz egiteko askatasuna besterik ez duela galdu

jabetzen denean, tronua eta bere okupatzailea bedeinkatu egin beharko ditu.

Ez da egia zientziak beti kaltegarriak direla gizadiarentzat; eta izango balira ere, ezinbesteko gaitza izango luke gizakiak. Giza generoa lur gainean ugaritzeak gerra ekarri zuen, eta arterik maltzurrenak, eta lehenengo legeak, unean uneko itunak, alegia, sortu ziren, beharrarekin jaio eta harekin batera hiltzen zirenak. Hau izan zen gizakiaren lehen filosofia, eta bere osagai apurrak zuzenak ziren, moteltasunak eta argitasun-faltak hutsegiteetatik babesten zituelako. Baina beharrak ugaritu egin ziren gizakia ugaritu ahala. Beharrezkoak ziren, beraz, zirrara gogorrangoak eta iraunkorrangoak, lehengo egoera basatira itzultzea eragotziko zutenak, ez baitzen horrelakorik komeni inondik inora. Gizadiari mesede handia egin zioten lurra jainko faltsuz jantzi zuten lehen hutsegite haiek (mesede politikoa esan nahi dut), gure gizartearen arautzaile den unibertso ikustezin bat sortu zutelako. Mesede handia egin zioten gizakiari, honen ezjakintasun otzana harritzea eta altaretara eramatea lortu zutelako. Zentzumenak baino haratago dauden gauzak ikusarazi zituzkion, berak nahita ere atzeman ezindakoak, ezin gorrotatu zituenak aski ezagunak ez zituelako, eta erakargarri zitzaion gauza bakar batean elkartu zituen grina sakabanatuak. Hauek izan ziren herri basatietatik sortutako nazio guztien lehenengo arazoak, hau izan zen gizarte handia sortu zeneko garaia, eta hau izan zen lokarri nahitaezkoa, eta, agian, bakarra. Ez naiz ari Jainkoak aukeratu zuen herri hartaz, zeinetan miraririk harrigarrienak eta graziaz nabarmenenak hartu baitzuten giza politikaren lekua. Baina hutsegitearen ezaugarrietarik bat infinitora arteko zatiketak egitea denez, jaio ziren zientziekitsu multzo fanatikoa bihurtu zuten gizakia, labirinto itxi batean elkarri bultzaka eta tiraka zebilena, hainbeste, non zenbait anima sentibera eta filosofikok urrutiminez oroitzen baitzuen antzinako egoera basati hura. Hona hemen

lehen garaia, zeinetan jakintzak, iritziak, hobeto esanda, kaltegarriak diren.

Bigarren garaian, hutsegiteetatik egiara, ilunpe ezezaguetik argira dagoen pasabide nekez eta beldurgarria igaro behar zen. Boteredun banaka batzuei ondo datozkien hutsegi-teak ahul askoren egia egokiekin talka indartsua egiten dute-nean, eta horrelakoetan esnatzen diren grinak irakiten hasten direnean, kalte ikaragarriak etortzen dira gizadi errukarriarentzat. Historiak aztertzen dituen edonork (urruntasun apur batez aztertuz gero, antza izaten dute garai inportanteenetan) behin baino gehiagotan aurkituko du bere ondorengoen zorionaren alde sakrifikatutako belaunaldi oso bat, ezjakintasunaren ilunpetik filosofiaren argira egin beharreko igarobide tamalgarri baina beharrezkoan ibilitakoa, tiraniatik askatasunerako bidean sakrifikatutakoa. Baina animoak sosegatzen eta nazioaren gaitz zanpatzaileak garbitu dituen sua itzaltzen denean, egia, hasieran poliki-poliki ibili ondoren, monarken tronuen gainean esertzen da eta gurtua izaten errepubliketako parlamentuetako altareetan; nork esan ahalgo du orduan, jendea argitzen duen argia ilunpea baino kaltegarriagoa dela, eta gizakiak ongi ezagutzen dituen gauzen arteko harreman egiazko eta errezek gaitz egiten diotela? Ezjakintasun itsua sasijakinduria bezain kaltegarria ez bada ere (honek, lehenaren gaitzez gain, ikuspegi labur eta egiatik urrunaren hutsegite saihestezinak baititu) gizon argitua da soberanoak nazioari eta bere buruari egin diezaiokeen oparirik zoragarriena, lege santuen banatzaile eta zaintzaile bihurtzen duena. Egiari, beldur izan beharrean, aurrez aurre begiratzen ikasia, hain asegaitza den iritziaren morrontza gehienetatik urrun, gizadia ikuspegi altuagoetatik ikusten ohituta, honen aurrean aberria anai-arreben familia bihurtzen da, eta horregatik gizon handi hauen eta herriaren arteko tarte txikiagoa da begi aurrean duen gizateria handiagoa den neurri berean. Filosofoek jende arruntak ezagutzen ez dituen betebeharrak eta helburuak dituzte; esate baterako, eta,

batez ere, jende aurrean ezkutuan defendatzen diren irizpideak ez ezeztatzea, eta horrela egia egia delako maitatzen ikasten dute. Horrelako gizaki sorta batek osatzen du nazioaren zoriona, baina zorion laburra izango da baldin eta legeek ez badute pertsona hauen kopurua handitzen, horrela hautu txar bat egi-teko aukera beti handia txikituko egingo delako.

XLIII

Magistratuak

Delituak saihesteko beste modu bat: legeak gauzatzen dituen kontseilua emanagoa izan dadila legeak betearaztera, ustelkeriara baino. Kontseiluak zenbat eta kide gehiago izan, orduan eta nekezagoa izango da legeei iruzur egitea, erosketak zailagoak direlako elkar zaintzen duten kideen artean, eta bakoitzak bere agintea areagotzeko interes gutxiago izango duelako, bakoitzari egokituko litzaiokeen zatia txikiagoa den neurrian, batez ere horretarako egin beharreko langintzaren arriskua kontuan hartuta. Baldin eta soberanoak hiritarrak ohi-tzen baditu ospe eta arrandikeriara, aginduen zorroztasunera, eta zapaldua sentitzen denaren kereila zuzen zein okerrak baz-tertzera, hiritarrek legeei baino beldur handiagoa izango diete magistratuei, eta hauek segurtasun pribatu eta publikoari komeni zaiona baino gehiago baliatuko dira beldur honetaz.

XLIV

Sariak

Delituak saihesteko beste modu bat bertutea saritzea da. Gai honi buruz isiltasun unibertsala nabaritzen dut gaurko nazio guztietan. Akademiek egia onuragarrien aurkitzaileei eskainita-

ko sariak jakintzak eta liburu berriak ugaltu baldin badituzte, zergatik soberanoaren esku onberak banatutako sariak ez dituzte ekintza bertutetsuak ugaltuko? Ohorearen txanpona agortezina eta emankorra da banatzaile jakintsuaren eskuetan.

XLV

Heziketa

Azkenik, heziketa da delituak saihesteko biderik onena baina zailena; gai zabalegia eta nire esku arteko helburutik at dagoena, baina ausartuko naiz esaten honetan zerikusi handia duela gobernuaren izaerak, heziketa zorion publikoaren alor antzua izan ez dadin eta jakintsu gutxi batzuek han eta hemen bakarrik jorra ez dezaten mendeen bukaerara arte. Gizon handi batek¹⁷, gizadia argitzen ari den gizon batek, gizadiak bera erasotzen duen bitartean, zehatz-mehatz azaldu ditu heziketaren alorrean gizonarentzat zinez onuragarri diren irizpide nagusiak: gauza asko eta alferrikoen ordeztu, ondo eta zehatz aukeratuak erakustea; gauza orijinalak hobestea kopien ordeztu, hala-beharrak edo jardunak gazteen anima berriei aurkezten dieten agerkari fisiko zein moraletan; sentimenduaren bide errazetik jotzea bertuterantz, eta gaiztakeriatik urruntzea, arazoei ihes egin beharra azpimarratuz, hutsik egiten ez duen irakasbidea baita hau; eta ez erabiltzea derrigortzearen bide badaezpada-koa, honek momentuko men egitea besterik ez baitu ekartzen.

XLVI

Barkamenaz

Zigorrak zenbat eta bigunago, orduan eta erruki eta barkamenak alferrikoago. Zoriontsua hauek kaltegarritzat jotzen

dituen nazioa! Errukia, beraz, noiz edo noiz soberanoarentzat tronuko beteharren bertute osagarria izan ohi dena, baztertu egin beharko litzateke zigor biguneko eta epaibide ondo arautu eta garbiko legeria perfektu batean. Egia hau gogorra egingo zaio sistema kriminalaren bidegabekeria bizi denari, non barkamen eta graziak beharrezkoak diren lege zentzugabeen eta zigor ankerren neurri berean. Hau da tronuaren eskubiderik handiena, hau soberanotasunaren ezaugarririk kutunena, eta hau zorion publikoaren banatzaileek legeriari egiten dioten laido isila, legeriak, azken batean, bere akats guztiekin, mendeetako bermea baitu bere alde, iritzi-emale ugariren lan zabal eta ikaragarria, betiko formalitateen tresneria astuna, eta sasi-jakintsu kalakari eta gaitzbakoen atxikimendua. Baina errukia legegilearen bertutea dela esaten da, eta ez legeen gauzatzailearena; legerian egin behar duela distira, eta ez epaiketa partikularretan; delituak barka daitezkeela erakustea, zigorra ez dela nahitaezko ondorioa, alegia, inpunitatearen laudorioa egitea da, eta sinestaraztea barkatzen ez diren zigorrak indarraren bortxakeriak direla justiziaren ondorio baino gehiago. Zer esango da gero printzeak norbaiti barkamena ematen dionean, segurtasun publikoa, alegia, eta, onberatasun argitu gabekoz, ekintza pribatu baten bidez inpunitate dekretu publiko bat osatzen duenean. Legeak izan daitezela, beraz, tinkoak, eta tinkoak haien gauzatzaileak kasu bakoitzean, baina legegilea izan dadila gozoa, errukitsua, gizalegekoa. Izan dadila arkitekto jakintsua, eraiki dezala bere etxea maitasunaren oinarri gainean, eta interes orokorrak izan daitezela bakoitzaren interes, eta orduan ez da une oroz behartua sentituko, lege partzialekin eta erremedio istilutsuekin, onura publikoa bakoitzaren onuratik bereiztera, eta ongizate publikoaren itxurakeria beldurraren eta mesfidantzaren gainean eraikitza. Filosofo sakon eta sentibera, utz iezaiezue gizonei, zuen anai-arrebei, beren zoriontasun zatitxo bakean gozatzen, lehen Eragileak sortutako sistema bikainak unibertsoaren bazter honetan gozatzen uzten dien zatitxo hori.

XLVII

Ondorioa

Gogoeta batekin amaituko dut: zigorraren tamaina nazioak berak bizi duen egoeraren neurrikoa izan behar du. Gogorrangoak eta sentigarriagoak izan beharko dute egoera basatitik irten berriko herri baten animo zailduetan eragin beharreko zirrarak. Oinaztarria behar da fusil-tiro batek zaurituta utzi duen lehoi basatia hiltzeko. Baina gizarte-egoeran, animak samurtuz doazen neurrian, hazi egiten da sentiberatasuna, eta hau hazten denean leundu egin behar da zigorraren indarra, objektuaren eta sentipenaren arteko oreka modu iraunkorrean zaindu nahi bada. Orain arte ikusitakotik teorema orokor bat atera daiteke, oso egokia, baina gutxi erabilia; honela dio: *zigor batek, baten edo askoren artean hiritar jakin bati egindako bortxakeria izan ez dadin, publikoa izan behar du, batez ere; eta azkarra, eta beharrezkoa, eta egoera jakin horretan eman daitekeen txikiena, eta delituen neurrikoa, eta legeek ezarritakoa.*

Oharrak

¹ Beccariak Bacon-en pentsamen-duaz zuen ezagutza zabala eta filosofo ingelesari zion miresmena nabarmen geratzen dira filosofo milandarrak 1763 aldera idatzi zuen kuaderno lodi batean, zeinetan agertzen diren Baconen *Dedignitate et augmentis scientiarum*, *Novum organum* eta beste lan txikiago batzuetatik jasotako oharrak (ik. C. A. Vianello, *La vita el'opera di Cesare Beccaria*, Milano 1938, 246. orr. eta hurrengoak). Liburuaren epigrafe gisa aukeraturako esaldia *De officio iudicis* izenburua duen XLV. saioko azken hitzak dira, zein *Sermones fideles ethici, politici, oeconomici, sive interiora rerum*, Lugduni Batavorum, 1641, liburuan aurkitzen den, 227. orrialdean. Hau Baconen *Essays or Counsels civil and mor al*-en latinezko itzulpenaren edizioarik osoena da. 1908an New Yorken M. A. Scott-ek egindako *Essays*-en edizioan, saiakera honek XLII. zenbakia darama eta *On negotiating* izenburua du (225. orr. eta hurrengoak). Beccariak aukeratutako esaldiak doinu hau du orijinallean: «In all negociations of difficulty, a man may not look to sow on reap at once; but must pre-

pare bussines, and so ripen it by degrees». Epigrafe honen esanahiaz, ikus «Gazette littéraire de l'Europe» 1766ko otsailaren 15a, 29 zk., 428. orr.: «Cet éloquent philosophe [Beccaria] connoit trop bien l'esprit humain et surtout l'esprit de son siècle, la force des préjugés qu'il attaque et l'insuffisance des armes qu'il emploie pour s'être flatté que son livre produiroit dans la jurisprudence criminelle de l'Europe la réforme qu'il désire; il sait trop bien que les vérités nouvelles germent lentement, que le temps et les circonstances peuvent seuls achever leur maturité et hâter leur développement. C'est ce qu'il annoncé lui même en prenant pour épigraphe de son livre ce beau passage de Bacon».

² *Duda hamabi mende Konstantinoplan agintzen zuen printze batek...* Zuzenbide erromatarraren aurkako eztabaida, Giustiniano enperadorearen kontrakoa, eta ertaroko interpreteen kontrakoa, oinarritzkoa da Beccariarengan, eta oso zabaldua zegoen Italian XVIII. mendean.

³ *Carpzovio*: Benedict Carpzov (1595-1666), luterandarra, XVII.

mendeko zuzenbide alemaneko aditurik handiena. Bere *Practica nova imperialis Saxonica rerum crimina - lium* da entzutetsuena.

⁴ *Giulio Claro*-k, alessandriarra (1525-1575), legelari ezaguna, *Receptae sententiae* obra idatzi zuen bost liburutan; bosgarrena gai kriminalez ari da. Honek zabalkunde handia izan zuen, eta eragin sakona B. Carpzoven ideietan; ik E. von Moeller, *Julius Clarus aus Alessandria*, Breslau 1911.

⁵ *Farinaccio*: Prospero Farinaccio (1544-1618), legelari eta abokatu erromatarra, XVIII. menderarte oinarritzkoa izan zen *Praxis et theoria criminalis* bere obragatik famatua.

⁶ Ferdinando Fachinei elizgizonaren *Note ed osservazioni sul libro intitolato Dei delitti e delle pene*, Venezia 1765, idatziaren aurka atera ziren Pietro eta Alessandro Verri beren *Risposta ad uno scritto che s'intitola: Note ed osservazioni sul libro "Dei delitti e delle pene"*, 1765. Beccariaren liburua- ren defentsa trebe eta malgu hone- tan, sbiranoei orokorrean eta Maria Teresari partikularrean erakutsi nahi zaie fanatismoaren aurkako borroka bateragarria dela ezarrita- ko botere zibilei, monarkei eta estatuei zor zaien errespetuarekin. Fac hinei aitak zera idatzi zuen, adibidez: «egileak pentsatzen du bateraezinak direla erlijioa eta estatu baten gobernu ona», eta esa- ten du «erlijioak ez duela batere eraginik estatuetan». Polemistok aukera ona izan zuten zera komen- tatzeko: «bi salaketa hauek elkar

desegiten dute». Fachinei aitak zera idatzen zuen: «egilea Gorenaren benetako etsaia da». Verritarrek zera esanarazi zioten Beccariari: «barkatzeko erregutzen dizut, bihotz-bihotzez, Jauna, irain- tzen nauenari «; eta horrela hoge- i bat salaketa eta erantzun gurutzatu ziren erlijio gaietan. «Sedizio sala- keta»ri dagokionean, berriz, eran- tzunaren bigarren parte osoa honen aurka egiteko idatzia da, kri- tikarako eta «independentzia- espiriturako» eskubidea aldarrika- tzen dutelarik, hori bai, aldi berean garaiko soberanoak laudatuz, beren argitasun eta gizatasunagatik.

⁷ Montesquieuk zigor-legeei buruz- ko ideiak bere *Esprit des loix*-en azaldu zituen, batez ere IV. liburuko II. atalean: *De la simplicité des loix criminelles dans les divers gouver- nemens*; eta IX. atalean: *De la sévé- rité des peines dans les divers gou- vernemens*; eta XII. atalean: *De la puissance des peines*; eta XVI. ata- lean: *De la juste proportion des pei- nes avec le crime*; eta XVII.lean: *De la torture ou question contre les cri- minels*; XII. liburua, IV. ataletik XXII.era. Bereziki inportanteak ziren IV. atala: *Que la liberté est favorisée par la nature des peines et leur proportion*, eta IV. a: *De la mauvaise application du nom de crime de sacrilège et de lesé-majés- té*, eta XXI. a: *De la cruauté des loix envers les débiteurs dans la république*. Montesquieu eta Beccariaren arteko harremanak oso estuak izan ziren. Honi buruz 1765eko otsailaren 13ko «Gazette littéraire de l'Europe»k bere 301.

orrian eta hurrengoetan dakarrena irakurtzea komeni da: «... Persuadé que Montesquieu, sur cet article, n'a fait que laisser entrevoir son opinion, il [Beccaria] s'est chargé de soin de la développer et ne craint pas d'affirmer que son traité n'est autre chose qu'une explication claire et précise des sentiments de l'immortel auteur de *l'Esprit des lois*. On assure cependant qu'il marche bien moins sur les traces de ce grand homme que sur celles du fameux citoyen de Genève. Son ouvrage, dit-on, n'est qu'un recueil des principales maximes du *Contrat social*, appliquées par l'auteur à son sujet et digérées à sa manière...». Ez da zalantzarik, beraz, obra honetan Rousseauaren presentzia Montesquieurena bezain nabarmena eta indartsua dela.

⁸ Montesquieuk bere *l'Esprit des lois*-en modu askotara azaltzen duen pentsamentu hau, XII. liburuko IV. atalean aurkitzen da, adibidez: «C'est le triomphe de la liberté lorsque les lois criminelles tirent chaque peine de la nature particulière du crime. Tout l'arbitraire cesse, la pene ne descend point du caprice du législateur, mais de la nature de la chose et ce n'est point l'homme qui fait violence à l'homme».

⁹ Kriminalistek, zenbat eta delitua basatiagoa, orduan eta sinesgarritasun handiagoa ematen diete testigantzei. Hona hemen ergelkeriarik ankerrenak predikatzen dituen axioma: «In atrocissimis leviores coniecturae sufficiunt, et licet iudicia iura transgredi». Hizkuntza arrunte-ra itzuli, eta europarrok ikusiko dute

zer nolako erabaki arrazoitsuen menpe dauden, euren ezjakinean: «Delitu ankerrenetan, gutxien gertatzen direneta, alegia, aztarnarik txikiak ere balio du, eta zilegi zaio epaileari zuzenbidea gainditzea». Beldurrak, gizonen kontraesan iturri nagusiak, eragiten ditu gehienetan legeriaren jokaera bidegabeak. Errugaberen bat zigortzeko beldurra dute legegileek (heriotza emateko baimena duten legelariak dena erabakitzeko eskubidea dute, eskribau interesatu eta dirupeko izatetik gizonen ondasunen arbitro eta legegile izatera pasatu dira), eta legeria zamatzen dute gehiegizko itxurakeria eta salbuespenez, hainbeste, ezen, dena zehatz bete behar izango balitz, inpuniate anarkikoa eseriko bailitzateke justiziaren tronu gainean. Zenbait delitu anker eta frogatzeko zailek sartu dien beldurragatik, euren ezarritako itxurak ere ez dituzte zaintzen, eta horrela, urduritasun despotikoz eta eme-astropalaz, epaiketa serioak joko bihurtzen dituzte, zeinetan zoria eta azpikeria diren figura nagusi. (*Beccariaren oharra*).

¹⁰ik. *Esprit des lois*, VI. liburua, VII. atala: *Des accusations dans les divers gouvernemens*, non irakurtzen den: «A Rome il étoit permis à un citoyen d'en accuser un autre. Cela étoit établi selon l'esprit de la république, où chaque citoyen doit avoir, pour le bien public, un zèle sans bornes, où chaque citoyen est censé tenir tous les droits de la patrie dans les mains... Nous avons aujourd'hui une loi admirable, c'est celle qui veut que le prince, établi

pour fair exécuter les loix, prépose un officier dans chaque tribunal pour poursuivre en son nom tous les crimes...». Montesquieu kontzeptu hauek guztiak hartzen ditu berriro XII. liburuan, XX. atalean: *Des loix favorables à la liberté du citoyen dans la république*.

¹¹*Common law* ingelesak ez zuen inoiz onartu *Magna Charta*-k zein *Bill of Rights*-ek debekatzen zuten tortura. Legelari ingelesak beti agertu ziren torturaren kontra, nahiz eta noiz edo noiz, eta kasu bereziren batean, erabili, *Star Chamber* famatuan, adibidez, eta kasu batean, *Commonwealth* garaian. *Zigor gogor eta indartsua* izeneko tortura mota, auzitegi normalek beren epaitzeko eskubidea onartzen ez, eta mutu geratzen ziren akusatuekin inoiz erabiltzen zutena, 1726an ezabatu zen betiko.

¹²Tortura 1734 aldera desuseztatu zen Suedian delitu arruntei dagokionean, baina delitu politikoekin oso modu ankerrean erabili zen aurretanzean ere «Arrosen Ganbara» deiturioan: «dans un trou creusé au fond d'un cachot souterrain et rempli d'une bourbe infecte on plongeait jusqu'au cou la victime. La froidure des eaux y étoit insupportable, des milliers d'insectes s'attachaient à toutes les parties du corps et les dévoraient». A Geoffroy, *Gustave III et la Cour de France*, Paris 1867, I, 23. orr. «Arrosen Ganbara» 1756an hasi zen erabiltzen, Suediako tronuaren kontrola nahi zuten bi aldeen arteko borrokak zirela eta, eta ez zen desagertu 1772an Gustavo III.ak desegin zuen

arte. Hala ere, 1773ko maiatzeko «L'Europa letteraria»k, III. aleko 83. orrialdean, *Traité des délits et des peines*, Paris, 1773, frantseseko itzulpenaren erreseina egiterakoan, esaten du errege berriak, Gustavo III.ak alegia, ez duela bere aitaren erreformei jarraitu baino egin, baita «Arrosen ganbara» ezabatzeari zegokionean ere. Litekeena da Adolfo Federiko, Suediako errege Beccariak idatzi zuen garaian, merezi baino distira handiagoz ezagutua izatea Italian, eta Beccariaren aipua fama horren jarraitzaile izatea.

¹³Federico II.a Prusiako erregeak, Voltaireren eta *philosopho* frantziarren miresleak, tortura ezabatu zuen tronura igo zenean, 1740an.

¹⁴Elisabetta Petrova (1709-1761) 1745eko azaroaren 25eko estatu kolpearen ondoren egin zen erregina. Esaten denez, bere erregetza-denboran heriotza-zigorrik ez onartzeko botoa egin zuen une hartan, eta bi dekretu jarri zituen indarrean, 1753ko ekainaren 18koa eta 1754ko irailaren 30ekoa. Baina ondorengo urteak ikertu zituztenak berehala konturatu ziren heriotza-zigorren ordez zigor askoz ere ankerragoak ezartzen zirela, sarri kondenatuen heriotza ekartzen zutenak. *Knut*-arekin jotzen zituzten, eta sudurra errotik ateratzen zieten, bekoki eta okotz gainean marko bat ipini ondoren. Askok hil egiten ziren eta bizirik irten zena Siberiara eramaten zuten, gehienetan, lan derrigortuak egitera. Beccariak Elisabetta Petrovari eskaini zizkion laudorioek bultzatu zuten M. M. Scerbakov idazle eta historialaria, *Dei delitti e delle pene* libu-

ruaren errusierako itzultzaileetarik o bat, enperatriz honen zigor-legeria ezbaian jartzera eta honen ustezko balioak ukatzera.

¹⁵ Esaldi ulergaitz hau honela errazten zuen Morellet-ek bere frantseseko itzulpenean, eta ez arrazoi gabe: «C'est, à mon avis, une maxime de législation que l'importance des inconvénients politiques de l'impunité d'un crime est en raison directe des dommages que le crime cause à la société et en raison inverse de la difficulté qu'on éprouve à le constater» (lehen edizioiko 216. orr.).

¹⁶ Merkataritzaren eta ondasunen jabetza ez dira gizarte-hitzarmenaren helburuak, baina gizarte-hitzarmena hauek lortzeko bide izan daiteke. Gizarteko kide guztiak hain erraz sor daitezkeen gaitzetara arriskatzea, helburuak bitartekoen

mende jartzea litzateke, eta hau arrazoiketa faltsua da edozein zientzian, politikan, batez ere. Eta zulo honetan erori nintzen ni ere liburu honen aurreko edizioetan, non esaten bainuen zordun errugabeak hartzekodunen zaintzapean egon behar zuela bere zorren berme gisa, edo esklabo bezala lan eragin behar ziotela. Horrelako gauza bat idatzi izanaren lotsa naiz. Erlijiorik eza aurpegiratu zidaten, eta ez nuen merezi. Sedizioa aurpegiratu zidaten, eta ez nuen merezi. Gizadiaren eskubideak iraindu nituen, eta inork ez zidan aurpegiratu. (Beccariaren oharra. Bigarren gehiketa).

¹⁷ Jean-Jacques Rousseau da, noski. Honen *Emile* 1762an agertu zen, Beccaria bere liburua prestatzen ari zelarik. Aita santuak hurrengo urteko urriaren 6an kondenatu zuen liburua.

VOLTAIRE

«Delituez eta Zigorrez» liburuari buruzko iruzkinak, probintzia- -abokatu batek eginak (1763)¹

1. atala. Iruzkin hauen zergatia.

Delituez eta Zigorrez liburua pozarren irakurtzen ari nintzelarik, pentsatzen nuen liburu hau moral alorrean, medikuntza alorrean gure gaitzen aringarri izaten diren sendabide bakanen berdintsua zela. Liburu honek oraindik nazio askoren legedietan nagusi den basakeria bigunduko zuela esaten nion neure buruari. Giza generoak hoberantz egingo zuela espero nuen, eta hor non, probintzia batean hamazortzi urteko neskagazte bat urkatu zuten berria heldu zen nire belarrietara, neska ederra eta airosa, oso buru argikoa, familia jatorreko alaba.

Ume bat egiten uztea izan da bere delitua. Eta, are gehiago, bere maitasunaren fruitua abandonatzea. Gazte koitadu hau erdiminak harrapatu zuen, gurasoen etxetik ihesi. Inoren laguntzarik gabe, bakarrik izan zuen haurra iturri baten ondoan. Lotsak, sexu-kontuetan grina bortitza izan ohi denak, bere gurasoen etxera itzultzeko eta bere egoera ezkutatzeko adorea eman zion. Utzitako lekuan, hilda aurkitu zuten haurra hurrengo egunean; ama nor zen jakin zuten, urkamendira kondenatu zuten, eta epaia bete zen.

Gazte honen lehen hutsegitea, edo familiaren sekretuak ezkutatu behar zuen, edo legeek babestu behar zuten; izan ere, seduzitzaileari dagokio bakarrik berak sortu duen kaltea konpontzea, ahultasunak barkamenerako eskubidea ematen baitu, dena gazte honen alde mintzatzen baita, begibistakoa baita haurdunaldiak orban ezabaezina itsasten diola neskaren izen onari, eta haurra hazi ezina beste zortxar bat gehiago dela.

Bigarren hutsegitea askoz ere kriminalagoa da: bere ahultasunaren fruitua abandonatzea eta hiltzeko arriskuan jartzea.

Baina, ume bat hil delako, amak ere hil egin behar al du horregatik? Berak ez zuen hil, eta pentsatu zuen bidaztiren batek ume errugabe horren errukia izango zuela; umearen bila itzuli eta beharrezko arretak eskaintzeko asmoa ere izan zezakeen. Hau ama ororen bihotzari egotzi behar diogun berezko sentimendua da. Neskaren aurkako legea ulergarria da aipaturiko probintzia horretan. Baina ez al da injustua, bihozgabea eta kaltegarria lege hau? Injustua, bere umea hiltzen duena eta abandonatzen duena bereizten ez dakielako; bihozgabea, bere zoritxarra ezkutatu, beste errurik ez duen dohakabea ankerki erailtzen duelako; kaltegarria, gizarteari beste hiritar batzuk eman behar zizkion hiritarra lapurtzen diolako Estatuari, biztanleria txikia duela kexatzen den probintzia batean.

Karitateak ez du oraindik ezer ez dutenei jaten emateko errukietxerik sortu herri honetan. Karitaterik ez dagoen lekuan legea beti da ankerra. Askoz ere egokiagoa litzateke ohikoak diren ezbehar hauek saihesten ahalegintzea, zigortzea baino. Delituak saihesten dituen da benetako legedia, eta ez sexu ahulari heriotza damaiona, nabarmena denean ez duela gaiztakeriagatik egin bere hutsegitea, eta, gainera, garesti samar ordaindu behar izan duela.

Bilatu, ahal duzuen hobekien, konponbideren bat gaizki jokatzten dutenentzat, eta zer zigortu gutxiago izango duzue.

2. atala. Torturez,

Nire sentiberatasuna hunkitu duen zoritxar honek batetik eta lege hain anker honek, bestetik, nazioetako legeria kriminalei begirada batzera eraman naute. *Delituez eta Zigorrez*-en egile bihozberak arrazoi osoa du kexuz esaten duenean zigorra krimena baino gogorragoa izaten dela askotan, eta Estatuarentzat kaltegarria ez gutxitan, jakin dakigunean honen helburu bakarra bere buruaren mesedea izan behar dela.

Heriotza beldurgarri bihurtzeko giza adimenak asmatu dituen oinaze finek gehiago dirudite tiraniaren obra, justiziarena baino.

Gurpilaren oinazea anarkia garaian sartu zen Alemanian, pribilegioen jabe egiten zirenek beldurra sartu nahi izan ziotenean beren aurka jartzen zen edonori, oinaze ikaragarri baten mehatxuaz. Ingalaterran, lesa maiestateko traizioa gertatzen zenean, egotzitakoari sabela ireki, bihotza atera eta berarekin ezpainak igurzten zitzaizkion; gero sutara botatzen zen. Baina zein zen askotan lesa maiestateko krimen hori? Bere soberanoari leial izatea guda zibilen garaian, eta, inoiz, garbiegi mintzatzea irabazlearen eskubideak zalantzan jarritz. Dena den, ohiturak bigundu egin dira. Kriminalari bihotza kentzen zaio oraindik ere, baina, hori bai, hil ondoren. Antzezpena izugarria da, baina heriotza gozoa, heriotza gozorik bada.

3. atala. Heretikoen aurkako zigorrer.

Heriotza-zigorra tiraniak aldarrikatu zuen lehendabizi, dogma kontu batzuetan eliza nagusiarekin bat ez zetozenen aurka erabiltzeko. Maximo² tiranoaren aurretik, enperadore kristauei ez zitzaien burutik pasatu ere egin inor oinazera kondenatzea egin ikuspegi desberdin batzuegatik. Egia da bi gotzain espainiarrek xaxatu zutela Maximo honek heriotzerai-

no jazar zitzan priszilianotarrak³, baina ez da egia txikiagoa alderdi nagusia pozik eduki nahi zuela Maximo tiranoak, heretikoen odola isuriz. Berdin zitzaion bidegabekeria zein justizia. Jeloskor zegoen Teodosiorekin, espainiarra hau ere, eta Sortaldeko inperioa kendu nahi zion hari, lehenago Sartaldekoa kendu zion bezala. Teodosiok jendearen higuina bereganatu zuen bere ankerkeriengatik, baina erlijio-buruak bere alde jartzen jakin zuen. Maximok ere hura bezain eraginkor agertu nahi zuen, horrela gotzai espainiarrak bere alderdira erakarri asmoz; helburu hau lortzeko, berdin laudatzen zuen erlijio zaharra zein berria. Garai hartan inperioa bilatu eta lortu zuten guztiak bezala, gizon faltsua bezain bihozgabea zen. Gaur egun Aljer dagoen bezala zegoen gobernatua Munduaren zati handi hau. Armagizonek ipini eta kentzen zituzten enperadoreak eta barbarotzat jotako nazioetatik ateratzen zituzten sarri. Teodosiok, orduan, Eszitiako beste barbaro batzuk jarri zizkion aurrean. Bera izan zen armadak godoz bete zituen, eta berak altxatu zuen Alariko, Erromako garailea. Nahaste-borraste honetan, denek beren alderdia indartzera jotzen zuten, bitarteko guztiak erabiliz.

Maximok Graziano enperadorea, Teodosioren laguna, erailarazi berri zuen Lyon-en; Maximo hau Valentino II.a, umetatik Grazianoren Erromako oinordeko izendatuta zegoena, nola hondatu asmatzen ari zen, eta galoz eta alemanez osatutako armada indartsu bat antolatzen Treverisen. Espainian ere guda-taldeak antolatu zituen: Idazio eta Itacus —edo Itazio— gotzain espainiarrak, garai hartako entzutetsuenak, Priszilianoren eta bere jarraitzaile guztien burua eskatzera etorri zitzaizkion, hauek arimak Jainkoaren jariora direla esaten baitzuten eta Trinitateak ez dituela hiru hipostasis, eta, hau aski ez balitz, bere sakrilegioa gailurreraino eramaten zuten igandetan barau eginez. Maximo —erdi-paganoa, erdi kristaua bera— berehala jabetu zen zein krimen ikaragarriak ziren honakoak. Idazio eta Itako gotzain santuek Prisziliano⁴ eta bere

jarraitzaileak torturara eramatea lortu zuten; erail baino lehen, dena gainbegiratzeko egon ziren, ordena osoan egin zedin, eta Jainkoa bedeinkatuz itzuli ziren, eta Maximo, fedearen babeslea, santuen mailan jarri zuten. Baina Teodosiok garaitu egin zuen Maximo, eta hil egin zuten gero irabazlearen oinetan, eta ez zuten kanonizatu.

Esan beharra dago San Martinek, Tours-eko gotzainak, gizon jatorra benetan, Priszilianoren barkazioa eskatu zuela; baina gotzaiek heresiaz salatu zuten bera ere, eta Toursera itzuli zen, Treverisen torturatuko zuten beldurrez. Priszilianori dagokionez, berriz, bere sektak martiritzat ohoratu zuen. Kontsolamendu hori izan zuen, bederen, urkatuta gero. Bere jaieguna ospatzen zen, eta oraindik ere ospatuko zen baldin eta priszilianotarren sektak bizirik iraun izan balu.

Gertakari honek ikara sortu zuen Eliza osoan, baina jarraitua izan zen laster, eta gainditua ere bai, ezpataz, sokaz eta harrika erail baitzen zenbait priszilianotar. Bordelen, igandez^a barau egin omen zuen dama gazte familia oneko bat harrika hiltzearekin konformatu ziren. Oinaze horiei makalegiak iritzi zieten; Jainkoak heretikoak su motelean erretzea exijitzen zuela frogatu zen. Arrazoi bete-bete bat ematen zen honetarako: Jainkoak hala zigortzen zituela beste munduan, eta printze oro, printze-orde oro eta, azken batean, magistratu oro Jainkoaren irudia zela lur gainean.

Irizpide honetan oinarrituta, erre zituzten aztiak zenbait lekutan, deabruaren mende baitzeuden nabarmen, eta heterodoxoak ere bai, aztiak baino gaiztoagozat joak.

Ez dakigu ziur zein heresia mota zen kanonigo haiena, Roberto erregeak, Hugoren semeak, eta bere emazte Konstantzak⁵ Orleansen erre zituen 1022an. Eta nola jakin dezakegu? Garai hartan oso apaiz eta fraile gutxi zekien idazten. Garbi dakigun gauza bakarra da Robertok eta bere emazteak ikuskizun nardagarri honekin ase zituztela beren begiak. Sektakide bat Konstantzaren aitorlea izana zen. Erregina honek

ez zuen heretiko batekin aitortu izanaren zoritxarra konpontze-ko erremedio hoberik aurkitu, sutan erretzen ikustea baino.

Usadioa lege bihurtzen da; eta ordutik orain arte, zazpi-rehun urtez, alegia, iritzi okerra izatearen krimena egin duten, edo itxura hori eman duten guztiak erre egin dira.

4. atala. Heresien erauzketaz.

Iruditzen zait beharrezkoa dela iritzia eta fakzioa bereiztea heresia batean. Kristautasunaren lehen garaietatik izan dira iritzi ezberdinak; Alexandriako kristauek eta Antiokiakoek ez zuten berdin pentsatzen puntu askotan. Akeoen eta asiarren ildoak elkarren aurka ere bazeuden. Aniztasun hau garai guztietan izan da, eta beti izango da, ziurrenik. Jesukristok, nahiz eta fededun guztiak pentsaera berdinerara biltzeko gaitasuna izan, ez zuen halakorik egin: pentsa daiteke, beraz, ez zuela nahi izan, eta bere helburua bere Eliza guztiak barkamenean eta karitatean hezitzea izan zela, buruzagi eta maisutzat zuten sistema ezberdin guztiei baimena emanez. Sekta hauek guztiak, enperadoreek toleratuak nahiz ezkutuan bizi zirenak, ezin zuten elkar jazarri, denak magistratu erromatarren menpe baitzeuden; lehiatu egin zezaketen bakarrik elkarrekin.

Magistratuek jazarri zituztenean, berezko eskubidea aldarrikatu zuten guztiek. Utz gaitzazue Jainkoa bakean gurtzen, ez iezaguzue judutarrei onartzen diezuen eskubidea kendu, esan zuten. Gaur egungo sekta guztiek ere gauza bera esan diezaiekete beren zapaltzaileei. Zera esan diezaiekete judutarrei onurak eman dizkieten herriei: trata gaitzazue Jakoben seme-alaba horiek tratatzen dituzuen bezala; utz gaitzazue Jainkoari otoitz egiten, horiei bezala, geure kontzientzien arabera. Gure iritzia ez dio judaismoak baino kalte handiagoa egiten zuen Estatuari. Jesukristoren etsaiak toleratzen dituzuenez, tolera gaitzazue gu ere, guk ere Jesukristo gurtzen baitugu eta huskeria teologikoetan bereizten baikara bakarrik

zuengandik; ez ezazue hiritar onuragarriarik alde batera utzi. Garrantzitsua da zuentzat hauek zuen lantegietan, zuen itsasontzietan, zuen baserrietan lan egitea; eta gutxi ardua dio zuenak bezalakoak ez diren fedegaiak dituzten ala ez. Beren besoak behar dituzue eta ez beren kateximak.

Fakzioa gauza guztiz ezberdina da. Beti gertatzen da, eta ezinbestez gainera, jazarritako sekta bat fakzio bihurtzen dela. Zapalduak bildu eta adoretu egiten dira. Beren alderdia indartzeko ahalmen handiagoa dute, sekta nagusiak euren desegiteko duena baino. Bietako bat, edo eurek txikitzen dituzte besteak, edo besteek txikitzen dituzte eurak. Hauxe bera gertatu zen Galerio zesarrak bultzatutako jazarpenaren ondoren, Dioklezianoren inperioaren azkenengo bi urteetan. Dioklezianok kristauen alde jokatu zuen hamazortzi urte luzez, eta hauek ugariegi eta aberatsegi egin ziren desegin ahal izateko: Konstantzio Klorori lagundu zioten; haren seme Konstantinoren alde borrokatu zuten, eta guztizko iraultza gertatu zen inperioan⁶.

Huskeriak gauza handienekin aldera daitezke, batzuk zein besteak espiritu berdinarekin zuzentzen direnean. Honelako iraultzak gertatu dira Holandan, Suitzan eta Eskozian. Fernando eta Isabelek judutarrak bidali zituzten Espainiatik, Espainian aspalditik errotuak zeuden judutarrak, ez bakarrik orduan tronuan zegoen familia baino lehenago, baita moroak eta godoak baino lehenago ere, eta kartagotarrak baino lehenago ere bai; judutarrek iraultza bat burutuko zuten Espainian, aberatsak bezain gudariak izan balira, edota arabeekin elkar hartzen jakin izan balute.

Hitz batean esanda, sekta batek ez du sekula gobernua aldatu, etsipenak armatu ez dituen arte. Mahomak berak ere ez zuen aurrera eramango bere langintza, baldin eta Mekara jaurti izan ez balute eta salneurria jarri haren buruari.

Nahi baldin baduzue, beraz, sekta batek Estatua ez nahastea, tolerantziaz jokatu; Alemania, Ingalaterra eta

Holandak duten jokabide zuhurrari jarraitu. Bi jokabide daude politikan sekta berri baten aurrean: kupida gabe sarraskitu buruzagiak eta jarraitzaileak, gizonak, andreak eta umeak, bat bera laga barik, edo toleratu, sekta handia denean; lehen jokabidea munstroarena da, bigarrena jakintsuarena.

Interesak lotu ditzala Estatuko hiritar guztien interesak: Kuakeroak eta turkiarrak ikus dezala zuen legepean bizitzeak zer nolako onurak dakartzan. Erlijioa Jainkoa-rengandik gizonarengana dator; lege zibila zuengandik zuen herriengana.

5. atala. Profanazioez.

Luis IX.a Frantziako erregeak, bere dohaiengatik santuen mailara jaso izan zenak, biraolarien aurkako legea ezarri zuen hasieran. Oinaze berri batera kondenatzen zituen: burdina gori batez zulatzen zitzaion mihia. Mendeku-modu bat zen; bekatu egindakoak zigorra jasaten zuen. Baina ez zen erraza zer zen birao eta zer ez zehaztea. Haserrealdi eta pozaldietan edo solas xume batean irten ohi diren esapide asko ez dira, zehaztasunez hitz eginda, indargarriak baino, hebreoen *sela y vah*, adibidez, edo latindarren *pol* edo *oepol*, edo hitzetik hortzera zioten *per deos immortales*, nahiz eta horregatik ez zuten beren jainko hilezkorrengatik zin egiten.

Zin egite edo biraotzat hartzen diren hitzak, norberak nahi duen moduan ulertzen diren hitz ilunak dira. Zigortzen dituen legeak judutarrenetik eratorria dirudi, zera dioen hartatik: «Ez duzu jainkoaren izena alferrik ahotan hartuko»⁷. Interpreterik trebeenak pentsatzen dute lege honek zin egite faltsua debekatzen duela, eta arrazoi dute; *alferrik* itzuli duten hitza *shavé* da, faltsuan zin egitea esan nahi duena, alegia. Baina, zein lotura dute zin egite faltsuek eta beste hitz hauek, gisa honetako esapideetan leunduta esaten direnak: *cadedis*, *cabo de Dios*, *sangh leu*, *ventrebleu*, *corbleu*, *corpo di dio*?

Judutarrek Jainkoaren bizitzagatik egiten zuten zin: *vivit Dominus*. Ohitura arrunta zen hau. Ez zegoen debekatua, baldin eta Jainkoaren izena lekuko ipintzen ez bazen gezurra esaten zenean.

Felipe Augustok 1181ean, *tetebleu, ventrebleu, corbleu, sangbleu* esaten zuten noble guztiak izun bat ordaintzera kondenatu zituen, eta herri xehea urkamendira. Agindu honen lehen parteak umekeria zirudien; bigarrena nazkagarria zen. Herritar xeheak urkatzea eta huts berdinagatik nobleak orduko bi edo hiru sosekin libratzea natura laidotzea zen. Lege hau, beste asko bezala, ez zen gauzatu, Celestino III.a aitasantuak eskumikatu egin baitzuen erregea, eta bere erregetza zalantzan jarri.

San Luisek, bere kemenak eramanda, hitz itsusi horiek esaten zutenei mihia zulatzea edo goiko ezpaina mozteka agindu zuen. Hau dela eta, Parisko hiritar aberats bat mihi gabe geratu zen, eta hau Inozentzio IV.a aitasantuaren aurrean kexatu zen. Aita santu honek garbi adierazi zion erregeari zigor hau gogorregia zela delitu horrentzat. Erregeak ez zuen handik aurrera gogorkeria hau gauzatu. Zoragarria izango zen gizartearentzat aitasantuek ez balute sekula bestelako nagusitasunik ezarri izan erregeen aurrean.

Luis XIV.aren 1666ko aginduak hau dio: «Jainkoaren izen santuaren, bere Ama txit santuaren, edo bere Santuen izenean zin edo birao egiten harrapatuak, izuna ordaindu beharko dute lehenengo aldian; bigarrenean, hirugarrenean eta laugarrenean, izun bikoitza, hirukoitza eta lauukoitza; bosgarrenean txingan lotuko dira; seigarrenean pikotan, eta goiko ezpaina moztuko zaie; seigarrenean mihia, ez gehiago eta ez gutxiago».

Lege honek zuhurra eta biguna dirudi. Ez du zigor ankerrik ezartzen seigarren erorialdira arte, eta pentsatzekoa da ezinezkoa dela horrelakorik gertatzea.

Profanazio handiagoen kasuan, *sakrilegio* deiturikoe-tan, legeria kriminalari buruzko gure bildumak, beren irizpi-deak legetzat hartu ezin direnak, elizetan egindako lapurre-tez mintzatzen dira bakarrik, eta ez dute lege positibo bakar bat ere aldarrikatzen, ezta su-zigorra ere; ez dira mintzatzen, ezta, jendeaurreko fedegabekeriez, agian ez zelako horrela-ko zorakeriarik aurreikusi, edota hauek zehaztea zailegia zelako. Epailleen iritzira geratzen da, beraz, delitu hauek zigortzea. Baina honek ez du, inolaz ere, irizkeriari bidea zabaldu behar.

Gertaera bitxi baten aurrean, zer egin behar dute epai-leek? Kontuan hartu behar dira delitugileen adina, delituaren izaera, gaiztakeria maila, sortutako eskandalua eta seta, eta baita jendeak zigor beldurgarri baten beharrik baduen ala ez. *Pro qualitate personae, proque rei conditione et temporis et aetatis et sexus, vel severius, vel clementius statuendum^b*. Legeak ez badu delitu honengatik heriotza ezartzen, zein epai-lek ikusiko du bere burua horretara behartua? Zigorra eman behar baldin bada, eta legeak ez badu ezer aurreikusten, epai-leak bigunena eman behar du, gizakia delako.

Gaspe alferrik galduek bakarrik egiten dituzte profana-zio sakrilegoak; beren anai-arrebak hil balituzte bezala zigortu behar al dituzue horregatik? Adina mintzo da beren alde. Ezin dituzte beren ondasunak erabili, uste delako beren zentzuna ez dagoela behar bezain heldua ekintza txar baten ondorioei igar-tzeko; era berean, bada, beren ekintza lotsagabearen ondorio-ak ikusteko ere ez dute behar hainbat argi izan.

Bere itsumenean irudi sakratu bat, lapurtu gabe, profa-natu duen gaspe alferrik galdua eta Brinvilliers anderea, bere aita eta bere familia pozoindu duena, berdin tratatuko al ditu-zue? Ez dago lege berezirik delitu honentzat, eta zuek bat egin-go al duzue oinazetik ankerrenak ezartzeko? Ereduzko zigorra merezi du, zalantzarik gabe, baina naturaren laido garri diren oinazeak eta heriotza lazgarria merezi al ditu?

Jainkoa iraindu du, bistan da; eta oso era larrian. Jokatu berarekin Jainkoak egingo lukeen bezala. Penitentzia eginez gero, Jainkoak barkatu egiten dio; jarri penitentzia gogorra eta barkatu egiozue.

Zuen Montesquieu jakitsuak zera esan du: «Ohoratu egin behar da Jainkoa eta ez mendekatu»⁸. Pisa ditzagun hitz hauek. Ez dute ordena publikoaren zainketa ahaztu behar denik esan nahi; esan nahi duten ez duela ez buru eta ez hanka, *Delituez eta zigorrez*-en egile zentzudunak esan duen bezala, zomorro batek Egile gorena mendeka dezakeela uste izateak. Herrixka bateko epailea, eta ezta hiri batekoa ere, ez da ez Moises eta ez Josue.

6. atala. Erromatarren biguntasuna gai honetan.

Europa guztiko gizon jator eta ikasien solasgaia izan ohi da honakoa, lege erromatarren eta haien ondorengoen ohitura basatien artean dagoen alde ikaragarria, alegia, hauek hiri handi baten hondakinen gainean sortutako anabasaren antzekotzat jotzen direlarik.

Erromako senatuak guk bezain errespetu sakona zion, zalantzarik gabe, Jainko gorenari, eta baita haren menpeko jainko hilezkor eta bigarren mailakoei ere, guk geure santuei diegun adinakoa, bederen.

Ab Jove principium...

Virg. *Buc*, III, 12

Formula arrunta zen hau. Pliniok dio, Trajano handiaren gorazarrea egiten duenean, Erromatarrek ez zituztela beren negozio eta hitzaldiak Jainkoa gogoratu gabe hasten. Zizeronek eta Tito Liviok gauza bera esaten dute. Eta ez da herri erlijiozaleagorik izan. Baina, hala ere, herri jakintsuegia

eta handiegia zen hitzaldi hutsalak edo iritzi filosofikoak zigortzera makurtzeko. Ez zen gauza beren iragarpenak zalan-tzan jartzen zituztenei oinaze basatiak ezartzeko; Zizeron bera aztia zen, eta zalantzak izaten zituen; bakean uzten ziren baita heriotzaren ondoren jainkoek ez zutela zigortzen esaten zutenak ere; Zesar, adibidez.

Mila aldiz esan da senatuak baimena eman zuela abes-batzak *Troada* kanta zezan Erromako teatroan:

Ezer ez dago heriotzaren ondoren, eta heriotza bera ere ez da ezer. Hildakoak non dauden galdetzen duzu? Jaio aurre-tik zeuden leku berean.

Inoiz profanaziorik izan bada, hona hemen bat, zalan-tzarik gabe; eta Enniotik Ausoniora⁹ arteko garaian dena da profanazio hutsa, nahiz eta kultua errespetatzen zen. Zergatik, orduan, senatuak ez zuen inor zigortzen? Ez zutelako inolako eraginik Estatuaren gobernuan; ez ziotelako inolako erakunde edo zeremonia erlijosori traba egiten. Eta honengatik erromatarrek ez zioten oso polizia ona edukitzeari edo munduaren zati ederrenaren jaun eta jabe izateari utzi, Teodosio II.a arte.

Senatuaren irizpidea, esan dugun bezala, honakoa zen: *Deorum offensae liis curae* (jainkoeiko irainak eurekin kon-pondu). Senatoreek, erakunde jakintsuenaren kide eta erlijioa-ren buru zirenak, ez zuten apaiz talde baten beldurrik, ezin zituzten talde horien mendekuaren zerbitzari bihurtu, zerua mendekatzen zuten aitzakian. Ez zuten esaten: desegin ditza-gun fedegabeak, gu geu fedegabetzat har ez gaitzatzen; era-kuts diezaiegun apaizei, gure ankerkeriaren bidez, eurak bezain fedetsuak garela.

Gure erlijioa antzinako erromatarrena baino santuagoa da. Fedegabekeria gure artean, haien artean baino krimen han-diagoa da. Zigortuko du Jainkoak; gizonei zera bakarrik dago-kie: fedegabekeria horrek eragindako ezbehar publikoak kri-minaletik duen hura zigortzea; ez besterik.

Baina fedegabekeria batean, ez bada zapi bat lapurtu, inork ez badu irain txikiena jaso, elizkizunak ez badira oztopatu, fedegabekeria hau (berriz esan beharra dago) parrizidua bezala zigortu behar al dugu? L' Ancre-ko Mariskal andereak oilar zuri bat hil zuen ilargi beteko gau batez. Beharrezkoa al zen horregatik erretzea?

7. Atala. Predikaritzea krimenaz eta Antonioz.

Probintzia batera bere jarraitzaileei ezkutuan predikatze-
ra datorren sermoilari kalvindarrak heriotza-zigorra bereganatu-
tuko du, harrapatzen badute, eta afaltzen eta lotan eman diona
galeretara zigortuko dute betiko.

Beste herrialde batzuetan, urkatu egiten dute predikatze-
ra doan jesuita. Jainkoa mendekatu nahi al da sermoilaria edo
jesuita urkatzen denean? Bi alderdiak Ebangelioaren lege
honetan oinarritu al dira: *Batzarrari entzungor egiten diona
paganotzat eta diru publikoaren hartzailetzat jo bedi?*¹⁰ Baina
Ebangelioak ez du esaten pagano hau edo hartzaile hau hil egin
behar direnik.

Agian Deuteronomioko^d hitz hauetan oinarritu dira:
*Igarle bat balaeor..., eta gertuko balitz berak irag arri
duena..., eta esango balu: «Gurtu ditzagun jainko arrotzak»;*
*eta zuen semeak eta zuen emazte maiteak, edo zure lagun
kuttunak esango balizu: «Goazen, zerbitza ditzagun jainko
arrotzak», hil itzazue berehala; jo zeuk lehenengo, eta herri
osoak jo dezala gera.* Baina sermoilariak eta jesuitak ez dute
esan: *Gurtu ditzagun jainko arrotzak.*

Dubourg kontseilariak, Jehan Chauvin kalongeak
(Kalvino deituak), Servet medikuak (espainiarra), eta Gentilis
kalabriarrak Jainko berbera gurtzen zuten; hala eta guztiz ere,
Minard lehendakariak urkarazi egin zuen Dubourg kontseila-
ria, eta honen lagunek Minard hil zuten; Jehan Kalvinek Servet

medikua erre zuen su motelean, eta honek eragin zuzena izan zuen Gentilis kalabriarraren burumoztean, kontsolamendu gisa edo; eta Kalvinoren ondorengoek Antonio erre zuten. Fedea, arrazoia eta justizia izan al dira hilketa hauen egileak? Antonioren historia erokeriaren historian ezagutzen den berezietakoa da. Hona hemen eskuizkribu oso bitxi batean irakurri dudana; Jacob Spon-ek¹¹ ere badakar zatitxo bat. Antonio, Briey-n jaio zen, Lorenan; bere gurasoak katolikoak ziren, eta Pont-a-Mousson-go jesuitetara bidali zuten ikasketak egitera. Ferry¹² predikariak erlijio protestantean sartu zuen Metz-en. Nancy-ra itzuli zenean, heretikotzat hartu eta auzia sartu zioten eta, lagun batek ihes egiten lagundu izan ez balio, urkatuta hilgo zen. Sedan-en errefuxiatu zen, aitasantuzaleztat hartu zuten, eta hil egin nahi izan zuten.

Patu bitxi baten eraginez bere bizitza arriskuan zegoela ikusita, judu egitera joan zen Veneziara. Han bere burua konbentzitu zuen, eta judutarren erlijioa benetako bakarra zela esango zuen bere bizitzako azken uneraino, eta beste garai batzuetan ere hala izan zela eta beti izango zela. Judutarrek ez zuten zirkunzidatu, epaileeki auzitan sartzeko beldurrez; baina horregatik ez zen judu txikiagoa bere baitan. Baina ez zuen agerian aldarrikatu bere judutartasuna, eta predikari gisa Genevara joan zelarik, ikastetxeko arduradun nagusi egin zuten, hots, ministro esaten zaiona.

Borroka handia zuen bere barruan, predikatzera behartuta zegoen Kalbinoren sektaren, eta berak benetako eta bakarizatzen zuen judaismoaren artean. Hau dela eta, makalik ibili zen luzaroan. Malenkoniak jo zuen eta gaitz txar batek harrapatu. Minak zorabiatuta, judutarra zela oihukatu zuen. Bisitatzen joan zitzaion zenbait ministro, eta bere onera ekartzen ahalegindu ziren. Berak Israelgo Jainkoa bakarrik gurtzen zuela erantzun zien, eta ezin zela Jainkoa denborarekin aldatu. Jainkoak ezin zuela bere eskuz eman eta zizelkatu lege bat, gero ezabatzeko. Kristautasunaren aurka mintzatu zen; eta

gero atzera egin zuen. Fede-aitorpen bat idatzi zuen torturei ihes egiteko, baina idatzi ondoren, osasun egoera negargarriak ez zion sinatzen utzi. Hiriko batzarrak predikariak bildu zituen dohakabe honekin zer egin erabakitzeko. Haren errukia izan behar zela esan zuen gutxiengo batek; zigortu ordez, haren buruko gaitza sendatzen ahalegindu behar zela. Baina gehien-goak erre egin behar zela erabaki zuen, eta hala egin zen.

1632^ean jazo zen gertakari hau. Ehun urte zentzudun eta bertutetsu behar dira honelako epai bat barkatzeko.

8. atala. Simon Morin-en historia.

Simon Morinek izan zuen azken trajikoa ez da Antonioren baina askoz gozoagoa. Gorte distiratsu¹³ baten jaien erdian, amodio eta atseginen artean, askatasunik handieneko garaian, erre zuten dohakabe hau, 1663an, Parisen. Kaskarin honek begitazioak zituen, eta Jainkoak bidali zuela eta Jesukristoren pareko zela pentsatzen zuen bere eromenean.

Parlamentuak, oso zuhur, zoroen eritetxean sartzera zigortu zuen. Baina gauza bitxia gertatu zen: bazen eritetxe honetan bera baino zoroago bat, Aita Gorena zela esaten zuena. Hain harrituta geratu zen Simon Morin bere bizikidearen erotasunarekin, non bereaz jabetu baitzen. Zentzuna etorri zitzaiola ematen une batean; bere damua agertu zien epaileei, eta askatasuna lortu zuen, bere zoritxarrerako.

Laster erori zen berriro bere zorakerian, eta dogmatizatzen hasi zen. Zoritxarrak nahi izan zuen Saint Sorlin Desmarets¹⁴ ezagutzea; lagunak izan ziren hilabete batzuez, baina laster, bekaizkeriak jota, bere etsai handiena bihurtu zen.

Desmarets hau ez zen Morin baino burutsuagoa. Hasierako bere zorakeriak kaltegabeak izan ziren guztiz: *Erigone* eta *Mirame* tragikomediak inprimatu zituen Salmoen itzulpen batekin batera; *Ariane* elaberria eta *Clovis* poema, ber-

tsoan jarritako Amabirjinaren Ofizioarekin batera; edo poesia ditiranbiko batzuk, Homero eta Virgilioren aurkako zirikadekin. Zorakeria mota honetatik beste askoz ere arriskutsuago batera igaro zen: tigre bat bezala jarri zen Port Royal-en aurka; eta emakumeak ateismora bihurtu zituela aitortu ondoren, igarletzat jo zuen bere burua. Jainkoak Apocalipsiko tesoroaren giltza eman ziola esan zuen; giltza honekin giza generoaren berriztapena egingo zuela, eta ehun eta berrogei mila gizoneko armada baten buruzagitza hartu behar zuela jansendarren aurka.

Ez zen gauza zuzen eta zentzuzkuagorik izango gizon hau Simon Morin sartu zuten kaiola berean sartzea baino. Baina nori otu behar zitzaion oso ondo hartuko zuela Annat jesuitak, erregeren aitorleak? Honek burua berotu zion erregeari esanez Simon Morin gizajoak sekta berri bat antolatu zuela, ia jansendarrena bezain arriskutsua. Azkenean, doilorkeriaren doilorkeria, bera salatzaile izanik, bere arerio dohakabea atxilotzeko dekretua lortu zuen arduradun kriminalarengandik. Nor ausar daiteke esatera! Bizirik erretzera zigortu zuten Simon Morin.

Urkabera zeramatenean, paper bat aurkitu zuten bere galtzerdi batean, Jainkoari bere erru guztien barkamena eskatuz. Honek aski behar zuen izan salbatzeko, baina epaia baieztatua zegoen: errukirik gabe bete zen zigorra.

Ileak lastu egiten dira honelakoak entzunda. Eta zein naziotan ez dira ezagutu era honetako negargarrikeriak? Gizakiek ahaztu egiten dute anai-arrebak direla eta elkarren aurka jarduten dute heriotzara arte. Pentsa dezagun, giza askaziaren kontsolamendurako, ez dela berriz itzuliko halako garai izugarririk.

9. atala. Aztiez.

1749 emakume bat erre zuten Vurtzburgoko gotzaingotan, sorgina zela aitortu ondoren. Hau gauza sinestezina da bizi

garen mendean. Baina nola liteke bere burua erreformatutzat eta sineskeriaren etsaitzat daukan herri batek, zentzunean sartu dela uste duenak, honelako doilorkeriak sinestea? Nola erre daitezke sorgintzat jotako emakume koittadu batzuk, noiz eta ustez arrazoiak berritu eta ehun urtera?

1652an, Geneba-ko eskualdeko nekazari batek, Micaela Chaudron izenekoak, deabruarekin egin zuen topo hiriko irtereran. Deabruak musu bat eman zion, emakumea haren esanetara jarri zen, eta deabruak bere kuttunei ezarri ohi dien zigilua ezarri zion, goiko ezpainaren eta eskuineko bularraren gainean. Debruaren zigilu hau seinale txiki bat da; puntu horretan larruak sentikortasun guztia galtzen du, hala diote behintzat garai hartako legelari demonografo guztiek.

Deabruak bi neska sorgintzeko agindu zion Micaela Chaudroni; eta honek zintzo-zintzo bete zuen bere jaunaren esana. Bi nesken senideek auzitegian salatu zuten, deabruarekin elkar hartuta zegoela esanez. Itaunketa egin zitzaien gazteei, errudunaren aurrez aurre jarri zituzten, eta esan zuten kili-kili etengabea sentitzen zutela gorputzeko parte batzuetan, eta deabrua zutela barruan. Medikuei deitu zitzaien, edo garai hartan medikutzat hartzen zirenei, bederen, eta gazteak bisitatu zituzten. Deabruaren zigiluaren bila ibili ziren Micaelaren gorputzean; *seinale satindarrak*, ahozko auziak dioenez. Orratz luze batzuk sartu zizkieten leku susmagarrietan, oinaze ikaragarria, bere hartan ere. Orratza ateratakoan odola irteten zen, eta Micaelaren garrasiek ez zuela sentikortasuna galdu adierazten zuten. Epaileek, froga osorik ez zegoela ikusita, torturatu egin zuten. Koitadu honek, noski, oinazeak eraman ezinik, nahi zuten guztia aitortu zieten. Medikuek, hala ere, Satanen seinalearen bila jarraitu zuten: iztarrean zuen orin beltz batean aurkitu zuten azkenik, eta han sartu zuten orratza. Mina jasanezina zen eta hilzorian zegoen dohakabe hau ez zen ia ohartu ere egin orratza sartu ziotenik; ez zuen oihurik egin. Honela krimena frogatua geratu zen;

baina, ordurako usadioak bigunduz zihoazenez, ez zuten erre urkatu zuten arte.

Europa kristauko epaitegi guztietan entzuten da honelako epaien doinua. Alde guztietan suak piztuta egoten ziren heretiko eta aztientzat. Turkuei arpegiratzen zitzairen gauzarik okerrena zera zen: ez zutela ez aztirik eta ez deabruak hartutako pertsonarik. Erlijio baten faltsutasunaren froga hutsezina zen hau.

Onura publikoaren, gizadiaren eta benetako erlijioaren zaindari den gizon batek, inozentziaren aldeko bere idatzi batean, agerian jarri du auzitegi kristauak ehun mila ustezko azti baino gehiago zigortu dituztela heriotzara. Legezko hilketak hauei, sarraskitutako heretikoen kopuru mila aldiz handiagoa gehitzen badiegu, munduaren parte handi samar honek borraroz eta biktimaz betetako urkabe handi bat emango du, epailez, lekaioz eta ikuslez inguratua.

10. Atala. Heriotza-zigorraz.

Gauza jakina da urkatutako gizon batek ez duela deuse-tarako balio, eta gizartearen onerako asmatu diren oinazeak gizartearen mesederako izan behar dutela. Garbi dago herrilak netan behar egitera zigortutako hogeitaz lapurren oinazeak oso onuragarriak direla Estatuarentzat, eta beren heriotzak, osterak, jende aurrean gizonak hiltzeko ordaintzen zaion borraroren-tzat bakarrik direla mesedegarri. Ingalateran lapurrak oso nekez zigortzen dira heriotzarekin¹⁵. Kolonietara eramaten dira. Gauza bera egiten da Errusiako estatu zabaletan. Kriminal bakar bat ere ez da hil Isabelen¹⁶, soberano nagusiaren, inperiopean. Honen ondoren, eta askoz argitasun handiagoarekin, etorri den Katalina II¹⁷ak ere bide berberari jarraitu dio. Biguntasun honek ez ditu krimenak ugaritu; Siberiara erbesteratuak gizaki jator bilakatu dira ia beti. Gauza bera nabarmen-

du da kolonia ingelesetan. Aldaketa gozatsu honek harritu egi-
ten gaitu, baina ez dago gauza naturalagorik. Errudun hauek
lan eta lan egin behar dute biziko badira; ez dute txarkeriarako
aukerarik; ezkontzen dira eta biztanleria handitzen dute.
Behartu itzazue gizonak lanera eta zintzotu egingo dituzue.
Mundu guztiak daki krimenik handienak ez direla nekazal
herrietan gertatzen, alferkerian egoteko eta gehiegikeriak egi-
teko bide izaten diren jai gehiegi ez badago, behintzat.

Hiritarra erromatarra ez zen heriotzara zigortzen,
Estatuaren ongizatearekin zerikusia zuen krimenen bat egiten
ez bazuen, behintzat. Gure maisuek, gure lehen legegileek,
errespetatu dute beren hirikideen odola; guk erraz eta eurrez
darabilgu geureena.

Sarri astindu eta eztabaidatu da gai zail eta korapilatsu
hau: ea epaileek eskubidea duten heriotza-zigorra emateko,
legeak azken oinaze hau ez duenean agintzen. Arazo hau han-
dikiro eztabaidatu zen Enrike IV.a enperadorearen aurrean, eta
erabaki zen epaileak ez duela hori egiteko eskubiderik^f. Izaten
dira ekintza kriminalak, hain ezustekoak, hain bitxiak, edo
hain gorabehera arraroetan bilduak, non, nazio batzuetan,
legea bera behartua sentitzen den gertakari berezi hauek epai-
leen iritzira uztera. Baina zilegi baldin balitz ere, legeak
espreski ez esan arren, kasuren batean heriotza-zigorra ema-
tea, beste mila kasutan gizadiak, legea baino induartsuagoa
denak, bizitza salbatu beharko die legeak heriotzara konden-
tutakoei.

Geure eskuetan dago justiziaren ezpata, baina kamustu
egin behar diogu ahoa, zorroztu beharrean. Zorroan eramaten
da erregeen aurrean, gutxitan atera behar dela adierazi nahirik
bezala.

Epaile odolzale amorratuak ezagutu dira; horrelakoa
izan da Jeffreys¹⁸ Ingalaterran; horrelakoa izan zen *lepamoz -
tailea*¹⁹ deituriko gizon bat ere Frantzian. Era honetako gizonak
ez ziren epailetarako jaio; naturak borrero izateko sortu zituen.

11. Atala. Epaien betetzeaz.

Beharrezkoa al da munduaren beste muturreraino joatea eta Txinako legeak ahotan hartzea, gizonak bere bizikideen odolarekin zein zuhur jokatu behar duen ikasteko? Duela lau mila urte baino lehenagotik daude epaimahaiak inperio horretan, eta sekula ez da baserritar bat hil, aurretik bere auzia enperadoreari bidali gabe; honen auzitegi batek hiru aldiz aztertuko du gaia; gero, heriotza-zigorra, zigor aldaketa edo barkamen osoa erabakiko du^g.

Baina ez gaitezen hain adibide urrunen bila joan; Europa beteta dago honelakoez. Ingalaterran ez da kriminalik exekutatzen erregeak epaia sinatu arte; gauza bera gertatzen da Alemanian eta ia iparralde osoan. Honela jokutzen zen lehenago Frantzian ere, eta honela jokatu beharko litzateke nazio jaso guztietan. Ustekeriek, azpikeriek eta ezjakintasunak eragin handia izan dezakete tronutik urrun ematen diren epaietan. Azpijoko hauek gortean ez dira jakin ere egiten, urruti gertatzen dira; tamaina handiagoko arazoez erakartzen dute interesa. Kontseilu goren gorabehera handietara ohituago dago, eta aurreiritzietatik libreago. Gauzak goragotik ikusteko ohiturak jakitsuago eta zuhurrago egiten du; erakunde honek probintzia bateko justizia behekoak baino hobeto dakus ea Estatuaren gorputzari etsenplu gogor bat ematea komeni zaion ala ez. Honela, beheko justiziak legearen letran —zorrotza sarri— oinarrituta epaitzen duenean, kontseiluak bigundu egingo du epaia, lege ororen azpian dagoen zentzunari jarraituz, hots, ezin direla gizonak inolatu, horreterako beharrian nabar-men bat ez bada, bederen.

12. atala. Torturaz.

Gizaki orok gaitzesten ditu krimenak, denok izan bai-kaitezke bortizkeriaren eta doilorkeriaren biktima. Denek,

aho batez, eskatzen dute errudun nagusien eta beren lagun-tzaileen zigorra; eta denok, hala ere, Jainkoak geure bihotze-tan itsatsi duen errukiagatik, gaude aitorpena ateratzeko aku-satuei egiten zaizkien torturen aurka. Legeak ez ditu oraindik kondenatu, eta nahiz eta beren krimena argitu gabe egon, heriotza baino oinaze izugarriagoa ematen zaie, gero, herio-tza merezi duten ziurtasuna lortutakoan, azken oinazea ema-teko. Nola lortzen da ziurtasuna? Ez dakit oraindik erruduna zaren ala ez, eta torturatu egingo zaitut jakiteko; eta erruga-bea bazara ere, ez ditut nik ordainduko baten ordeztu sofriarazi dizkizudan mila heriotzak! Dardaraz hasten da edonor irizpi-de honekin. Ez dut hemen esango San Agustin torturaren aurka agertzen dela bere *Jainkoaren Hiria*²⁰-n. Ez dut esango Erroman esklaboei ezartzen zitzaizela bakarrik, eta Kintilianok, gizakiak zirela ohartuta, gaitzetsi egin zuela ohi-tura hau.

Munduan torturaren usadioa kendu duen nazio bakarra balego ere, eta nazio honetan besteetan baino krimen gehiago gertatzen ez badira, eta berau besteak baino jakintsuagoa eta oparoagoa bada ezabatu zuenetik, eredu hau aski da mundu osoarentzat. Ingalaterrak hezi ditzala beste nazioak. Baina ez da Ingalaterra bakarrik, beste nazio askok ere baztertu dute tortura arrakasta handiz. Beraz, gauza garbi dago. Ilustratua izateaz harro dagoen herria, ez ote da bere gizabideaz harro-tuko, modu berean? Jokabide zaharrari eutsiko ote diote, beti egin izan dela argudiatuz? Gutxienez, gorde ezazue basakeria hau gaizkile porrokatuentzat, familia edo aberri gurasoren baten hiltzailearentzat; bila itzazue haien konplizeak. Baina ez al da astakeria hutsa inolako arrastorik utzi ez duen hutse-giteren bat egin duen gaztea guraso hiltzailea bezala konde-natzea? Lotsa naiz honetaz jarduten *Delituez a jg orrez*-en egileak gaiaz esan dituenak irakurri ondoren. Zera egin beharko nuke: gizadiaren zaindari honek idatzitako obraren irakurketa mundu guztiari gomendatu, eta isildu.

13. atala. Zenbait odol-auzitegi buruz.

Nork sinetsiko luke garai batean izan zela Inkisizioa baino auzitegi izugarriago bat, eta auzitegi hau Karlomagno berberak ezarri zuela? Westfaliako auzitegia izan zen, *Gorte Vemikoa* ere deitua. Auzitegi honen gogortasuna, edo ankerkeria, hobeto esanda, hain zen handia, non heriotza-zigorrrera kondenatzen baitzen garizumako baraua hausten zuen edozein sajoniar. Lege bera ezarri zen Flandrian eta Franche-Comté-an XVII. mendearen hasieran.

Borgoñako konterriko haitz beldurgarrien erdian bada Saint-Claude izeneko lurralde txiki bat. Hango artxiboak gortetzen du Claudio Guillon deitzen zen zaldun gizajo baten ahozko auzia eta exekuzio-agiria: lepoa moztu zioten 1629ko uztailaren 28an. Miseria gorrian bizi zen eta gose ikaragarria zuen. Bere delitu guztia, bijilia egunez zelaian hil zuen zaldia-
ren haragi puxketa jatea. Sakrilegotzat kondenatu zuten. Aberatsa izan bazen eta ehun diru kostatzen zen arrain-afari bat egin bazuen, nahiz eta pobreak gosez hiltzen utzi, bere eginbehar guztiak bete zituen gizona izango zen. Hona hemen epailearen sententzia:

«Guk, auziaren alderdi guztiak ikusi eta legelarien iritzia entzun ondoren, Claude Guillon delakoa errudun deklaritzen dugu, hiri honen alboko zelai batean hildako zaldi baten haragi puxketa hartu, eta haragi hau martxoaren 3lean, larunbatez, egosi eta jan zuelako, etab.»

Zer legegizon ziren epai hau eman zutenak! Topimanboen edo hotentoteen artean gertatzen al da honelakorik? Gorte Vemikoa askoz ere beldurgarriagoa zen. Komisarioak bialtzen zituen isilpean Alemaniako hiri guztietara, txostenak egiten zituzten akusatuen ezjakinean, eta hauei entzun ere egin gabe epaitu egiten zituzten; eta askotan, borrororik ez zutenean, epailerik gazteenak betetzen zuen haren lana, eta berak urkatzen zuen erruduna. Auzitegi honen erail-

ketei ihes egiteko, gutun bereziak lortu behar izaten ziren, enperadoreen babes-agiriak, eta hauek ere alferrik izaten ziren askotan.

Hiltzaileen auzitegi hau ez zen guztiz desegin Maximiliano²¹ I.aren garaira arte, baina desegite hau epaileen odolean egitea merezi zuen. Veneziako hamar epaileen auzitegia, erruki-auzitegia zen honen ondoan.

Zer pentsatu bahar dugu hutsegite hauei eta beste askori buruz? Gizakiaren izaeraz negar eginda konformatuko al gara? Izan dira hau mendekatu beharreko kasuak ere.

14. atala. Lege politikoen eta naturalen artean dagoen aldeaz.

Nik *lege naturalak* deitzen diet naturak garai guztietan eta gizaki guztiei seinalaturiko legeei, naturak gure bihotzetan, nahiz eta batzuek besterik esaten duten, itsatsi dituenei justiziak iraun dezan. Alde guztietan, lapurreta, bortxakeria, hilketak, gure senide eta ongileekiko esker txarra, kalte egiteko eta ez errugabe bati laguntzeko egiten den zinegite faltsua, eta bere aberriaren aurkako konspirazioa, delitu nabarmenak dira, gogorrago edo bigunago zigortzen direnak, baina beti zigortu beharrekoak.

Nik *lege politikoak* deitzen diet unean uneko beharren erantzun gisa egiten direnei, bai boterea sendotzeko, bai zortizarrak aurreikusteko edo ekiditeko. Etsaiak hiri bateko berriak jaso ditzakeela errezelatzen denean, ateak ixten dira eta agintzen da, heriotza-zigorpean, inork ez dezala harresieta-tik salto egin.

Sekta berri batek beldurra sortzen duenean; jende aurrean soberanoarenganako obediencia estalki gisa erabiltzen duenean, gero ezkutuan konspiratzeko; edo gizon guztiak berdinak direla aldarrikatzen duenean, gero jendea beren erritoe-

tara makurtzeko; edo Jainkoari obeditzea gizonei obeditzea baino hobe delako esaten duenean, sekta nagusia sineskeriaz eta zeremonia barregarritz beteta dagoen aitzakia erabiliz. Estatuak konsakratu duena desegin nahi denean, orduan, diot, heriotza-zigorra erabiltzen da herria sediziora eramateko sektaren alde agerian dogmatizatzen dutenen aurka.

Bi gizon botere-gose tronua lortzeko lehia badabiltza, indartsuenak irabaziko du eta heriotza epaia ezarriko dio ahulenari eta haren jarraitzaile guztiei. Epaileak soberano berriaren mendeku-tresna eta aginte-sustengu bihurtzen dira. Hugo Capetoren garaian, Lorenako Karlosekin zerikusia zuen edonor zegoen heriotza-zigorren arriskupean, oso boteretsua²² ez bazen, behintzat.

Rikardo III.ak bere bi ilobak erail zituenean, Ingalaterrako errege izendatu zuten, eta epaitegi gorenak laurdendu egin zuen Gillermo Colingburn zalduna, zeinen delitua Richmond-eko kontearen lagun bati, garai artean tropak antolatzen ari zena, idaztea izan baitzen, gero Enrike IV²³.a izenez errege izango zenari, hain zuzen. Bere eskuz idatzitako bi lerro aurkitu zizkioten, ez zuten ez buru eta ez hanka, baina aski izan ziren torturarik lasgarrienen erdian hilarazteko. Historia guztiak honelako justizia eredu gainezka daude.

Errepresalia eskubidea da nazioek erabili ohi duten beste lege bat. Zure etsaiak urkatu egin du zure kapitain ausarta, denbora luzez, gaztelu erdi puxkatu batean, armada oso baten aurka ausarki burrukatu ondoren; zure etsaiaren kapitaina zure eskuetan erori da; gizon jatorra da, estimatzen duzu eta agian maitatu ere bai; baina hau ez da oztopo urka dezazun. Legea da, esaten duzu. Zure etsaiak delitu anker bat burutu duelako, beharrezkoa al da zuk ere beste antzeko bat egitea?

Politika odolzale baten lege hauek denbora bat irauten dute, eta garbi dago ez direla benetako legeak, igarokorrak baitira. Batzuetan iruditzen zait gosete handien erdian gizonek

elkar jateko izan duten beharraren antzekoak direla. Baina elkar jateari utzi egiten zaio ogia dagoen momentuan.

15. atala. Goi-mailako traizio-krimena.

Tito Oates eta Augusto de Thou-ri buruz.

Goi-mailako traizio-krimena esaten zaio aberriaren edo honen ordezkari den soberanoaren aurka egiten denari. Egiten duena parrizidio egin duenaren maila berean hartzen da; beraz, garbi dago ez direla halakotzat jo behar parrizidiora heltzen ez diren delituak. Izan ere, goi-mailako traizio krimenez hartzen bada Estatuaren etxe batean egindako lapurreta bat, ustelkeria kasu bat edota sedizio-hitz batzuk, moteldu egingo da goi-mailako traizio-krimenak edo lesa maiestatekoak eragin behar lukeen izua.

Krimen handiei buruz sortu behar den iritziak ez dio irizkeriari lekuri utzi behar. Semeak aitari egindako lapurreta edo iraina parrizidioaren mailan jartzen baduzue, aita-semeen arteko maitasun-harremanak hautsiko dituzue. Semeak ugazabak beldurgarri bat bezala ikusiko du bere aita. Legeen barruan dauden bortizkeriak, legeon hondatzaile bihurtzen dira.

Krimen arruntetan, Ingalaterrako legea akusatuaren aldekoa da; baina goi-mailako traizio krimenetan, osterak, aurkakoa. Tito Oates jesuita ohia, komunaren ganbaran legearen arabera itaundu zuten, eta aitortzekorik beste ezer ez zuela zin egin ondoren, Yorkeko dukearen idazkaria (duke hau Jakobo II.a izango zen geroago) eta beste pertsona batzuk akusatu zituen goi-mailako traizio-krimenaren egiletzat, eta bere salaketak onartu egin zuten; hasieran idazkari hau ez zuela ikusi zin egin zuen, eta gero, ikusi zuela. Ezlegetasun eta kontraesan hauek gorabehera, hil egin zuten idazkaria.

Oates honek eta beste lekuko batek deklaratu zuten berrogeitamak jesuitak Karlos erregea hiltzeko trama bat antolatzen ari zirela, eta Aita Olivak, jesuiten generalak, idatzitako

izendapen-agiriak ikusi zituztela, matxinoen armada²⁴ zuzen-
duko zuten ofizialen zerrendak. Bi lekuko hauen adierazpenak
aski izan ziren salatu zenbaiti bihotzak atera eta hauekin aur-
pegia igurzteko. Baina garbi hitz egin dezagun: bi lekuko aski
al dira hauek galdu nahi dituztenak hilarazteko? Beharrezkoa
izango litzateke, gutxienez, bi lekuko hauek alproja ezagunak
ez izatea, eta esaten dituzten gauzak sinesgarriak gertatzea.

Adibide bat jartzearren, erresumako bi magistratu zuzen-
enek gizon bat akusatuko balute, esanez honek Mufty-rekin
batera konspiratu duela Estatu Kontseilu osoa zirkunzidatzeko,
eta parlamentua, eta diru-kontu auzitegia, eta arzobispoa, eta
Sorbona osoa, magistratu horiek alferrik zin egingo lukete
Muftyren gutunak ikusi dituztela, inork ez lieke sinetsiko,
zoratu egin direla pentsatuko lukete denek. Sinestezina bada
Muftyk Frantziako gorte osoa zikunzidaraztea, ez gutxiago
jesuiten generalak Ingalaterran armada bat antolatu izana.
Hala ere, inoiz esan ez dadin izan zela noizbait zorakeria kru-
del bat inork sinetsi ez zuena, sinetsi egin zitzaion Tito Oatesi.

Ingalaterrako legeek ez dute traizio errudun jotzen, trai-
zioaren berri jakin arren, jakinarazten ez duena. Eta hau, sala-
tzailea konspiratzailea bezain erruduna dela pentsatzen dutela-
ko. Frantzian, oster, konspirazio baten berri jakin eta salatzen
ez duenak heriotza-zigorra du. Luis XI.ak, zenbait konspira-
zioen helmuga izan zenak, eman zuen lege izugarri hau. Luis
XII.ari eta Enrike IV.ari ez zitzaien burutik pasatu ere egingo
horrelakorik.

Lege honek ez du bakarrik gizona krimen baten sala-
tzaile izatera behartzen (agian bere tinkotasunarekin eta ahol-
ku jakintsuekin berak saihets dezakeen krimena), baizik eta
baita kalumniatzaile gisa zigortua izateko arriskuan jartzen du,
azpikerian dabilzanek oso erraz har baititzakete neurriak sala-
tzaileari sinets ez diezaioten.

Hauxe izan zen, hain zuzen, Francisco Augusto de Thou²⁵
gizon errespetagarriaren ren kasua. Estatu kontseilaria zen,

garai hartan Frantziak zuen historialari on bakarraren semea, Guinchardin²⁶ bezain argia, eta hau baino hobeia, agian, bere inpartzialtasunagatik.

Konspirazioa Luis XI.aren aurka baino gehiago, Richelieu kardinalaren aurka zegoen zuzendua. Helburua ez zen, inola ere, Frantzia etsaien esku uztea; izan ere, erregearen anaiak, konspirazioaren bultzatzaile nagusiak, ez zuen erresuma saltzeko asmo izpirik, oraindik bere burua erresuma haren oinordeko jotzen baitzuen, tronuaren eta beraren artean, heriotzaren ateetan zegoen anai nagusia eta titiko ume bi, beste oztoporik ikusten ez zuelarik.

De Thou ez zen erruduna ez gizonen eta ez Jainkoaren aurrean. Monsieur-en, erregearen anaia bakarraren, agente batek, Bouillon-go kontea (Sedan-go printze soberanoa zena) eta Effiat Cinq-Mars²⁷ ezkutaria prestatzen ari ziren konspirazioaren berri eman zion, ahoz, estatu kontseilariari. Hau Cinq-Mars ezkutariaren bila joan zen eta ahalegin guztiak egin zuen haien asmoak zituen zailtasun guztiak ikustarazteko, eta konspirazioa alde batera utz zezaten. Orduan konspiratzaileak salatu izan bazituen, zein froga aurkeztu ahal izango zuen haien aurka? Haren adierazpena gezurtatu egingo zuten koroaren ustezko oinordekoak, eta printze soberanoak, eta erregearen begikoak ,eta, azken batean, mundu guztiaren gaitzespena izango zuen. Kalumniatzaile doilor baten gisa zigortua izatea, besterik ez zuen lortuko

Seguier kantzilerak ere hauxe bera aitortu zuen, de Thouk eta ezkutari handiak, aurrez aurre jarri zituztenean, esandakoak entzunda gero. Alderaketa honetan esan zizkion de Thou-k Cinq-Mars-i ahozko auzian agertzen diren hitz hauek: «Oroit ezazu, jauna, egunero hitz egin dizudala gai honi buruz, eta nire ahalegin guztiak egin ditudala asmoa bazter zenezan». Cinq-Mars-ek onartu zuen egia hau. De Thou-k saria merezi zuen auzitegiaren aldetik, eta ez heriotza. Gutxienez begirune apur batez tratatu behar zuen

Richelieu kardinalak; baina gauza jakina da gizatasuna ez zela ministro honen dohairik onena. Ziur asko, kasu hau *Summunjus summa injuria* baino zerbait gehiago da. Gizon jator honen heriotza-epaiak honela dio: «Konspirazio hauen berri izateagatik». Honen arabera, krimena, haren berri izatean datza, eta edonork heriotza merezi lezake begiak eta belarriak izateagatik.

Honelako epai bati buruz esan daitekeen gauza bakarra zera da: ez zutela epaileek eman, komisarioek baizik. Lege odolzalea zehatza eta formaz jantzia zen. Ez legelariei bakarrik, gizon guztiei dagokie lege hau usteldua zegoen ala ez erabakitzea. Oso kontraesan tristea da gizon kopuru txiki batek heriotzera eramán ahal izatea nazio osoak errugabe eta miresgarritzat jo duen gizona.

16. atala. Aitortzan egindako konfesioa

Jaurigny eta Baltasar Gerard, Orangeko printzearen (Gillermo I.a)²⁸ hiltzaileak, Santiago Clement²⁹ fraide dominikoa, Chatel³⁰, Ravailac³¹, eta garai hartako beste parrizida guztiak aitortu egin ziren beren krimenak burutu aurretik. Mende negargarri hauetan fanatismoa hain harro zebilen, non aitortza aitzakia bat gehiago baitzen doilorkeria burutzeko, eta aitortza sakramentua zenez gero, krimena ere sakratu bihurtzen zen. Strada³² berak dio Jaurigniri buruz: *Non ante facinus aggredi sustinuit, quam expiatam noxis animan apud dominicanum sacerdotem coelesti pane firmaverit*. «Jaurigni ez zen ekintza hau burutzera ausartu, harik eta egitera zihoana dominiko baten oinetan aitortuz garbitu, eta arima zeruko ogiaz indartu zuen arte».

Ravailac-en itaunketan ageri denez, dohakabe honek zistertarretatik irten eta jesuiten konbentuan sartu nahi izan zuenean, d'Aubigny jesuitarengana jo zuen. Izan omen zituen agerkunde askori buruz hitz egin zion jesuitari, eta gero aizto

bat erakutsi zion, burnian bihotza eta gurutzea grabatuta zitue-
na, eta esan zion: «Gurutze honek esan nahi du erregeak gerra
egin beharko diela hugonoteei».

Agian d'Aubigny-k zuhurrago eta arduratsuago jokatu
izan balu, eta erregea hitz hauen jakinean ipini, edota asmo
hauek azaldu zizkion gizonaren deskribzioa egin izan balio,
inoiz izan den erregerik onena ez zuten beharbada erailgo.

1610eko abuztuaren 20an, Enrike IV.a hil eta hiru hila-
betera, artean haren lorratzak bere menpeko izandakoen biho-
tzetan grabatuta zeudelarik, Servin abokatu orokorrak, oroi-
tzapen luzea utzi duen gizonak, honakoa zioten lau artikulua-
k sina zitzatela agindu zien jesuitei:

1.— Kontzilioa aitasantauren gainetik dagoela.

2.— Aitasantuak ez duela inolako ahalmenik erregeari
ezein eskubide kentzeko eskomunioa erabiliz.

3.— Elizgizonak erregearen menpeko direla, besteak
bezala.

4.— Apaiz batek aitortzan erregearen edo Estatuaren
aurkako konspirazioa jakiten badu, berehala jakinerazi behar
diela epaileei.

22an, dekretu baten bidez agindu zuen parlamentuak
jesuitek ezin zutela gazteria hezi, delako lau artikulua-
k sinatu arte. Baina garai haietan Erromako gortea oso indartsua zen,
Frantziakoa, oster, oso ahula, eta agindua ez zen gauzatu.

Baina esan beharra dago, nahiz eta Erromako gortea ez
zuen gura izaten aitortzapekoa jakinarazi zedila, ezta sobera-
noaren bizitzaren aurkako atentatua izanda ere, aitorleak
behartzen zituela emakumeek konfesioan beren seduzitzaile
edo bortxatzaileetat jotakoen izenak inkisidoreen aurrean azal-
tzera. Paulo IV.ak, Pio IV.ak, Klemente VIII.ak eta Gregorio
XV^h.ak azalpen hauek egitea agindu zuten. Ez zen batere erra-
za aitorleentzat eta konfesatzera zihoazen emakumeentzat
amarru honi ihes egitea. Horrela, sakramentu bat salaketa-

-bulego bihurtu zuten, eta baita sakrilegio-bide ere. Izan ere, araudi zaharren arabera, eta batez ere Inozentzio III.ak deitutako Letrango³³ Kontzilioaren ondoren, aitorpen bat jakinarazten zuen apaiza funtzio gabetu egiten zuten berehala, eta espetxe betikora zigortzen.

Hona hemen XV. eta XVI. mendeko lau aitasantu garbitasunaren aurkako bekatuak argira ateratzeko agintzen, eta ez, oster, parrizidioa. Baina hau ez da okerrera: emakume batek karmeldar bati egindako aitortzan frantziskotar batek seduzitu duela esan du; karmeldarrak frantziskotarra salatu behar du. Hiltzaile fanatiko bat, bere printzea hilez Jainkoa zerbitzen duelakoan, aitorle baten aurrera agertzen da kontzientzia kasu honetaz hitz egiteko: aitorlea sakrilego egiten da bere soberanoaren bizitza salbatzen badu.

Kontraesan zentzugabe hau aspaldiko mendeetatik datozen eliz legeen eta lege zibilen arteko talka etengabearen ondorio da. Hiritarra behin eta berriz aukeratu beharrean aurkitzen da sakrilegioaren eta lesa maiestateko krimenaren artean; hau dela eta, ongiaren eta gaizkiaren arauak guztiz nahastu dira, eta nahaste-borraste horretan jarraitzen dute.

Gure hutsegiteen aitortza gauza onartua izan da garai guztietan eta ia nazio guztietan. Jende asko aitortzen zen Orfeo, Isis, Samotrazia, edo Zeres-en misterioetan.

Judutarrek garbiketa-egun solemnean aitortzen zituzten beren bekatuak, eta oraindik ere gordetzen dute ohitura hori. Penitentziagileak aitorlea aukeratzen du, gero bere penitentziagile bihurtuko dena, eta bakoitzak hogeita hemeretzi zigorkada jasoko ditu elkarrengandik, nahigabez beterik aitortza formula errezatzen duen bitartean, hamahiru hitz besterik ez, eta, beraz, aparteko gauzarik deus ere ez.

Aitortza hauek ez dira inoiz xehetasunetan sartu, ezkuto elkarrizketa hauek ez dira sekula penitentziagile fanatikoentzat aitzakia izan gero bekatu egiteko eskubidea izan dezaten. Metodo kaltegarri batek instituzio onuragarri bat

usteldu du. Aitortza, garai batean krimenaren galgarik handiena izana, honen bultzatzailerik onena bihurtu da azpikeria eta iskanbila garaietan. Garbi dago gogoeta hauetan oinarritu dela zenbait gizarte kristau praktika santu hau ezabatzeke, kaltegarria bezain alferrikoa iritzita.

17. atala. Txanpon faltsuaz.

Txanpon faltsua egitea lesa maiestateko bigarren mailako krimentzat jo izan da, eta irizpide zuzenez. Hiritar guztiei lapurtzea Estatuari traidore izatea da. Zera galdetu izan da: merkatarik batek urrea eta zilarra ekartzen badu barretan Ameriketatik, eta txanpon bihurtzen baditu bere etxean, ea lesa maiestateko krimena egin duen eta heriotza merezi duen. Nazio gehienetan hau egin duena oinazetik latzena kondenatuko litzateke, nahiz eta ez dion ezer ostu inori: aitzitik, mende handia egin dio Estatuari, txanpon konpuru handia jarri duelako korritzen. Baina soberanoari dagokion eskubidea bereganatu du, eta lapurretan egiten dio, soberanoak txanponetik eskuratzen dituen onurak sakeleratu dituelako. Egia da egin duen txanpona ona dela, baina faltsua egiteko tentaldian jarri ditu bere imitatzaileak. Baina heriotza-zigorra oso gogorra dela jabetu behar dugu. Ezagutu nuen legelarik batek zera esaten zuen, honelako errudun trebe eta eskutsuak erregearen diru-fabrika lan egitera zigortu beharko liratekeela, hanketan kateak jarrita.

18. atala. Etxe barruko lapurretaz.

Zenbait lurraldetan, heriotzaz zigortzen dira etxe barruko lapurreta txikiak. Zigor neurrigabe hau ez al da gizartearentzat kaltegarria? Ez al da lapurreta berrien eragilea? Ugazaba batek bere morroia justiziaren aurrera eramaten badu lapurreta txiki batengatik, bizitza kenduko diote dohakabe

honi, eta, ondorioz, auzoak begitan hartuko du ugazaba; denek jakingo dute orduan natura eta legea kontraesanean daudela, eta beraz, honek ez duela deusetarako balio.

Zer ondorio dakarren honek? Ugazaba, ospe txarra bereganatu nahi ez duenez, morroi ebaslea kalera bidaltzea- rekin konformatuko da, eta hau beste leku batera joango da harrapatzera, eta horrela ohitu egingo da lapurretatik bizitzen. Lapurreta txikiak eta handiak zigor berbera badu, argi dago ebaslea ahalik eta lapurreta handiena egiten saiatuko dela. Hiltzaile ere egin daiteke, horrela nekezago bilatzen badute.

Baina zigorra delituaren neurrikoa balitz, lapurra lan behartuetara zigortuko balitz, orduan ugazabek arazorik gabe eramango lituzkete lapurrak justiziaren aurrera; orduan inola- ko lotsarik gabe egingo litzateke hau, eta lapurretak ez lirateke hain maiz gertatuko. Oso garbi dago lege gogorregi batek, askotan, krimenik handienak eragiten dituela.

19. atala. Buru-hiltzeaz

Duverger de Haurannek³⁴, Saint-Cyran-go abate fama- tuak, Port-Royalen fundatzaile kontsideratuak, tratatu bat ida- tzi zuen buru-hilketazⁱ 1606an; Europako libururik aurkigai- tzenetakoa da egun.

Hamar mandamentuek, esaten du berak, ez hiltzea agin- tzen dute. Norbere burua hiltzea lagunurkoa hiltzea bezain bil- dua dagoela dirudi agindu honetan. Eta kasu batzuetan lagun- hurkoa hiltzea zilegi baldin bada, orduan baita norbere burua hiltzea ere; baina ez dugu geure bizitzaren aurka jardun behar gure arrazoia kontsultatu gabe.

Herri agintaritzak, Jainkoaren lekuan dagoenak, gure bizitza erabiltzeko eskubidea du. Gizonaren arrazoiak ere, jainkoaren argiaren islada denak, har dezake Jainkoaren lekua.

Saint-Cyranek luze garatzen du sofisma hutsa dirudien argudio hau; baina xehetasunetan sartzen denean, oso zaila da hari erantzutea. Edonor, esaten du, hil daiteke bere aberriaren, bere printzearen edo bere senideen alde.

Argi dago zaila litzatekeela kodroak eta kurtzioak³⁵ kondenatzea; ez dago soberanorik beragatik bere burua hil duen gizon baten familia zigortuko duenik. Zer diot? Ez bakar bat ere ez litzateke ausartuko, kalteordain gisa, familia saritu gabe uztera. Santo Tomasek gauza bera esan zuen Saint-Cyranen aurretik. Baina ez dugu ez Santo Tomas, ez San Buenaventura eta ez Hauranne-ren beharrik bere aberriagatik hiltzen den gizonak gure laudorio guztiak merezi dituela jakiteko.

Saint-Cyrango abateak diosku zilegi dela geure buruagatik besteengatik hainbeste loriaz egiten duguna egitea. Mundu guztiak daki Plutarko, Seneka, Montaigne eta beste filosofo askok buru-hilketaren alde argudiatu dutena. Guztiek azken muturreraino jorratu dute gaia. Honek ez du esan nahi legeek zigortzen duten ekintza baten apologia egin gura dadanik; baina egia da ez Testamentu Zaharrak eta ez Berriak ez diotela gizonari bizimodu honetatik irtetea galera izan, gehiago ezin duenean. Lege erromatar batek ere ez du buru-hilketa kondenatzen. Aitzitik, hona hemen Marko Antoniok emandako legea, sekula ezeztatu ez zena:

*Zuen aitak edo anaiak, krimenen baten errudun izan gabe, bere burua hiltzen badu, minei ihes egiteko, bizimoduaz aspertuta, edo etsita, edo erotuta dagoelako, beren testamentuak balio dezala, edota egin gabe utzi badu, bere ondasunak bere oinordenkoentzat izan daitezela*ⁱ.

Gure maisuek lege gizakoi hau eman ziguten arren, gaur egun banasta baten arrastaka eramaten dugu eta makila batez zeharkatzen bere burua hil duen gizona. Ospe txarra dario haren gomutari. Ahal dugun guztia laidotzen dugu haren familia. Semea zigortzen dugu aita galdu duelako, eta alarguna senarrik ez duelako. Hildakoaren ondasunak konfiskatu egiten

dira, zuzenbidez jabeak diren bizidunen eskuetatik kentzen dira, alegia. Usadio hau, beste asko bezala, gure kanon-eskubidetik eratorria da; honek lurperatua izateko eskubidea ukatzen dio nahita hiltzen den gizonari. Eta ondorio hau ateratzen da honetatik: ezin dela ezer heredatu zerutik ezer heredatzeko-rik ez duen gizon batengandik. Kanon-eskubideak dio, *De poenitentia* atalean, Judasek bekatu handiagoa egin zuela bere burua hiltzen, Jesukristo Gure Jauna saltzen baino.

20. atala. Elbarritze-mota batez.

Digesto-n Adrianoren^k lege bat dago, zeinetan heriotzera zigortzen ditu barrabilak erauziz edo hautsiz zikiratzeak egingen dituzten medikuak.

Lege honek berak agintzen du irenduak izan direnen ondasunen konfiskazioa. Honen arabera, Origenes³⁶ bera ere zigortu ahal zango zen, honek ere ebaketa hau egin baitzuen San Mateoren pasarte bat oso estu interpretatu zuelako: *Badira bere burua irendu dutenak zeruko erreinurako*.

Gauzak beste itxura bat hartu zuten ondorengo enperadoreekin, hauek luxu asiarrez inguratu baitziren, Konstantinoplan batik bat. Hiri honetan ezagutu ziren patriarka izatera edo armadak zuzentzera helduko ziren irenduak.

Erroman umeak irentzeko ohitura handia dago egun, aitasantuaren musikari izan daitezen, eta, honengatik, *castrato* eta *aitasantuaren musikari* sinonimoak dira. Orain dela gutxi arte ikusten ziren Napolin, barbero zenbaiten ateburuetan, zera zioten iragarkiak: *Qui si castrano maravi gli osamente i puti*.

21. atala. Goian aipatutako delituek ekartzen dituzten konfiskazioez.

Bada ohitura hau laburbiltzen duen esaera bat justizia auzitegi guztietan: *Bere burua konfiskatzen duenak, bere*

ondasunak ere konfiskatzen ditu. Oso indartsu dago esaera hau, legeari beharrean usadioari jarraitzen zaion herrialde guztietan. Beraz, esan dugun bezala, herrialde hauetan goseak hiltzera jaurtitzen dira bere burua nahita hildakoen seme-alabak, hiltzaileen seme-alabak bezala. Beraz, modu honetan, eta kasu guztietan, familia osoa zigortzen da gizon bakar baten hutsegi-teagatik.

Horrela, guraso bat galeretara zigortzen denean epai bidegabe batez¹, dela sermoilari-sektaren bateko kidea etxean hartu duelako, dela kobazulo edo basamorturen batean sermoiren bat entzun duelako, handik aurrera honen emazte eta seme-alabek eskale moduan bilatu beharko dute ogia.

Umezurtzei kendu eta beste gizon bati bere lagun hurkoaren ondasunak ematean datzan epaibide hau ezezaguna zen errepublika erromatarreko garai guztietan. Silak sartu zuen bere proskripzioen garaian. Baina, esan beharra dago, Silak asmatutako lapurkeria hau ez dela oso eredu imitagarria. Ikusi besterik ez dago Zesarrek eta Trajanok ez ziotela jarraitu zekenkeriak eta gupidagabekeriak diktatua dirudien lege honi, eta ezta Antoninoek ere, zeintzuen izenak oraindik ere begirunez eta maitasunez ahoskatzen baitira nazio guztietan. Eta Justinianoren garaian ere, lesa maiestateko kasuetan bakarrik erabiltzen zen konfiskazioa.

Dirudienez, anarkia feudaleko garaietan printzeak eta lurjabeak pobre samarrak ziren, eta beren menpekoak zigortuz eta krimenetik ere etekinak atereaz handitzen zituzten beren ogasunak. Beren arteko ohiturak basatiak zirenez eta legeria erromatarra ezezaguna, usadio bitxiak eta ankerrak nagusitu ziren. Baina soberanoen boterea aberastasun handi eta seguruetan oinarrituta dagoenenan, hauen ogasunek ez dute familia dohakabe baten hondakinekin hazteko batere beharrik. Gehienetan, eskatzen duen lehenengoaren esku uzten dira ondasunok. Baina bidezkoa al da hiritar bat beste baten kontura aberastea?

Konfiskazioa ez da existitzen zuzenbide erromatarra indarrean dagoen herrialdeetan, Tolosako legebiltzarren esparruan izan ezik. Ez da existitzen, ezta, usadioan oinarrituta arautzen diren zenbait herrialdeetan ere, Borbonerrian, Berry-n, Maine-n, Poitou-n, Britainian; edo, gutxienez, leku guztietan errespetatzen dira sustrai-ondasunak. Calais-en ere erabiltzen zen konfiskazioa garai batean, baina ingelesek deuseztu zuten hiria hartu zutenean. Ez da normala hirietako biztanleak probintzietakoak baino lege estuagoen azpian bizitzea. Honek erakusten du legeria aliritzira ezartzen dela askotan, ganorarik gabe, batasunik gabe, txabolak, han-hemenka erakitzen diren bezala.

Norbaitek sinetsiko al luke Omer Talon³⁷ abokatu orokorra, 19673an, Frantziaren loria-urtean, honela mintzatu zela Legebiltzarrean, Canillac andereñoari buruz^m:

«Zera dio Jainkoak *Deuteronomioaren* XIII. atalean: Idolatria nagusi den hiri batean edo beste edozein lekutan sartzen bazara, ezpataren ahotik pasa itzazu guztiak, adina, sexua edo giza maila kontuan izan gabe. Gero hondakinak bildu hiriko plazan, erre guztia, eta leku higuingarri honetan ez dadila errauts pila bat baino geratu. Hitz batean, egin sakrifizio handi bat jaunari, eta ez dadila zure eskuetan anatema horren pusketarik txikienik ere geratu.

Honela, lesa maiestateko krimenetan, erregea egiten zen ondasun guztien jabe, errudunaren seme-alaben kaltetan. Mabet, *quia maledixerat regi*, auziperatu zutenean, errudunaren ondasunez jabetu zen Ajab³⁸ erregea. Sibak David erregeari gaztigatu zion Mefiboset bere aurkako matxinada prestatzen ari zela; erregeak honen ondasun guztiak eman zizkion Sibari, hau esanez: *Tua sint omnia quae fuerunt Miphiboset.*»³⁹

Jakin nahi genuke zeinen eskuetara joango diren Canillac andereñoaren ondasunak, lehenago bere aitari konfiskatu zitzaizkion ondasunak, bestalde, eta erregeak bere ogasunaren zaintzaile bati utzitakoak eta, azkenik, honek, berezko

oinodekoa zen andereñoari. Eta Auverniako andereño baten auzia argitzeko, abokatu orokorra Ajaben bila doa, Palestinako zati baten erregearengana, Naboten mahastia konfiskatu zuena haren jabea justiziaren ezpataz erail ondoren; ekintza nazkagarria, bistan da, ondasun-lapurretak gizonengan sortzen duen nardaren adierazgarri den esaera baten iturria. Esan beharrik ez Naboten mahastiak zerikusi gutxi duela Canillac andereñoarekin. Mefibosetek ere (Saul erregearen biloba, Jonatasen semea, eta Daviden lagun eta babeslea) ez zuen handiegirik emakume honekin.

Pedanteria honekin, gaiari guztiz arrotz zaizkion aipuak sartu behar zoro honekin, giza izaeraren ezagutza falta nabarmen honekin, gaizki harilkatutako eta gaizkiago ehundutako kezka hauekin, gauzatzen dute jurisprudentzia, beren arloan izen handia duten gizon batzuek. Irakurleak bere irudimenarekin jakingo du esan gabe geratu dena osatzen.

22. atala. Auzibide kriminalez eta beste gai batzuez.

Egunen batean, Frantzian, oraingoak baino lege gizatiarragoen eraginez usadio ankerregi batzuk leuntzen badira, horregatik krimenari erraztasun handiagorik eman gabe, pentsatzekoa da auzibideak ere aldatu egingo direla idazleek zorrotzegi jotatutako artikuluetan. Badirudi akusatuen galbi-dea bilatzeko xedez bideratu direla araudi kriminalak, puntu askotan. Hau da lege komun bakarra erresuma guztian; baina legeak ez al luke errugabeen aldekoa izan behar, errudunen aurkakoa den neurri berean? Ingalaterran, arrazoirik gabe egindako atxiloketa soil bat, atxiloketa dekretatu duen ministroak berak konpondu behar du; baina Frantzian, ziegara jaurti den errugabeak, oinazea jasanda gero, ez du kontsolatzeko itxaropen izpirik, eta ezin dio ezer exijitu inori, eta ohorea galduta geratuko da betiko gizartearen aurrean. Errugabea ohorea galduta! Zergatik? Hezurak bere lekutik atera dizkiotelako!

Honek errukia eta begirunea sortu beharko luke. Krimenaren ikerketek zenbait gogorkeria eskatzen du: giza justiziak gaiztakeriari egiten dion gerra da hau; baina gerran ere egon daiteke errukia eta eskuzabaltasuna. Kementsua errukiorra izan ohi da. Legegilea nola izan daiteke ankerra?

Aldera dezagun, puntu batzuetan bada ere, erromatarren auzibide kriminala eta gurea.

Erromatarren auzietan jende aurrean entzuten zitzaien lekukoei, akusatua ere aurrean zela; eta honek eskubidea zuen lekukoei erantzuteko, eta galderak egiteko, eta baita abokatu baten bidez aurre egiteko ere. Auzibide jatorra eta zintzoa zen, erromatarren bihozberatasunaren adierazgarria.

Gure artean dena egiten da isilpean. Epaile bakar batek, eskribauaren laguntzaz, lekukoei entzuten die bata bestearen atzean. Frantzisko I.ak ezarritako jardunbide hau, Luis XIV.ak 1670ean eman zuen ordenantza batetik bildu eta moldatu zuten komisarioek. Nahaste bat izan zen honen guztiaren jatorria.

De Testibus kodea irakurtzean, pentsatu zuten honako hitz hauek: *testes in re judicii secretum*, «lekukoak sekretuan itaundu» behar zirela esan nahi zutela. Baina hemen *Secretum*-ek epailearen langela esan nahi du. *Intrareser etum* ez da inondik inora isilpean berba egitea, hori ez da latina. Beraz, hankasartze batek eraiki zuen gure jurisprudentziaren alderdi hau.

Lekukoak, gehienetan, herriko jende arloteena izaten dira, epaileak berak nahi duen guztia esanarazi ahal diena. Lekukoei bigarrenaz ere entzuten zaie, berrespena esaten zaiona, baina beti sekretuan. Eta berrespen honetan ezetsi edo aldatu egiten badituzte beren lehen adierazpenak, lekuko faltsutzat jo eta zigortu egiten dituzte. Beraz, izakera arrunteko gizon batek, gauzak azaltzen ez badaki baina bihotz onekoa bada, pentsatuko du gutxiegi esan duela galdetutakoaz, edo gehiegi, edo ez diola epaileak ondo ulertu, edo berak epailea-

ri, eta horrela, justizia irizpide batengatik, aldatu egingo du lehen esandakoa, eta, ondorioz, zigortu egingo dute alproja bat omen delako; eta, horregatik, behin baino gehiagotan lekukotza faltsu bati eutsi beharrean izango da testigu faltsutzat har ez dezaten.

Ihes egiten badu, kondenatua izateko arriskuan dago, krimena frogatuta egon ez arren. Egia da, zenbait legelariren ustez, auzi-iheslariak ez liratekeela zigortu behar, baldin eta krimena argi eta garbi frogatua ez badago. Baina beste legegile batzuek, oster, ezjakinenak baina, ziur asko, imitatuenak, alderantzizko iritzia eusten diote: akusatuaren ihesa bere krimenaren froga dela esatera ausartzen dira, eta justiziaren aurrera ez agertzean justiziari egiten zaion mesprezioak, errudun-aitortu baten zigor berbera merezi zuela. Beraz, epaileak iritzi-talde bati jarraitzen badio, kondenatu egingo du erruga-bea, eta beste bati jarraitzen badio, absolbitu.

Gehiegikeria handia handiak gertatzen dira jurisprudentzia frantziarrean, sarri legetzat hartzen baitira bere iritzia lege bihurtu duten eskrupulurik gabeko gizonen erokeria edo hutsegiteak, ankerrak sarri askotan.

Luis XIV.aren erregetza garaian, erresuma guztian komunak diren bi ordenantza egin dira. Lehenengoan, auzibide zibilez ari denean, auzi-iheslariak kondenatzea debekatzeko zaiei epaileei, errua frogatu gabe dagoenean gai zibiletan; baina bigarrean, auzibide kriminalez ari denean, ez da esaten frogarik ez dagoenean akusatua askatu egin behar denik. Gauza bitxia! Legeak dio zor bat duen gizona ez dela auzi-iheslaritzat kondenatu behar, zorra frogatuta egon dadin arte; baina bizitza jokoan dagoenean, justizia epaitegietako eztabaida bihurtzen da auzi-iheslaria kondenatu beharra ala eza, krimena frogatu gabe egon arren; eta legeak ez du korapiloa askatzen.

Akusatuak ihes egin duenean, haren ondasunak zerrendatzen eta eskuratzen hasten zarete; eta honetarako ez duzue

itxoiten auzia amaitu arte, bederen. Oraindik ez duzue froga bakar bat ere, oraindik ez dakizue erruduna ala errugabea den, eta gastu ikaragarriak egin dizkiozue dagoeneko!

Atxiloketa-aginduari muzin egitegatik ematen zaion zigorra da hau, esaten duzue. Baina ez ote da auzibide kriminalaren gogortasun ikaragarria muzin honen eragilea?

Gizon bati krimen bat egozten bazaio, ziega izugarri batean sartzen duzue; ez diozue inorekin harremanik izaten uzten; burdinaz zamatzen duzue, dagoeneko errudun epaitua izan balitz bezala. Beraren aurka deklaratzeko duten lekukoei sekretuan entzuten diezue. Behin bakarrik ikusten ditu, aurrez aurreko saioan; lekukoen adierazpenak entzun aurretik, hauek gaitzesteko zer arrazoi duen azaldu behar du; egoera guztiaz jabetu behar du; une horretantxe izendatu behar ditu bere alde mintzo daitezkeen pertsona guztiak; bere ezespenak ez dira onartuko adierazpenak irakurri ondoren. Testiguei ikusarazi nahi balie ere, edo exajeratu egin direla gertakariak, edo ez direla guztiak esan, edo iruzur egin dela xehetasunetan, torturaren beldurak lehengoari eustera eramango du, nahiz eta bere kalterako izan. Epaietan, akusatuak eta lekukoek modu desberdinean azaldu badituzte gertakariak, hau aski izango da epaile ezjakin edo aurreiritziz betetako batzuek errugabea kondena dezaten.

Nor ez da izutuko honelako auzibide baten aurrean? Non aurkituko da egoera honetan abailduko ez den gizon zuzena? Oh epaileak! Nahi duzue akusatu errugabeak ihesari ez ematea? Ba orduan emaizkiozue bere burua defendatzeko bitartekoak.

Badirudi legeak magistratua akusatuaren etsai izatera behartzen duela, eta ez lagun. Epailearen esku geratzen akusatuaren eta lekukoaren arteko erkaketaⁿ egitea edo ez egitea. Nola utz daiteke erkaketa bezalako tresna interesgarri bat edozeinen iritzira?

Gai honi dagokionean, usadioa legearen aurka dagoela dirudi, hau oso nahasia baita; beti egon ohi da erkaketa, baina epaileak ez ditu lekuko guztiak beti aurrez aurre jartzen; askotan alde batera uzten du pauso hau, garrantzi gutxikoa irudituta; edozein modutan, akusatuaren aurka ezer esan ez duen lekuko batek haren alde deklaratu dezake erkaketa. Lekukoari ahaztu egin dakioke akusatuaren aldeko zenbait gorabehera. Epaileak berak ere agian hasieran ez du neurtu gorabeheren garrantzia, eta ez ditu kontuan hartu zenbait gauza. Oso inportantea da, beraz, lekuko guztiak akusatuarekin erkatzea, horrela alderaketa ez dadin arbitrarioa izan.

Krimen bat denean, akusatuak ezin du abokaturik izan, eta, beraz ez du ihesa beste biderik; hau da justiziaren usadio guztiek aholkatzen diotena; baina ihes egiten badu, kondentatua izateko arriskuan jartzen da, krimena probatuta egon, ez egon.

Beraz, dirua zor duen gizon bat ezin daiteke kondentatu auzi-iheslari gisa, bere zorra frogatuta ez dagoen bitartean; Baina bizitza-kontua denean, kondena daiteke auzi-iheslaria, nahiz eta bere krimena frogatu gabe egon. Nola liteke hau! Legeak arretoa gehiago jartzen dio diruari bizitzari baino! Oh epaileak! Kontsultatu Antonino errukitsua eta Trajano jatorra; biek debekatzen dute aurrean ez dagoenaren kondena.

Nola liteke! Zuen legeak funtzionari usteldu bati, bankuhausle iruzurgile bati, abokatua izateko eskubidea ematen dio eta, sarri, gizon ohoretsu askori ukatu egiten zaio babesbide hori. Kasu bakar batean izanda ere, errugabea abokatuaren laguntzari esker onik aterako balitz, ez al dago argi eta garbi injustua dela babes hau ukatzen dion legea?

Lamoignon-go⁴⁰ lehen presidenteak zera esaten zuen usadio honen aurka: «Akusatuari ematen zitzaion abokatua edo kontseilua ez da legeek edo ordenantzek eskaintzen duten pribilegioa: gizonen lege guztien aurretikoa den zuzenbide naturalak eskaintzen duen askatasuna da. Naturak beste-

en adimenaz baliatzen erakusten dio gizonari, aurrera irteteko berea aski ez duenean, eta laguntzak bilatzen ere bai, bere burua bere kasa defendatzeko ahulegia ikusten duenean. Gure ordenantzek hainbeste onurabide kendu dizkiete akusatuiei, non zentzuzkoa baita geratzen diren apurrak gordetzea, abokatua batez ere, oinarrizkoena. Eta gure auzibideak erromatarrenekin alderatzen badira, edota beste nazio batzuetan erabiltzen direnekin, ikusiko da frantsesenenak baino ankerragorik ez dagoela inon, 1539ko ordenantzaren ondoren, batik bat.

1670eko ordenantzak are eta zorrotzagoa egin du auzibidea. Gozoagoa izango zen komisario gehienek Lamaignon-go M.ek bezala pentsatu izan balute.

Tolosako legebiltzarrak oso usadio bitxia du lekukoen frogetan. Beste leku batzuetan erdi-frogak onartzen dituzte, berez zalantzak besterik ez direnak, gauza jakina baita ez dagoela erdi-egiarik; baina Tolosan erdi-frogak ez ezik, laurdenak eta zortzirenak ere onartzen dituzte. Esate baterako, *entzun dut* bat froga-laurdentzat har daiteke, eta beste *entzun dut* makalago bat froga-zortziren bezala; horrela zortzi zurrumurruk, oinarri gabeko esames baten oihartzun direnak, froga oso bat osa dezakete; eta, gutxi gorabehera, irizpide honi jarraituz kondenatu zuten Juan Calas gurpilera.

Lege erromatarrek frogak *luce meridiana clariores* izan daitezela eskatzen zuten.

23. atala. Berrikuntza baterako ideia.

Magistratura hain da errespetagarria, non hau ordainduta den herrialde bakarrean usadio honen aurka azaldu baita magistratura bera. Legelariak gauzatu nahi luke bere bilera, hitzaldi eta idatzietan defendatu duen justizia. Agian, horrela, gogor ahaleginduz, egunen batean ikusiko dugu jaiotzen jurisprudentzia jator eta bateratuaⁿ.

Auzi berdina desberdin epaitzen jarraituko al da beti probintzietan eta hiriburuan? Nola liteke gizon berberak arrazoia izatea Britainian eta kondenatua izatea Languedoc-en? Baina zer ari naiz esaten! Hiriak adina jurisprudentzia dago, eta parlamentu berean ere, epaigela bateko eta besteko irizpi-deak desberdinak izan ohi dira.

Zein kontraesan ikaragarria erresuma bereko legeen artean! Parisen, hirian urtebete eta egun batez helbideratua egon den pertsona Parisko hiritar bihurtzen da. Franche-Comte-an etxe batean urtebete eta egun batez morroi gisa bizi izan den gizon librea esklabo bihurtzen da; bere senideek ez dute beste leku batzuetan eskuratu duena heredatuko; eta bere seme-alabak ere eskale moduan jan beharko dute ogia, baldin eta urte bakar batez beren aita hil den etxetik kanpora bizi izan badira. Eta probintzia hau franko deitzen da. Frankotasun ederra!

Eta aginte zibilaren eta eliza-usadioen artean mugak zehaztu nahi direnean, nolako eztabaida azkengabeak! Eta non daude mugak? Nok adiskidetuko ditu fiskoaren eta jurisprudentziaren arteko kontraesan betikoak? Hau da hau. Zergatik nazio batzuetan ez dira epaiak inoiz arrazoitzen? Lotsa al dago epaiketa baten zergatiak azaltzeko? Zergatik soberano baten izenean epaitzen dutenek ez diote heriotza-epaiak hari aurkeztzen, gauzatu aurretik?

Edozein lekutara begiratzen dugularik ere, kontraesana, gogorkeria, duda-muda, bidegabekeria ikusten dugu. Dena hobetu nahi dugu mende honetan; saiatu gaitezen, bada, gure bizitza eta ondasunekin hain lotura estua duten legeak hobetzen.

AMAIA

Oharrak

OHARRAK (*Juan Antonio Delval legelariak gaztelerako edizioari egi -nak*)

¹ Beccariaren liburuak egundoko jakinmina sortu zuen Europan, ezta-baida sutsuak eragin zituen, eta oharrak, iruzkinak eta era guztietako idatzia-
k agertu ziren egilearen ideiak azpimarratzeko eta gai jakin batzuk aztertze-
ko (liburuaren aurka-ko idatziez gain, noski); lehenengo-
en artean aurkitzen dira Voltaire, Diderot eta Morelletenak.

Voltaire oso kezkatuta zegoen lege-
en hobekuntzarekin eta epaileen hutsegiteekin, Calas familiarekin gertatutakoa gertatu ondoren, batez ere. Jean Calas heriotza-zigor-
rera kondenatu zuten 1762ko martxoaren 9an eta hil egin zuten torturak jasan ondoren, nahiz eta berak bere erru-
gabetasuna ozen aldarrikatu beti. Hurrengo bizpahiru urtean Voltairek bere ahalegin guztiak egin zituen Calastarrak birgaitzeko, eta azkene-
an lortu zuen 1765eko martxoaren 9an.

Handik gutxira, beste legezko kri-
men bat gehitu zitzaion aurrekoari: De la Barre zalduna urkatu egin zuten (eta gero erre, Voltaireren *Hiztegi filosofikoa*-rekin batera)

1766eko ekainaren 1ean. Ordurako Voltairek, 1765eko urrian, irakurria zuen *Delituez*, ikaragarri gustatu zitzaion, eta idatzi bat bidali zion milandarrari Calasen gertakaria kontatuz.

Esku arteko *Iruzkina* 1766ko ekain-uztailean idatzi zuen eta urte bereko irailean agertu zen. Ezarritako ordena penalaren aurka bero-bero jardun zuen garai batekoa da, beraz. Voltairek hau idatzeko, Cristin de St. Claude, Besançongo abokatuaren laguntza izan zuen lege alderdian. Geroztik, sarri argitaratu izan da Beccariaren liburuarekin batera.

Voltaire eta Beccariaz, eta Voltairek legeria berritzeko egin zuen lanaz, ikus bedi: Marcello T. Maestro, *Voltaire and B. as Reformers of Criminal Law*, New York, Columbia University Press, 1942.

² Maximo generala, Britainiako tropen buruzagia, matxinatu egin zen eta Graziano enperadorea garaitu zuen. Espainia eta Galiako enperadore izan zen 383tik 388ra arte. Valentinianori, Italiako enperadore-
ari, eraso zion, eta honi laguntzera joandako Tedosiok garaitu egin zuen eta lepoa moztu zion.

³ Idazio Meridako gotzaiak eta Itazio Ossonobakoak, 380ko Zaragozako Kontzilioaren ondoren, Prisziliano beren elizetatik egotzia izan zedila eskatu zioten Graziano enperadoreari. Ez zuten erdietsi nahi zutena, baina, tarte horretan, Maximo enperadore bihurtu zen, eta Prisziliano epaitzea eta burua moztuz hiltzea lortu zuen.

⁴ Priszilianismoaz, ikus bedi: A. Barbero de Aguilera, *El priscilianismo: herejía o movimiento social?*, Cuadernos de Historia de España, Buenos Aires, 1963, non azaltzen diren heresia honen jatorri ekonomiko eta sozialak, eta beren botere mundutarra sendotzen ari ziren gotzai espainiarren aldetik sufritu zuen jazarpenaren arrazoiak.

⁵ Roberto II.a, Frantziako erregea, Elizkoia edo Santua esaten ziotena (971-1031), eta Akitaniako Konstantza.

⁶ Diokleziano (245-313) enperadore izan zen Maximianorekin batera. Inperioaren bere berrantolaketan (292), bi zesar izendatu zituen, bi augustoei beren eginkizunetan laguntzeko: Galerio eta Konstantzio Kloro. Galerio kristauen aurka jarduen zuen, Konstantziok, aldiz, babestu egin zituen. Agian aitaren-gandik ikasi zuen bere seme Konstantzio Handiak oso boteretsu eginak zeuden kristauak alde izaten, eta hauen laguntzaz lortu zuen beste enperadoregaiak garaitzea.

⁷ *Exodo*, XX, 7.

⁸ «Jainkoa mendekatu egin behar dela dion ideiatik sortu da okerra. Baina ohoratu egin behar da

Jainkoa, eta inoiz ere ez mendekatu» (Montesquieu, *De l'esprit des lois*, lib. XII, 4. atala). Testu berean, Montesquieuk dio «ekintza publikorik gabeko Jainkoaren aurkako saioetan ez dago krimen-gairik: Jainkoaren eta gizonaren arteko ausia da, eta hark badaki zein den bere mendekuen neurria eta garaia».

⁹ Kinto Ennio (239-169 K. a.) eta Dezimo Magno Ausonio (310-395), poeta latinoak. Ennioren eta Ausonioren garaien artean idatzi zen, beraz, ia latinezko literatura guztia.

¹⁰ Mateo, 18, 17.

¹¹ Jacob Spon (1647-1685), historialari eta arkeologo frantziarra.

¹² Paul Ferry (1591-1669), artzai protestantea.

¹³ Luis XIV.aren gortea.

¹⁴ Jean Desmarests, Saint-Sorlingo jauna (1596-1666), literaturgile frantziarra, Frantses Akademiako lehen kantzilerra, Richelieuren santuhartua eta jansendarren etsai porrokatua.

¹⁵ Baieztapen hau zalantzarria da. Blackstone-k berak dio 1770ean 160 delitu zeudela heriotza-zigorra zutenak, lapurreta-delituak ere bai tartean.

¹⁶ Ik. *Delituez eta Zigorrez* liburuan erregina honi buruz egiten den oharra.

¹⁷ Katalina II.a Handia (1729-1796, Errusiako zaresa 1762an), asko arduratu zen bere lehen erregetza urteetan legeriaren berrikuntzaz. Berak izendatutako batzorde bat arazoa aztertzen hasi zen 1762an,

eta Katalina berberak idatzi zuen *Nakaz* bat —jardunbidea—, Montesquieu eta Beccariarengan inspiratua neurri handi batean, langintzaren oinarriak ipini nahi zituen. *Nakaz* honen seigarren puntuan bere aurretiko Elisabethen eredia gogoratzen du, eta heriotza-zigorren alferrikotasuna nabarmentzen. Katalinak harreman onak izan zituen entziklopediazale frantziarrek; ezaguna da Voltairekin izan zuen gutun-harremana.

¹⁸ Jorge Jeffreys (1640-1689), Ingalaterrako kantzilerra, famatua bere epai odoltsuengatik, horien artean William Russellen eta Sidneyren legezko erailetak.

¹⁹ Louis-Charles Machault (1667-1750), poliziako teniente generala, *Lepamoztaila* gaitzizenaz ezagutua bere epaiketen gogortasunagatik.

²⁰ *Jainkoaren Hiria*, XIX. lib., 6. at.

²¹ Maximiliano I.a (1459-1519), Alemaniako enperadorea 1493an.

²² Luis V.a hil zenean (987) Hugo Capeto jarri zen Frantziako errege (939-996), Karlos bere lehengusua-ren eskubideak lapurtuz. Karlos (953-993) Lorenako dukea zen, Luis Varen osaba. Hugok espetxean sartu zuen Karlos, eta han hil zen.

²³ Eduardo VII.a hil zenean (1483) bere seme Eduardo VIII.a egin zuten errege, baina honen osabak, Rikardo III.ak, Londresko Dorrean itxi zuen, eta errege izendatu zuen bere burua. Eduardo VIII.a eta Yorkeko dukea erail egin zituzten, Rikardoren aginduz, itxuren arabera.

Gillermo Colingburn 1483an hil zuten.

²⁴ Tito Oatesen (1619-1705) biografia oso bitxia da. Apaiz anglikanoa zen eta itsasontzi batean kaperau ibili zen hasiera batean, baina lekukotza faltsua leporatu zioten, eta ihes egin behar izan zuen Ingalaterratik. Katoliko egin zen, eta jesuita, eta egotzi egin zuten zenbait ikastetxetatik, Valladolidetik, adibidez, eta orduan Ingalaterrara itzuli zen eta Touge Doktorearekin batera, Voltairek aipatzen duen historia asmatu zuen: jesuitek, indarra erabiliz, Ingalaterra herri katoliko bihurtzeko eta Karlos III.a (1630-1685) erailtzeko asmoa zutela. Nahiz eta konspirazio honek ez zuen ez buru eta ez hanka, errepresalia handiak egon ziren, eta Lord Stafford exekutatatu egin zuten. Oatesek pentsio bat jaso zuen saritzat. Geroago, Jakobo III.aren erregetza garaian (1685-1689) zorreatik atxilotu zuten, eta betiko espetxea eman zioten, baina Gillermo II.ak birgaitu egin zuen.

²⁵ Francisco Augusto de Thou (1607-1642), erregearen liburutzaing nagusia eta Parlamentuko aholkularia. Richelieu kardinalaren babespekoa hasieran, eta etsaia gero.

²⁶ Francesco Guicciardini (1482-1540) historialari eta politikoa italiar ospetsua.

²⁷ Henri Coiffier de Ruzé, Cinq-Mars-eko markesa (1620-1642), Frantziako ezkutari handia, Richelieuren begikoa izan zen eta Luis XIII.aren kutuna, baina kardinal boteretsuarekin liskartu zen eta konspirazio bat antolatu zuen haren aurka, zeinetan erregearen anaiak eta Bouillongo dukeak hartu zuten parte. Konspiratzaileak aurkitu

zituzten, eta Cinq-Mars urkabeen hil zuten De Thourekin batera.

²⁸ Jaurigny (1562-1582); Jauregi esaten diote beste batzuek. Orangeo Gillermo printzea (1533-1584) hil nahi izan zuen, baina zauritzea lortu zuen bakarrik. Lepoa moztu zioten hantxe bertan. Gerard-ek (1558-1584) gauza bera intentatu zuen, eta lortu ere bai. Krimenaren lekuan atxilotu zuten; gero exekutatu egin zuten, tortura izugarrien ondoren. Modu batera edo bestera, espainiarrak egon ziren ekintza bien azpian, Felipe II.a Orangeo Gillermoren etsaia baitzen.

²⁹ Jacques Clementek (1567 j.), katoliko porrokatuek bultzatuta, Frantziako Enrike III.a erail zuen 1589an. Lekuan bertan hil zuten erregearen zaindarien.

³⁰ Jean Chatel (1575 j.) Frantziako Enrike IV.a hiltzen saiatu zen 1594an, erlijoaren aurkakotzat jotzen zuelako, baina zauritzea lortu zuen bakarrik. Laurdenduta hiltzera kondenatu zuten.

³¹ François Ravallac (1587 j.) zisterarren konbentu batean sartu zen, baina laster bota zuten; gero jesuita egiten ahalegindu zen, baina ez zuen lortu. Bere fanatismoak Enrike IV.a hiltzera eraman zuen (1610). Laurdenduta hil zen.

³² Famiano Strada (1572-1649), idazle italiarra, flamendarrak espainiarren zapalkuntzaren aurka altxatu zireneko historia kontatzen duen liburuaren egilea: *De bello belgico decades II* (Erroma, 1632-1647)

³³ Letrango laugarren Kontzilioa (1215).

³⁴ Jean Duvergier de Hauranne (1581-1643), teologoa, Jansenioren laguna, jansendarren egoitza izan zen Port-Royalgo abadiaren zuzendari espirituala.

³⁵ Codros, Atenasko azken erregea (XI. mendea K. a.). Leiendak dienez, bere burua hiltzeko agindua eman zuen, igarle batek esan ziolako horixe egin behar zuela, bere herriak doriotarren aurkako guda irabaz zezan.

Mecio eta Marco Curcio, erromatar leiendako pertsonaiak. Tito Livio dienez, Meziok (VIII. mendea K. a.) urtegi batera bota zuen bere burua, sabinen bahiketaren ondorengo gerran, Romuloren eskuetan ez jaus-tearren. Markok (IV. mendea K. a.), Tito Livioaren arabera hau ere, lurrikara batek ireki zuen eta ixten ez zen leize sakon batera bota zuen bere burua, igarleek esanda.

³⁶ Origenes (185-254), exegeta, teologoa eta apologista kristaua. Irendu egin zen, bere dotrina-ikasleekin harremanak zituela pentsa ez zezan inork.

³⁷ Hutsen bat egon behar du datan, Omer Talon, erregetzaren aurrean Parlamentuaren eskubideak defendatu zituen abokatua, 1595etik 1652ra arte bizi izan baitzen.

³⁸ *Erregeen liburua*, 21.

³⁹ II. Samuel, 16, 4. Aldatu egin dugu izen hauen ortografia, gaur ohikoena dena erabiliz.

⁴⁰ Gillaume de Lamoignon (1617-1677), Parisko Parlamentuko lehen presidentea. Lege frantziar guztiak kode bakar batean biltzen saiatu zen.

Voltairek berak jarritako oharrak

a orr. Ik. *Histoire de l'Église*.

b XIII. atala, *Ad legem Juliam*

c *Bene ac sapienter, patres conscripti, majores instituerunt ut rerum agendarum, ita dicendi initium a praecationibus capere*, etc. (Plinio Gaztea, *Trajanoren goraipamena*, 1. atala).

d 13. atala.

e Jacob Spon eta Gui Vances.

f Bodin, *De republica*, III. lib., 5. atala.

g *Legeen Espirituaz*-en egilea, bere lanean hainbeste egia azaldu diguna, oso oker dabil bere irizpideak indartzeko esaten duenean ohorearen sentimendu ilun bat dela monarkiaren oinarria, eta berturearen sentimendua, berriz, errepublika guztiena, gero txinatarrei buruz zera esateko (VIII, 21): «Ez dakit zer den ohorea txinatarrentzat, gauza guztiak makilaka konpontzen baitituzte». Herri xehea makilaka urrundu behar izaten delako, edo arlote, eskale eta pikaroei egurra ematen zaielako, ez

da pentsatu behar Txinan ez dela elkar babesteko legerik, eta legeok ederto gobernatzeko bidea ematen ez dutenik.

h Gregorio XV.aren konstituzioa 1622ko abuztuaren 30koa da. Ikus D'Aubigny jesuitaren *Eliz memo-riak*, Bularioa kontsultatu nahi ezean.

i Tratatu hau Parisen inprimatu zen 1609an, Toussaint Dubray-ren moldiztegiari, erregearen pribilegioaz. Erregearen liburutegian izan behar du orain.

j I. Leg., XI. lib., 50. tit. *De bonis eorum qui sibi mortem*, etc.

k IV. Leg., 2, XLVIII. lib., VIII. tit. *Ad legem Corneliam de sicariis*.

l Ik. 1724ko maiatzaren 24ko ediktua, Fleury kardinalaren eskariz argitaratua.

m *Journal du Palais*, t, I, 444.

n *Eta beharrezkoa balitz, alderatu*, dio 1670eko ordenantzak, 15. artikuluko 1. tituluan.

ñ Ikus honi buruz Bouhier lehendakariak diona.

Aurkibidea

HITZAURREA	7
BIBLIOGRAFIA	19
ITZULTZAILEAREN OHARRA	21
IRAKURLEARI	23
SARRERA	27
I. <i>Zigorren jatorria</i>	29
II. <i>Zigortzeko eskubidea</i>	30
III. <i>Ondorioak</i>	31
IV. <i>Legeen interpretazioa</i>	32
V. <i>Legeen iluntasuna</i>	35
VI. <i>Delituen eta zigorren arteko oreka</i>	36
VII. <i>Hutsegiteak zigorrak neurtzeko orduan</i>	39
VIII. <i>Delituen sailkapena</i>	41
IX. <i>Ohoreaz</i>	43
X. <i>Dueloez</i>	45
XI. <i>Lasaitasun publikoaz</i>	46

XII.	<i>Zigorrenhelb urua</i>	47
XIII.	<i>Testigantzez</i>	48
XIV.	<i>Aztarnak eta epaitzeko erak</i>	50
XV.	<i>Isilpeko salaketak</i>	52
XVI.	<i>Torturaz</i>	54
XVII.	<i>Fiskoaz</i>	60
XVIII.	<i>Zinegiteez</i>	61
XIX.	<i>Zigorrenlastertasuna</i>	62
XX.	<i>Indar-ekintzak</i>	64
XXI.	<i>Nobleen zigorrak</i>	65
XXII.	<i>Lapurretak</i>	67
XXIII.	<i>Ospe txarra</i>	68
XXIV.	<i>Nagiak</i>	69
XXV.	<i>Erbesteratze eta ondasungabetzeak</i>	70
XXVI.	<i>Familia-espirituaz</i>	71
XXVII.	<i>Zigorrenbiguntasuna</i>	74
XXVIII.	<i>Heriotza-zigorrak</i>	76
XXIX.	<i>Espetxeratzeaz</i>	84
XXX.	<i>Auziak eta preskripzioak</i>	87
XXXI.	<i>Frogatzen zailak diren delituak</i>	89
XXXII.	<i>Buru-hilketa</i>	92
XXXIII.	<i>Kontrabandoak</i>	96
XXXIV.	<i>Zordunetz</i>	97
XXXV.	<i>Babesak</i>	99
XXXVI.	<i>Hilketa-sariaz</i>	100
XXXVII.	<i>Atentatuak, konplizeak eta inpunitatea</i>	102
XXXVIII.	<i>Itaunketa iradokitzaileak, adierazpenak</i>	103
XXXIX.	<i>Delitu mota berezi batzuez</i>	105
XL.	<i>Komenigarritasun-ideia okerrak</i>	106

XLI.	<i>Nola aurreikusten diren delituak</i>	108
XLII.	<i>Zientziez</i>	110
XLIII.	<i>Magistratuak</i>	113
XLIV.	<i>Sariak</i>	113
XLV.	<i>Heziketa</i>	114
XLVI.	<i>Barkamenaz</i>	114
XLVII.	<i>Ondorioa</i>	116
OHARRAK.....		117
VOLTAIRE. «Delituez eta Zigorrez» liburuari buruzko iruzkinak, probintzia- -abokatu batek eginak (1763)		
1.	<i>atala. Iruzkin hauen zergatia.</i>	123
2.	<i>atala. Torturez,</i>	125
3.	<i>atala. Heretikoen aurkako zigorrrez.</i>	125
4.	<i>atala. Heresien erauzketaz.</i>	128
5.	<i>atala. Profanazioez.</i>	130
6.	<i>atala. Erromatarren biguntasuna gai honetan.</i>	133
7.	<i>atala. Predikaritza krimenaz eta Antonioz.</i>	135
8.	<i>atala. Simon Morin-en historia.</i>	137
9.	<i>atala. Aztiez.</i>	138
10.	<i>atala. Heriotza-zigorraz.</i>	140
11.	<i>atala. Epaien betetzeaz.</i>	142
12.	<i>atala. Torturaz.</i>	142
13.	<i>atala. Zenbait odol-auzitegiri buruz.</i>	144
14.	<i>atala. Lege politikoen eta naturalen artean dagoen aldeaz.</i> ..	145
15.	<i>atala. Goi-mailako traizio-krimena. Tito Oates eta Augusto</i> <i>de Thou-ri buruz.</i>	147
16.	<i>atala. Aitortzan egindako konfesioa</i>	150
17.	<i>atala. Txanpon faltsuaz.</i>	153

<i>18. atala. Etxe barruko lapurretaz.</i>	153
<i>19. atala. Buru-hiltzeaz</i>	154
<i>20. atala. Elbarritze-mota batez.</i>	156
<i>21. atala. Goian aipatutako delituek ekartzen dituzten konfiskazioez.</i>	156
<i>22. atala. Auzibide kriminalez eta beste gai batzuez.</i>	159
<i>23. atala. Berrikuntza baterako ideia.</i>	164
OHARRAK	167